

MUGARRIAK

AIARALDEA 2023



AIARALDEA

KOMUNIKABIDE
FAKTORIA



KOMUNIKAZIOA DISEINU GRAFIKOA
ITZULPENGINTZA INTERPRETAZIOA

BIDEOGINTZA
PUBLIZITATEA

FAKTORIAN/ Laudioko industrialdea 4-8
info@komunika.eus · www.komunika.eus · 946 56 85 54

Jarrai gaitzazu Instagramen!
@komunika.eus

20.000

mugarri espezie

Mugarri batetik bestera egin dugu salto aurten Aiaraldean eta, konturatu garenerako, iritsi gara 2024aren irteera-puntura.

Mugarri horietako batzuk islatu nahi izan ditugu urtekari honen azalean. Esti Urresolaren *20.000 especies de abejas* filmeko protagonista den Coco jarri dugu gailurrean, erlez inguratutik, zinemagile audioarraren pelikulak izan duen oihartzuna nabarmentzeko.

Mendiaren magalean, aldiz, aurten eskualdean zeresana eman duten beste hainbat gai ikusi daitezke islatuta: txirindularitza lasterketek izandako pisua, tren zerbitzuarekin egondako arazoak edota esparru sozioekonomikoan egondako gatazka, greba eta mobilizazioak. Ilustrazioari, gainera, kolore eta estilo berezia eman diogu, Raisa Alava artista zuhartzarrak aurtengo Frantziako Tourrerako egin duen kartela omentzeko.

Baina 2023. urteak askoz mugarri gehiago utzi ditu gurean, eta horietatik ahalik eta gehien saiatu gara liburu honen 200 orrietan islatzen, badakigun arren baten bat, seguraski, txertatu gabe utzi dugula. Izan ere, urtebetean eskualdean bizitzako guztia ezin da urtekari soil batean sartu. Kontaezinak dira Aiaraldeko mugarriak, Esti Urresolaren filmeko erleak bezainbeste.

Aiaraldea Komunikabide Faktoriako kideok horretan jarraituko dugu 2024an ere: Aiaraldeko eguneroko eta errealtatea jasotzen, papereko zein Internet bidezko euskarrietan. Baina badakigu bide horretan ez gara bakarrak egongo. Dozenaka herritar boluntario izan eta izango ditugu alboan: ekitaldietako argazkiak egiten, Aiaraldea Hemen hamabostekaria taberna eta saltokietatik banatzen... eskerrik asko beste urte batez auzolan erraldoi honetan parte hartzera animatu zareten guztiei!

Izan ere, hori da Aiaraldea Komunikabide Faktoria: denon eskutik denon eskura sortu eta garatutako proiektua, eskualdearekin batera hazi dena, mugarri mugarri, euskaratik eta euskaraz.

Argitalpen data: 2023ko abendua ·

Inprenta: Gertu · **Tirada:** 2.500 ale · **Lege gordailua:** BI-1230-2013 · **Ekoizpena:** Aimar Gutierrez Bidarte, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares, Iera Garaio Ibarroondo, Eider Garcia Gomez, Ainhoa Sanchez Martin. **Esker bereziak:** Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiei

Lizentzia: CC-BY-SA (Testuei dagokionez, argazkien kasuan komunikabidearenak diren irudietan)



araba álava
foru aldundia diputación foral

Aurkibidea

6-63 or. KRONOLOGIA

Kirola

66-69 or. Azpiegitura berriak kirol berriz gozatzeko
70-77 or. Kirolarien mugarriak
78-79 or. Iritzia: Vive le tour?

Sozioekonomia

82-83 or. Madres Mercedarias: Bake soziala azkenean?
84-87 or. Autoglas-Glavista: Erortzear dagoen domino pieza

Euskara

90-92 or. Kimu berdeak sortu dira euskararen transmisioan?
93 or. Iritzia: Berbots euskaltegiak 25 urte

Kultura

96-103 or. Disko, liburu eta pelikulen katalogoa

Hezkuntza

106-107 or. Herri curriculumak sortzeko lehen urratsak eman dituzte
108-113 or. Publikoa borrokan murrizketa eta lege berrien aurka

Jendartea

116-121 or. Hezurren azpiko izenak memoria eta duintasun bila
122-125 or. Drogen aurkako atxiloketak eta gero zer?
126-128 or. Tren zerbitzua gero eta okerrago Aiaraldean
129 or. Iritzia: Indarkaria matxista, armairutik atera beharrekoa

Politika

132-133 or. Udal hauteskundeek osagai berriak utzi dituzte Aiaraldean
134-141 or. I. audio politikaren instituzionala
142-149 or. Amurrioko politika instituzionala
150-157 or. Urduñako politika instituzionala
158-165 or. Orozkoko politika instituzionala
166-173 or. Arrankudiaga-Zolloko politika instituzionala
174-181 or. Aiarako politika instituzionala
182-189 or. Artziniegako politika instituzionala
190-191 or. Arakaldoko politika instituzionala
192-198 or. Okondoko politika instituzionala

Urteko mugarri nagusiak

hilabetez hilabete



Azken urteetako gorakada handiena AP-68an

Espainiako Gobernuak bidesarien igoera %4an mugatu arren, AP-68a guztira %5,55 garestiagoa bilakatu zen urtarilaren 1etik aurrera. Zehazki, Laudiotik Bilborako zatia %7 garestitu zuten eta Gasteizera joateko %9,2 gehiago ordaintzera pasa ziren bidariak.



Oihane Zulueta Vazquez eta Miriam Ojembarrena amurriarrak hartu dute parte "El conquis" saioan

Aiaraldeko bi ordezkari aritu dira *El Conquistador del fin del mundo* telebistako multiabentura txapelketan lehiatzen: Oihane Zulueta Vazquez kexarra eta Miriam Ojembarrena amurriarra.



Zubietak irabazi zituen kaleen arteko herri kirolak

Jendetza elkartu zen Orozkoko kiroldegian herriguneko zenbait kaleko lagunak arteko erronka ikuste-ko. Aurten Zubietak izan da irabazle.

Argazkiak: Jon Andreu, Leire Muntion, Uxue Alberdi



Bi hilabeteko greba mugagabea egin zuten Talleres Abasoloko langileek

Greba mugagabea abiatu zuten Laudioko Talleres Abasolo lantegiko beharginek, lau hilabetez soldata kobratu gabe egon ostean. Bi hilabete iraun zuen lanuzteak, eta azkenean akordioa lortu zuten enpresarekin.

GERTAERA HANDIAK, ALBISTE BIXIAK, URTERO ERREPIKATZEN DIREN EKIMEN ARRAKASTATSUAK... 2023AK KRONOLOGIA OPARIA UTZI DU GUREAN.



Laudio Ikastolaren 50 urteko historia eta istorioak, liburu batean bilduta

Urte hasieran aurkeztu zituen Laudio Ikastolak bere 50. urteko ibilbidea laburbiltzen duten liburua eta dokumentala. Orotara, 30 pertsonatik gora elkarrizketatu dituzte 50 urteko historia eta istorioak azalertzeko; irakasleak, langileak, ikasle ohiak, gurasoak edota herritarrak, besteak beste. Horrez gain, ehunka argazki berreskuratu eta digitalizatu dituzte.



Ohiko erritmo eta arrakasta berreskuratu ditu San Anton Armuru azokak

Bi urteko etenaldiaren ostean, indartsu itzuli zen San Anton Armuru azoka Amurrioko kaleetara. Izen bereko plaza izan zen jaiaren epizentroa. Bertan egin zuten enkantea, eta txosna zerbitzua egon zen goiz osoan zehar. Inguruko kaleetan, aldiz, tokiko ekoizle eta artisauen azoka egon zen.



Hartzekodunen aurrelehiaketan sartu zen Glavista, eta langileek mobilizatzeari ekin zioten

Urte hasieran sartu zen Laudioko Autoglas-Glavista lantegia hartzekodunen aurrelehiaketan, 240 langileren enplegua arriskuan jarritz. Mobilizazioak egiteari ekin zioten orduan beharginek. Urte osoan zehar luzatu da prozesua, eta ez da amaitu oraindik.

URTARRILA



Elurrak zuriz jantzi zituen Aiaraldeko bazterrak

Zurituta esnatu ziren Aiaraldeko txokoak urtarrilaren 18an, elurra dela-eta. Mendi, errepide eta kaleek itxura aldatu zuten. Aiaraldeko bazterren argazkiak pilatu ditugu irakurleek bidalitako irudiekin. Argazkia: Unai Etxebarria



2023an lanean hildako lehen behargina laudioarra izan zen

Lan heriotzek ez dute Aiaraldea kolpatzeari utzi 2023an. Euskal Herrian aurten lanean hildako lehen pertsona Laudiokoa izan zen. Istripu ez traumatiko baten ondorioz zendu zen, Kutxabankek Izarran duen bulegoan bera bakarrik lanean ari zela. Irailean, aldiz, 32 urteko amurriarra hil zen herrian bertan jazotako trafiko istripuan, lanetik itzultzen ari zela. Aiaraldeko Greba Batzordeak lan heriotzak konartzeko panelak jarri zituen otsailean eskualdeko hainbat txokotan.



Hiru tona marihuana topatu zituen Ertzaintzak Belandiako baserri batean

"EAEen inoiz eginiko kalamu inkautaziorik handiena" egin zuen Ertzaintzak Belandian urtarrilean, hainbat komunikabidek zabaldu zuten. 44 urteko gizon bat atxilotu zuten operazioan, baina aske utzi zuten gero kautelazko neurriekin. Dena den, argitzeke dago topatutako hiru tonen printzipio aktiboaren (THC) maila. Izan ere, hedabide batek zabaldu zuenez, atxilotuak argudiatu zuen kalamu hori CBD motakoa zela (hau da, ez toxikoa).

URTARRILA



Aiaraldeko Plan Estrategikoaren 41 milioi euroak eskualdera iritsi dira

Otsailean aurkeztu zieten eskualdeko tokiko erakundeetako ordezkariari Aiaraldea ekonomikoki suspertzeko berehalako jardura-plana. 41 milioi euro bideratu dituzte guztira eskualdera Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, eta zatirik handiena (11,3 milioi) industriari bideratu dira.



Usansoloko ospitalera joateko autobus zerbitzu zuzena exijitu dute pentsiodunek

Borroka dinamika berria abiatu zuen Aiaraldeko Pentsiodunen Mugimenduak urte hasieran, Usansoloko ospitalera autobus zerbitzu zuzena jartzea eskatzeko. Mozioak aurkeztu zituzten eskualdeko hainbat udaletan, eta sinadura bilketa zein mobilizazioak ere egin dituzte 2023an zehar.

Lan istripu larria Tubos Reunidosen

Bi langile zauritu ziren Tubos Reunidosen otsailean. Pine Instalaciones y Montajes enpresa azpikontratatuarentzat egiten dute lan bi beharginek, eta tentsio handiko lanabesak zeuden eremu batean ari ziren lanean. Beharginetako bat larriki zauritu zen, eta sekuelak izango ditu horren ondorioz.



OTSAILA



Saydi Lubanzadio Eurovision lehiaketan parte hartzeko atarian geratu da Viccorekin

Vicco abeslearekin parte hartu zuen Saydi Lubanzadio dantzari laudioarrak otsailean eginiko Benidorm Festean hirugarren sailkatu zen. Bertan erabaki zen nork ordezkatu zuen Espainiako Estatu Eurovisionen, eta laudioarra jaialdi horretara joateko zorian geratu zen. Dena den, Lubanzadioren ibilbidea arrakastatsua da berez, Lola Indigo talde ospetsuko kidea baita, besteak beste.



Salaketaren bidea hartu du berriz Maria Luisa Goikoetxeak, trenean irisgarritasuna bermatzeko

Pazientzia agortu zitzaion Maria Luisa Goikoetxeari. Urteak igaro ditu urduñarrak tren zerbitzuan irisgarritasuna bermatzeko borrokan eta, salatu duenez, une honetan berari bakarrik eskaintzen dio Renfek arrapala trenera igotzeko, "proba pilotu moduan". Gauzak hala, Espainiako Senatura jo zuen, EAJko senatarien bidez. Horren ondorioz, Garraio Ministroak konpromisoa hartu zuen Goikoetxeari eskaintzen zaion zerbitzua jende ororen esku jartzeko.



Akordioa Envasesen, bi eguneko grebaren ostean

Bi eguneko greba egin eta ekoizpena guztiz gelditu zuten Envaseseko langileek otsailean, lan baldintzak hobetzeko helburuarekin. Azkenean, akordioa lortu zuten sindikatuarekin, lan hitzarmenean hainbat aldaketa egitea lortuz.



Aktore oneraren Zilarrezko Hartzia lortu eta historia egin du Esti Urresolaren filmak Berlinale

Aktore oneraren Zilarrezko Hartzia jaso zuen Sofia Otero haur basauriarrek 20.000 especies de abejas filmeko protagonista moduan eginiko lanagatik, eta sari hori inoiz jaso izan duen aktorerik gazteena bilakatu da. Horrez gain, Guild Film Prize eta The Berliner Morgenpost Readers Jury Award sariak jaso ditu Esti Urresolaren filmak. Argazkia: Berlinale

URTE HASIERAN EGOERA SOZIOEKONOMIKOAK HARTU ZUEN PROTAGONISMOA, MADRES MERCEDARIAS, ENVASES, TALLERES ABASOLOKO EDOTA AUTOGLAS-GLAVISTAKO LAN GATAZKEKIN, BESTEAK BESTE.



Usansoloko ospitalean pediatria eta erditze zerbitzuak eskatzeko ekimena jarri dute abian

Barrualdeko ESiko herritar talde batek sinadura eta atxikimendu bilketa abiatu zuen urte hasieran, Usansoloko ospitalea handitzeko eta berritzeko egingo dituzten lanetan pediatria zerbitzua eta arrisku baxuko erditzeak sar ditzaten eskatzeko. Aiaraldeko zenbait guraso elkartek eta emakume taldek bat egin zuten ekimenarekin, baita Lau-dioko Mugimendu Feministak ere.

OTSAILA



Goi mailako hockeya Laudioko Granja kiroldegian

Espainiako Hockey Aretoko Finalerdiak jokatu ziren otsailean Laudioko Granja Kiroldegian, Arabako Federazioak eta Ganbegik antolatuta. Kiroldegiko harmailak beteta egon ziren asteburu osoan zehar, eta Complutense klub madrildarra gailendu zen norgehiagokan.



"Euskararen arnasmagida ez-perfektua" sortzeko lehen urratsa eman dute Faktorian

"Euskararen arnasmagida ez-perfektua eraikitzen" mintegia egin zuten otsailean Faktorian. Badalab euskararen esperimentazio espazioak eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriak sustatu dute proiektua, euskararen erabilera espazio funtzional zein aldi baterakoetan nola bermatu eztabaidatzeko.



90 langile gutxiagorekin funtzionatu nahi du Aiala Vidriok 2025etik aurrera

Otsailean jakinarazi zuen Aiala Vidriok Laudioko lan-tegian enplegu murrizketa handia egin nahi duela. Azaroan, aldiz, asmo horien gaineko xehetasun gehiago eman zizkien zuzendaritzak sindikatuei: AV1 la-bearen funtzionamendua aurtan etengo dute eta 90 lanpostu suntsituko dituzte guztira. Bienbitartean, enpresa berdinak 53 milioi euroko inbertsioa egin du Brasilen.

OTSAILA



Ehunka lagunek salatu dute Unai Isasiren atxiloketa Amurrion

Ehunka lagun mobilizatu ziren Amurrion Unai Isasi gazteari elkartasuna adierazteko. Kalez jantzitako poliziak atxilotu zuen gazte amurriarra, Gasteizko Martxoaren 3ko manifestazioan. Desordena publikoak eta agintarien kontrako erasoak egotzi zizkieten.



Aiaraldeko kaleak jendez eta aldarriz bete ditu berriz mugimendu feministak

Urteroko dinamikari jarraiki, ehunka lagun batu ziren martxoaren 8an Aiaraldean eginiko ekimen eta mobilizazioetara. Aiaraldeko Mugimendu Feministak kotxe karabana antolatu zuen Orozkoko Madres Mercedarias egoitzaraino, bertako langileei elkartasuna adierazteko.

MARTXOA



Aiarako sei herritako erreferentziako ospitalea berriz Gurutzeta izatea eskatu dute

Martxoan ekin zioten mobilizatzeari Añes, Lexartxu, Kostera, Erbi, Lanteno eta Erretes Lanteno hainbat bizilagunek, euren erreferentziako ospitalea berriz Gurutzeta izatea eskatzeko. Abenduan jaso dute Osakidetza erantzuna. Osasun erakunde publikoak ez du onartu bizilagunen eskaria, eta Usansoloko ospitalera joateko autobusa atontzea proposatu du horren ordez.



'Etorkizuna Batuz' hautagaitzak irabazi ditu Amurrio Clubeko hauteskondeak

Martxoaren hasieran egin ziren Amurrio Clubeko hauteskundeak. 'Etorkizuna batuz' hautagaitzako kideak gailendu ziren bozketan 'harrobiaz harro'-ko kideekiko, eta Laurentz Ibarrola izendatu zuten presidente.



Aretako Eskolako bi urteko gelaren itxiera ekiditea lortu dute ehunka bizilagunek

Aste frenetikoa izan zen martxoko azkena Aretako Eskolako kideentzat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jakinarazi zien bi urteko gela itxiko zuela, ume gutxi matrikulatu zirela argudiatuta. Mobilizazio ziklo bizia abiatu zuten orduan ehunka bizila-

gunek: manifestazioa egin zuten Aretatik Laudioko Herriko plazara, eta mozioa ere aurkeztu zuten udaletxean. Handik oso gutxira jaso zuten emaitza: Hezkuntza Sailak atzera egin zuen eta bi urteko gela irekita mantenduko zuela iragarri zuen, momentuz.



ETAk eraildako Jose Luis Vicente Canton eta Ciriaco Sanz Garcia laudioarrak omendu ditu Udalak

Terrorismoaren biktimen omentzeko ekitaldia egin zuen Laudioko Udalak iragan martxoaren 10ean, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna izan zela probestuta. Plaka bat inauguratu zuten horretarako, ETAk eraildako Jose Luis Vicente Canton eta Ciriaco Sanz Garcia laudioarren izenekin. Herritar eta senide ugarik hartu zuten parte ekitaldian.



Ateak itxi ditu Arrugaeta jatetxeak, 70 urteren ostean

Martxoan jaitsi zuen pertsiana Orozkoko Arrugaeta jatetxeak, 70 urteko historiaren ostean. 1950. urtean ireki zuten establezimendua, eta bi belaunaldiz kudeatu du familia berak, baina ez dute lekukoa hartzeko prest dauden inor topatu.



12.379 kilometro egin dituzte euskararen alde herritarrek, Laudio Ikastolaren ekimenez

2021ean eginiko ekimenaren bigarren edizioa burutu zuen Laudio Ikastolak martxoan. *12.742 kilometro baietz!* lelopean, Zumalakarregi etorbidea puntarik punta lotzeko erronka luzatu zieten herritarrei, eta oihartzun zabala izan zuen ekimenak. "363 kilometro baino ez dira falta izan zen-baki borobila erdiesteko: eta hori sekulako lorpena da", nabarmendu zuten antolatzaileek.

MARTXOA



Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartu da Arrankudiaga-Zollo

Martxoan sartu zen Arrankudiaga-Zollo Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA). Nazio ekitaldia egin zuten Azpeitian, mankomunitateak ehun udalerrien langa gainditu duela ospatzeko. Baina, horrez gain, UEMA Eguna ere antolatu zuten Arrankudiagan bertan.



Kulturarentzako espazio berri eta emankorra Laudion

Kultur espazio berria ireki zuen apirilean Laudioko Kulturzaleak elkarteak Elizalde kalean. Garaio burdindegia zegoen lokala alokairuan hartu du kultur eragileak, "sorkuntzarako eta topaketarako" gunea atontzeko. Orditik hona

ekimen sorta oparoa garatu dute bertan. Horrez gain, mural bat jarri dute hilero Zumalakarregi etorbidean eta Zubiko Kurajo kalean atondutako espazioetan, eskualdeko sortzaileekin elkar-lanean.

APIRILA



AP68ko langileek mobilizazio kanpaina abiatu dute hitzarmen kolektiboaren negoziaketan "blokeoa" salatzeko

AP68 autobidearen Bizkaiko eta Arabako eremuan lan egiten duten bidesarietako eta mantentze-lanetako langileek mobilizazio kanpaina abiatu zuten apirilaren 21ean, Abertis enpresarekin hitzarmen kolektibo bakarra lortzeko duela urtebete baino gehiago abiatu zituzten negoziazioak "blokeatuta" daudela salatzeko.

●
APIRILA



Olabezarro bizilagunek ezezkoa eman diote plaka fotovoltaikoak herriko lursail publiko batean jarri nahi zituen proiektuari

Olabezarroko lursail publiko batean jarri nahi dituzte eguzki-plakak Energiaren Euskal Erakundeak eta Krean enpresak, Ekian egitasmoaren baitan. Proiektuak kezka sorrarazi zuen herrian, bertako ganadutegien etorkizuna baldintzatu dezakeelako. Herritarrek apirilaren 3an bozkatu zuten proiektua, eta aurkako jarrera nagusitu zen. Ikusteke dago orain Energiaren Euskal Erakundeak eta Krean enpresak zer erabaki hartzen duten.



Natura erdigunean duen jolastoki berria aurkeztu dute Urduñako Herri Eskolan

Apirilean aurkeztu zuten Urduñako Herri Eskolako jolastoki berria. Bi urteko metamorfosiaren ostean, espazioa birnaturalizatu, asfaltozko eremua murriztu eta pedagogia berri bati zabaldu dizkiote ateak.



Ibarrako egoitzaren itxieraren aurka, itxialdia

Urte bizia izan da 2023a Madres Mercedariaseko langileentzat. Otsailean jakinarazi zieten Ibarrako zentroa itxiera arriskuan zegoela, eta hainba ekimen jarri zituzten martxan horren aurka borrokatzeko. Egitasmo deigarrienetako bat apirilean Laudioko San Pedro elizan eginiko itxialdia izan zen. Urte amaieran jakinarazi diete langileei zentroak irekita jarraituko duela.

●
APIRILA



“Kaleratze arbitrarioak” egiten ari dira Destilerías M. Acha enpresan, LABen arabera

Amurrioko Destilerías M. Acha enpresan azken hilabeteetan egondako “kaleratze arbitrarioak” salatu zituen LABek apirilean. Sindikatuaren arabera, hiru langile kaleratu zituzten 2022aren amaieratik aurrera, “lanpostu horiek oso epe laburrean amortizatuz”.

●
APIRILA



Ehunka lagun bildu ditu Aiaraldeko hezkuntza publikoaren aldeko mobilizazioak

Ehunka lagun bildu zituzten Aiaraldeko hezkuntza publikoko komunitateak Laudion eginiko mobilizazioak. Zabalekon, Aretako Eskolan edota Lamuza Ikastetxean aurrematrikulazioekin egondako gorabeherak salatu zituzten, eta baita Mendiko Eskolako sukaldeko langileen egoera ere.



Ehunka lagun batu dituzte Aiara eta San Joseko jaiek

Aiarako eta Amurrioko San Jose auzoko jaiek eman zieten hasiera udaberriko jaien maratoiarri. Ehunka lagun bildu ziren bi hitzorduetan apirilko azken asteburuan. Aiaran Iker Larrazabal pilotaria arduratu zen jaien hasierako suzeria pizteaz.

Chris Gomez

●
APIRILA



Jendetza Aiaraldeko errepideetan, Euskal Herriko Itzulia ikusteko

Markuartu, Lendoño, Mendeika eta Santa Koloma izan ziren Euskal Herriko Itzulia ikusteko aukeratutako tokiak Aiaraldeko zaleen artean. Eguerdian adin anitzeko jarraitzaileek hartu zituzten errepide ertzak animoak, kirolariari animoak emateko.



Ehunka lagun bildu ditu Aresketa eta Laudio Ikastolek Araba Euskaraz en alde eginitako martxak

Mendi martxa egin zuten apirilean Aresketa eta Laudio Ikastolako kideek Araba Euskaraz ekimenaren alde. Berrehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte ekimenean.



Otxomaio jaiek jende ugari erakarri dute

Eskola Publikoko lehenengo guraso elkarteko ordezkariak irakurri zuten aurtengo Otxomaio jaietako pregoia, eta Loraldia Elkarteko kideak arduratu ziren jaien lehen suziria pizteaz.

Aiaraldeko Mugimendu Feministak elkarretaratzea deitu zuen jaien erdian, jaietako lehen asteburuan jatzotako sexu-erasoak salatzen.



Tubos Reunidos enpresako langileek onartu dute lan hitzarmenaren azken eskaintza

Maiatzean bozkatu zuten Tubos Reunidos enpresako beharginek zuzendaritzak eta UGT, CCOO eta LAB sindikatuek adostutako lan hitzarmen aurrekordia. Beharginen gehiengoak lerratu zen proposamenaren alde, baina prozesua oso gorabeheratsua izan zen ordura arte: urtarrian aurkeztutako proposamenari ezezkoa eman zioten langileek, eta ELA eta ESK sindikatuak ez zeuden ados hitzarmenarekin.



Laudiotik abiatu da Saharako elkartasun karabana, hirugarren aldiz

Berrogei tona elikagai atera ziren Laudiotik maiatzean, Tinduferra (Argelia) heltzeko asmoz. Euskal Autonomia Erkidegoan jasotako ekarpena Aiaraldetik irten zen berriro, hirugarren aldiz.





Demi Volleringe garaile Amurrion amaitutako Euskal Itzulia Womeneko etapan

Esprintean erabaki zen Euskal Itzulia Women lasterketako Aiaraldeko etapa, Amurrion. Eskualdeko zenbait udalerrri zeharkatu zituen ibilbideak, Laudio eta Aiara, esaterako.

MAIATZA



Latorro ikastetxearen 50 urteko ibilbidea ospatu dute

Mende erdia bete du aurten Latorro ikastetxeak, eta maiatzean egin zuten ospakizun nagusia. Halaber, argazki erakusketa antolatu zuen irakasle-ohi talde batek Laudioko Kultur Etxean, auzoko eskolaren historia luzea herrira zabaltzeko asmoz.



Ehundik gora gazte bildu ditu Laudioko Esports Egunak

Egun osoko topaketa antolatu zuen maiatzaren 6an Bilboko Bisons Eclub taldeak Granja kiroldegian, Laudioko Udalarekin elkarlanean. Uxue Tome audioarrak eskaini zuen eguneko azken hitzaldia, kirol elektronikoaren aterabide profesionali buruz.



Nerbioi ibaiaren sakontasuna handitzeko obra abian

Laudion aurten egin den obra deigarriena izan da URA agentziak urte hasieran Nerbioi ibaian abiatutakoa. Ibaiaren sakonera handitzea da lanen xedea, uholdeak egoteko arriskua murrizteko. Eskualde Garaipeneko Europako Funtsen 4,7 milioi euro bideratu dituzte proiektura. Eguzki talde ekologistak lanak egiteko modua kritikatu du, "ingurumenean eragin daitzekoen kalteak" kontuan hartzen ari ez direlako.



Jose Mari Ramon Castillo da Laudioko San Roke Kofradiako maiordomo berria

San Roke Kofradiako maiordomo berria izendatu zuten Jose Mari Ramon Castillo maiatzean. Jose Luis Navaroren lekukoa hartu du erakudeko zuzendaritzan.

MAIATZA



48 orduko rock maratoiak girotu du Orozko

Rockaren eskualdeko hiriburua bihurtu zen Orozko maiatzean beste behin ere, Orozko Rock jaialdiaren eskutik. Ostiral eta larunbat gaueko kontzertuek ehunka lagun erakarri zituzten, Su Ta Gar plater indartsuena izanik. Baina bestelako jarduerak ere antolatu zituzten antolatzaileek, giroa herri osora zabaltzeko asmoz. Musikari buruzko mahaingurua, herri bazkaria edota kale kontzertuak egin zituzten horretarako.



Konpromiso berriak eskatu dizkie Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak alkategaiei

Oso aktibo egon ziren Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko Kideak udal eta foru hauteskundeetan kanpainan. Alde batetik, nota jarri zieten alkategaiei, euskararen ezagutzaren arabera. Bestetik, duela lau urte alkateek sinatutako konpromisoen betetze mailaren azterketa egin zuten, eta konpromiso berriak eskatu zituzten alkategai berriei. EH Bildu, Orain Amurrio, Elkarrekin Podemos, Okondo Aurrera eta Aiara Batuzeko hautetsiek bat egin zuten ekimenarekin.



Aiala Vidrio greban, inbertsioak eta segurtasuna aldarri

32 orduko bi lanuzte egin zituzten Aiala Vidrioko langileek maiatzean eta ekainean. Modu horretan, bi aldarri nagusi helarazi nahi izan zituzten langileek zuzendaritzari: segurtasun baldintzak hobetzea eta lantegian inbertsioak egitea.

APIRILA



Eskubaloit talde berriak Amurrio eta Arrankudiaga-Zollon

Laudioko mugak gainditu eta Amurrio zein Arrankudiaga-Zollora egin du salto eskubaloiak aurtan, talde berriak sortuta. Amurrioren jardunaldiak egin zituzten ekainean kirol hori sustatzeko.

EKAINA



Eraberritu da Aiaraldeko mapa politikoa

EAJ bost udalerritan gailendu zen eta EH Bildu hirutan. Arakaldon, aldiz, Arakaldoko Taldearen hautagaitzak irabazi zuen. Hala ere, ekainean eginiko udalbatzen osaketek ere eman zuten zeresana, sopresak egon baitziren.

MAIATZA



Aginte makilak jaso dituzte Aiaraldeko bederatzik alkateek

Ekainaren 17an aldatu zituzten eskuz Aiaraldeko Udaletako aginte makilak. Maiatzaren 28ko hauteskundeetatik ateratako udalbatzak osatu eta alkateak hautatu zituzten udalerriz udalerriz, legealdi berriari hasiera emanez. Laudio eta Aiaran egon ziren sopresak. Laudion azken astera arte ez zen jakin Omniak EH Bilduren alde egingo zuela. Aiaran, aldiz, udalbatzan bertan jazo zen ezustekoa, Aiara Batuzek EH Bilduko Pruden Otegi alkate egin zuenean.

EKAINA



Athleticzaleen hiriburua bilakatu da Artziniega egun batez

Kamiseta txuri-gorritz bete zen Artziniega ekainaren 10ean, herrira bertaratutako ehunka athleticzaleen eskutik, Peñista Egunaren VII. edizioa ospatzeko.

EKAINA



Futbolean euskara sustatzeko konpromiso zehatzak eskatu dizkiete taldeei

Udal eta foru hauteskundeak pasata, beste esparru batean jarri zuen begirada Aiaraldeko Euskalgin-tza Kontseiluak: kirolean, eta, zehazki, futbolean. Horretarako, *Jokoz kanpo?* kanpaina abiatu zuen eragileak. Eskualdeko futbol taldeak eta klubak interpelatu zituzten, euskararen normalizazioan eragiteko eskaera zehatzak eginda. Dozenaka kirolari, ikastetxe, guraso elkarte eta eragilek egin zuten bat kontseiluak plazaratutako manifestuarekin.



Ekaitzak ez du Aiaraldeko harrotasunaren jai gelditu

Amurrio Harro eta Audio Harro egunak antolatu zituzten ekainean bi herri horietan, LGTBQ+ komunitatea bistaratu eta aldarrikatzeko helburuarekin. Ekimenaren bigarren edizioa izan zen Amurriokoa, eta iazko arrakastari eutsi egin zion. Laudion, aldiz, lehen aldiz antolatu zuten ekimena, eta Zubiko Malekoia izan zen harrotasunaren epizentroa. Yogurinha Borovak egin zituen pregoilari lanak.

EKAINA

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEEN ZURRUNBILOA IGAROTA, BESTELAKO GAI BATZUK IGARO ZIREN LEHEN PLANORA ESKUALDEKO EGUNEROKOAN.

EKAINA



Amaitu dira Tubacexeko grebagatik auziperatutako herritarren aurkako epaiketak

Ekainean egin zen epaiketak salatzeko agerraldi nagusia, eta hurrengo hilabeteetan izan ziren falta ziren epaiketak. Zazpi pertsona igaro dira guztira epailearen aurretik. Horietako hiru absolbitu dituzte, beste bik seina hilabeteko kartzela zigorra jaso dute, beste batek lau hilabeteko zigorra onartu du eta azkenak urtebetekoa. Auziperatutako bat bera ere ez da kartzelan sartuko.



Abian dago Orduener, energia komunitateak sortzeko egitasmoa

Ekainean aurkeztu zuten jasangarritasuna sustatzeko Orduener elkarte. Urduñako Udalak bultzatu du proiektua, helburu nagusi batekin: Urduña zein Arrastarian komunitate energetikoak sortzea eta, modu horretan, herritarren bizi kalitatea hobetzea, egoera zaurgarrian daudenena batez ere.



Kasinoa beteta Victor Urquijoren omenaldian

Omenaldi jendetsua egin zioten ekainaren amaieran Victor Urquijori, Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan. CD Villosa eta SD Lodioko kirolaria 1960ko hamarkadan iritsi zen bere ibilbidearen gailurrera, Athletic Clubekin hiru denboraldi igarota Lehen Mailan. Hala azaldu zuten Kasinoan eskaintako solasaldian, eta kirolari ohia- ren beste hainbat lorpen eta bertute ere goraiatu zituzten. Argazkian, Víctor Urquijo, publikoaren artean.



Autoglas-Glavistako langileak borrokan berriz ere

Udaberri amaieran bazirudien Autoglas-Glavistako aferak soluzioa izango zuela, balizko erosle bat zegoelako. Baina uztailean dena okertu zen berriz, Guardianek fabrikaren lursailak saltzeko jarritako oztopoengatik. Gauzak hala, mobilizatzeari ekin zioten berriz beharginek eta Guardianekoak ere batu ziren dinamikara, egun osoko greba eginez.

UZTAILA



Enplegua erregulatzeko aldi baterako espedientea Tubos Reunidosen

Uztailaren hasieran jakinarazi zuen Tubos Reunidoseko zuzendaritzak enplegua erregulatzeko aldi baterako espedientea abiatu nahi zuela. Ekoizpen eta antolakuntza arrazoiak argudiatu zituen enpresak eta neurriak 848 langilerengan izan du eragina.

UZTAILA



Urmuga ekimenak Aiaraldeko mendiak zeharkatu ditu berriz ere

Azken edizioetan bezala, Aiaraldea izan zuen abiapuntu Euskal Herria alderik alde lotuko duen Urmuga ekimenak. Anguloko portutik abiatu ziren eta bi doako kontzertu eskaini zituzten eskualdeko mendietan, Fraileburun eta Garrastatxun.

Argazkiak: Javi Aspuru eta Mikel Bereziartua

UZTAILA



Herri txikietako jaiak ezaugarritu dituzte uztaileko asteburuak

Arakaldon, Luiaondon, Zuhatzan, Aretan, Ugarten... herri eta auzo txiki askotan ospatu ziren jaiak uztailean zehar, pandemia garaiko azken murrizketa eta


beldurrak erabat atzean utzita. Argazkiak: Arakaldoko Jai Batzordea, Zuhatzako Jai Batzordea, Txema Sallen eta Aiaraldea.eus



Eraso matxista eta arrazista bat salatu dute Luiaondoko Jaietan

Eraso matxista eta arrazista bat salatu zuten Luiaondoko Jaietan. Otsemeak Neska* Gazte Taldeak abian jarritako Entzun Gaitzate! salaketa tresnaren bidez egin zuten publiko erasoa, eta Luiaondoko Batzar Administrazioak ere gaitzetsi du gertatutakoa.

UZTAILA



Euskara teknikari lanpostua dela eta eztabaida Amurrioko Udalean

Amurrioko Udalak euskara teknikari lanpostua ezabatu zuela salatu zuten Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak uztailean, eta kexa bana erregistratu zituen Euskal Herriko Hizkuntza Eskubideek Behatokia eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Eskubideak bermatzeko Zerbitzuan. Udalarekin bildu zen gero eta tokiko erakundeak konpromiso bat hartu zuen orduan: euskara arloan jardunaldi osoko langilea izatera igarotzea, "hilabeteko epean". Hori lortuta Kontseiluak bertan behera utzi zituen teknikariaren lanpostuaren ezabatzea salatzeko aurreikusita zituen ekimenak, "behin-behinean".

JAIK IA ERABATEKO PROTAGONISMOA HARTU DUTE UDAN, BAINA BESTELAKO ALBISTE ESANGURATSU UGARI ERE JAZO DIRA ESQUALDEAN UZTAILA ETA ABUZTUAN.



Urduñako espetxe frankistan hildako bost pertsonen gorpuzkiak, euren senideen eskuetan

Urduñako presodengi frankistan hildako 71 pertsonen arrastoak aurkitu dira orain arte hilerrian eginiko bi indusketetan (hamalau gorpu 2014an eginiko indusketan topatu zituzten, eta beste 57 izako abenduan eginikoan). Horietako bost DNA proben bidez identifikatu eta euren senideen eskuetan utzi zituzten uztailean Duintasunaren Kolumbarioan eginiko ekitaldian.

UZTAILA



Abiadura murrizteko elementuak jarriko ditu Foru Aldundiak Baranbion

Abuztuan jakinarazi zuten Arabako Foru Aldundiak abiadura murrizteko elementuak jarriko zituela Baranbion. Hain zuzen ere, Baranbioko bizilagunek hainbat mobilizazio egin zituzten 2020an eta 2021ean erakunde publikoei herria zeharkatzen duen errepidearen segurtasuna bermatzea exijitzeko. Bi aldarrikapen nagusi atera zituzten kalera: kamioien trafikoa autopistatik desbideratzea eta herritarren segurtasuna bermatuko lukeen espaloia eraikitzea. Argazkian, duela bi urte eginiko mobilizazioa.

ABUZTUA



Jaietako eraso matxistei "autodefentsa feministaz" erantzuteko deia luzatu dute

Dozenaka lagun bildu ziren Laudioko Mugimendu Feministak eta Ugarteko Jai Batzordeak herriko plazan eginiko elkarretaratzean. Ugarteko jaietan jazotako eraso matxistak salatzea izan zen mobilizazioaren xedea. Bi eragileek "babesa" helarazi zieten erasoak pairatu zituzten emakumeei eta narmendu zuten ez zela "erantzunik gabeko erasorik" egongo.



Babioko herrixka harresituaren sekretuak azaleratzen, beste urte batez

Indusketa kanpaina berria egin zuten udan Aranzadi zientzia elkarteko kideek Babioko herrixka harresituko sekretuak azaleratzen jarraitzeko. Orain arte lortutako informazioak iradokitzen du herri harresitua Kristo Aurreko VIII. mendetik V. mendera luzatu zela. Han bizi zen komunitateak nekazaritza eta abeltzaintza erabiltzen zituen bizirauteko eta defentsa sistema sofistikatuak zuen beste komunitateen mehatxuei aurre egiteko. *Argazkiak: Josu Zaldibar*

ABUZTUA



Jaiak nagusi Amurrio, Laudio, Okondo eta Arrankudiaga-Zollon

Amurrio, Laudio, Okondo eta Arrankudiaga-Zolloko jaiak (eta eskualdeko beste auzo eta herri txiki batzuetakoek) jende andana atera zuten kalera. Baina dena ez zen ospatzeko modukoa izan. Amurrio eta Laudio mugimendu feministek elkarretaratzek egin zituzten jaietan hainbat eraso matxista jazo zirela salatzen.





Txondor Gaztetxearen terrazak su hartu du eta eraikinaren zenbait zati kiskali dira

Sua piztu zen abenduaren 20ko gauean Arrankudiaga eta Zolloko Txondor Gaztetxekeo terrazan. Gune autogestio-natuko zenbait zati erabat kiskali ziren, baina ez zen kalte pertsonalik egon.

ABUZTUA



Giro ederrean igaro da San Roke Karting lasterketaren lehen edizioa

San Roke Karting lasterketaren lehen edizioarekin girotu zuten Laudion abuztuko jaietako bi zatien arteko tartea. Ehunka lagun bildu ziren auzoko zelaietan eta bertan igaro zuten arratsaldea, auzoa zeharkatzen zuen zirkuituari so. Gidari ugari aritu ziren aldapa eta kurbak ahal bezain ongi gainditzen. Kolpeak egon ziren, baina aparteko istripurik gabe. Antolatzaileak pozik azaldu ziren ekimenak izandako harrerarekin, eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela adierazi zuten.

IKASTURTE HASIERA BIZIA IZAN DA IRAILEKOA. ESKOLA GARRAIOAREKIN SORTUTAKO GATAZKAK MARKATU ZITUEN LEHEN KLASE EGUNAK, BESTE GAUZA BATZUEN ARTEAN.



Eskola garraio faltagatik protestan

Ikasturte hasiera gogorra izan zen eskualdeko hainbat ikastetxe publikotan, klasera joateko autobus garraiorik gabe geratu baitziren ehunka ikasle, Eusko Jaurlaritzak autobus enprekin izandako desadostasunak medio. Orozkoko Eskolan, Mendiko Eskolan edota Laudio Institutuan nabaritu zuten eragina, baina zentrorik kaltetuena Etxaurre Ikastola izan zen. Ikastetxe horretako kideek hainbat protesta ekimen egin zituzten egoera bideratu zen arte.



Udako jaien azken txanpa ikasturte hasierarekin solapatu da

Irailean eman zitzaion amaiera udako jai maratolari. Orozko, Artziniega, Latorro, Etxaurren, Urduñako Koroatze... makina bat ospakizunez beteta egon zen ikasturte hasiera. Argazkiak: Txemari Ortiz de Luna, La Antiguako Jai Batzordea, Antonio Muñoz, Aitziber Alava, Gentza Alamillo eta Rosa Saez



Enpresarekin akordioa lortu ostean, Euskalteleko dendetako langileek ez dute grebarik egingo

Gasteiz eta Laudioko telefonía dendek hiru eguneko greba deitu zuten irailean, baina bertan behera utzi zuten gero deialdia, akordioa lortu eta lan hitzarmen berria sinatu ostean.

IRAILA



Atzerapen eta arazoak ugaritu dira tren zerbitzuan

Azken urteetako joerari jarraiki, aurten oso ohikoa bilakatu da eskualdean tren zerbitzuak bertan behera geratzea edo atzerapen handiekin funtzionatzea. Bizkaiko Renfeko enpresa batzordeak salatu du udan horrelako 6.230 kasu jazo zirela Bilboko aldiriko zerbitzuan. Sindikatuek azpimarratu dute urterik urte egoerak okerrera egiten duela "erakundeen konpromiso faltagatik, utzikeriagatik eta inbertsio gabeziagatik".



Lehen hazia erein dute Aiaraldeko trans erresistentzia kutxa sortzera bidean

Ehundik gora lagun bertaratu ziren irailean 23an Laudioko Orbeo Etxean eginiko Txao Titis, Titi gabe bada paradisu jaialdira. Ekimenaren helburu nagusia mastektomia egin nahi duen Laudioko pertsona trans bati ebakuntza hori egiteko dirua biltzen laguntzea izan zen eta erresistentzia kutxa bat sortu zuten horretarako.



Encina Castresana hautatu dute Aiarako Kuadrillako lehendakari bigarren aldiz

Udalbatzak osatuta, eta ohitura zaharrei jarraituz, Saraubeko zelaietan elkartu ziren irailean Aiarako Kuadrillako ordezkariak. Bertan, bigarren aldiz izendatu zuten Encina Castresana jeltzalea kuadrillako lehendakari. EH Bilduko Nekane Martinezek, aldiz, lehendakariorde ardurak hartu zituen.

IRAILA



Lamuza Eskolan umeeek jasotzen duten catering zerbitzuko janaria “ezin dela jan” salatu dute

Lamuza Eskolako Guraso Elkarrean eskutitza bidali zion ikasturte hasieran Hezkuntza Saileko Sailburu Jokin Bildarratzi jakinarazteko ikastetxeke umeak kexu zirela janariaren kalitate eskasagatik. Geroago aditzera eman zuten, Serunion da cateringa zerbitzatzen zuen enpresa, eta meuetan zizare larbak izateagatik ikertua izan da Errioxan.

IRAILA



Galder Barbado eta Aitor Zelaiaeren atxilotetarekin amaitu da lau urteko prozesua

Irailaren 30ean atxilotu eta espetxeratu zituzten Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteak. Bi gazteak Gasteizko Gobernu Militarren balkoira igo ziren, eta bertan atzeman zituzten Ertzaintzak, ehunka herritarren txalo eta animo oihuen artean. Zaballako kartzelara eraman zituzten jarraian, Auzitegi Nazionalak ezarritako lau urteko espetxealdia betetzeko. *Argazkia: Aritz Loiola / Foku*



Autoglas-Glavistaren etorkizunaren alde, itxialdia lantegi barruan

Enplegua Erregulatzeko Espedientean sartu zirela ikusita, itxialdia egin zuten Autoglas-Glavistako langileek urriaren fabrikaren barruan. Ekimenak oihartzun zabala izan zuen, eta dozenaka herritar bertaratu ziren lantegiaren atarira barruan zeuden beharginei elkartasuna adierazteko. Bi egun iraun zuen itxialdiak, eta mobilizazio jendetsua eginez eman zioten amaiera.

URRIA



Karate Liga Nazionala hartu du Laudiok

Urrian jokatu zen Espainiako Karate Liga Nazionala Laudion. Espainiako Estatu osoko mila kirolari baino gehiago igaro ziren Granja kiroldegian atondutako tatamietatik.

URRIA



Buru osasunerako zerbitzuetarako sarbidea bermatzea aldarrikatu du Asasamek

Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan, administrazio publikoek duten arduraren jarri zuen fokua Asasam elkarteak, eta Aiaraldean dagoen baliabide falta kritikatu zuen. Aiaraldeko elkarteak hainbat jarduera egin zituen nazioarteko egunaren testuinguruan, futbol partidua edota buru osasunaren aldeko martxa kasu.



Gudari fusilatuen omenaldiak jendetza batu du Arrankudiagako hilerrian

Ehun lagun baino gehiago batu ziren urrian Arrankudiaga-Zolloko Urbarri auzuneko hilerrian Ramon Azkue Gorostizaga, Angel Egaña Mendibil eta Gregorio Urkixu Alberdi eusko gudari fusilatuen gogoratu eta goraiatzeko.



Kexaako monumentu multzoa ikusgai berriz

Arabako Foru Aldundiak 2022. urtearen amaieran erosi zion Kexaako monumentu multzoa ordu-ra arte eraikinaren jabea zen Dominiken Kongregazioari, 3,4 milioi euroren truke. Azpiegitura itxita egon da azken urteetan, baina udazkenean ireki zituen berriro ateak.

URRIA



Palestinaren kontrako sarraskia salatzeke kalera atera dira eskualdeko herritarrek

Dozenaka mobilizazio eta ekimen egin dira Euskal Herrian, Israel Palestinaren aurka egiten ari den sarraskia salatzeke. Audioko Gaztetxeko kideek antolatu zuten lehen mobilizazioa. Handik aste batzuetara Gernika-Palestina ekimenak dozenaka bizilagun elkartu zituen Aiaraldeko plazetan. Horrez gain, Laudion herritarren bilera irekia antolatu zuten abenduan, eta giza katea antolatu zuten abenduaren 23rako.



Indarkeria matxistaren aurkako aldarritz bete dituzte Aiaraldeko kale eta plazak

Eskualdeko udalerrri gehienetan egin ziren elkarretaratze eta mobilizazioak azaroaren 25ean, indarkeria matxistik gabeke bizitzak aldarrikatzeko.



Teo Zelenyi gaztea gogoan

Bat-batean zendu zen Teo Zelenyi 11 urteko gazte artziniagarra, herriko Gau Beltzaren ospakizunetan murgilduta zegoela. Udalak hiru dolu egun deitu zituen, eta elkarretaratze isil eta jendetsua egin zuten frontoian, gaztearen memoria omentzeko.



Jendetza elkartu zen Urduñako futbolaren mendeari buruzko erakusketaren inaugurazioan

Mende bat igaro da Urduñako futbol taldea (bere garaiko Club Deportivo Orduñes) Bizkaiko Federazioan funtzionatzen hasi zenetik. Hori dela eta, hiriko futbolari buruzko erakusketak inauguratu zuten azaroan Orduña Hiria Museoan.

AZAROA



Burubio Kulturguneko kontzertuak eten dituzte

Azaroaren amaieran eten behar izan zioten Burubio Kulturgunean emanaldiak eskaintzeari. "Txosten tekniko batek adierazten du lokalak bigarren irteera bat behar duela, larrialdietarako, eta hori konpontzeko bidea topatu behar dugu", azaldu zuten elkarteko kideek, baina nabarmendu zuten "kasualitatez" jaso zutela emanaldiak eteteko jakinarazteko Udalaren partetik. Gauzak hala, "atsekabetuta" daude tokiko erakundeak erabilitako komunikazio moduengatik.



Giro hotza egun osoko egitarauarekin berotu dute Euskararen Egunean

Artziniegan ospatu zen aurten Aiaraldeko Euskararen Eguna. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak egun osoko egitaraua prestatu zuen herrian abenduaren 3an, eta eskualdeko dozenaka lagun bertaratu ziren jaia eta aldarrikapenak uztartzeko.



Euskara "hizkuntza zaila" dela argudiatu zuen epaia berretsi dute

EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman dio euskara "zaila" dela argudiatu zuen epaileari, Audioko Udaleko teknikari bati bere lanpostua itzultzeko. Abenduan iritsi da auzitegi gorenaren ebazpena, eta mobilizazioa deitu dute euskalgintzako eragileek Laudion bertan, erabakia arbuizatzeko. Argazkian, iaz eginiko elkarretartzeko argazki bat (aldizkari hau inprentan zegoen jada abenduko elkarretartzea egin zenerako).

ABENDUA

mugagabe  trailaudio



Kirol berriak praktikatzeko espazioak

Relief.es
climbing walls

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO



Garai batean futbol zelaiak, bolatokiak eta frontoiak ziren Aiaraldean kirola praktikatzeko zeuden azpiegitura bakarrak. Baina garai horiek aspaldi geratu ziren atzean, gaur egun beste hainbat azpiegituraz gozatu ahal

baita eskualdean. Ildo horretan, urte oparoa izan da aurtengoa, hainbat espazio berri ireki direlako, kirolzale berrien harrobi izan daitezten. Iru-dian, Laudioko rokodromoan eginiko eskalada txapelketa.

Azpiegitura berriak

kirol berriez gozatzeko

AIARALDEKO KIROLARIAK ORTZIMUGA BERRIETARA IRITSI DIRA AURTEN ESKUALDEAN ABIAN JARRI DIREN KIROL AZPIEGITUREI ESKER. KIROL BERRIAK JARRI DIRA BOLADAN, ETA GUZTIEN ARTEAN PADELA DA JAUN ETA JABE.



Bogan dago padela, eta horren erakusle dira han-hemenka geroz eta ugariagoak diren padela praktikatzeko azpiegiturak.

Testua: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus, Andima Errazti eta Txarlazo Eskalada Taldea**

Azken urtean kirol batek sortu badu interesa, hori padela izan da. Bogan dago kirola eskualdeko herritarren artean. Horren erakusle da han-hemenka gero eta ugariagoak diren padela praktikatzeko azpiegiturak.

Azkena Amurriok inauguratu du. Matiaseko frontoia zegoen tokian, Etxegoien kalean, Udalak hiru padel-pistaz osaturiko kirol-konplexu berria atondu du. Abenduaren 11n jarri zituzten martxan ofizialki, baina aurretik ate irekien jardunaldia egin zuten, kuriosoena animatzeko asmoarekin. Egunerok 9:00etatik 22:00etara egongo dira erabilgarri.

Bazkideek hogeituro ordaindu beharko dute jokaturako laurogeita hamar minutuko; bazkideak ez diren pertsonak, aldiz, hogeita bost.

Amurriokoak ez dira aurtin inauguratu diren padel pista bakarrak. Laudion, honezkero arrakasta handiarekin martxan zeuden udal azpiegiturari, ekimen pribatuko bi padel-pista berri gehitu zaizkio azken hilabeteetan: Set Padel Laudio. Guztiz automatizatutako azpiegitura da padela praktikatzeko kantxa berria, eta padel ikastaroak eskaintzeari ere ekin diote. Laudioko udal azpiegiturak ere berri-

kuntzak izan dituzte 2023an. Urte hasierarekin batera kantxak erre-serbatzeko sistema gotik behera aldatu zuten, kirolarien afluentziari hobeto erantzuteko. Otsailera arte modu presentzian edo telefonoz deituta erreserbatu behar ziren pistak. Laudioko Udalaren hitzetan, astelehenero, Gardeako kirolgunearen irekiera orduan, pilotzen ziren eskaera eta jendetzari irteera ematea izan da ekimenaren xedea. Geroztik Udalaren webgurutik egin behar da eskaera.

2024an ere padel gehiago

Padelaren loraldiak aurrera jarraituko du datorren urtean ere. Ai-

raldeko zenbait Udalek aurreikusia dute padel kantxak eraikitzea, etenik gabe haziz doan zaletasunari bide emateko. Aiaran, esaterako, 900 metro karratuko lursaila lagatu dio Udalak Luiaondoko Administrazio Batzarrari padel pista eraikitzeko. Patxika Etxearen eta anbulatorioaren artean egongo da kokatuta azpiegitura berria eta Administrazio Batzarrak berak garatu eta ezaugarrituta.

Skate pistak

Padelak protagonismoa kendu dio duela urtebete arreta guztia erakartzen zuten skate pistei. Hauekiko zaletasunak, ordea, boladan jarraitzen du, eta badira inauguratuz edota hobetuz doazen azpiegitu-

rak. Artziniaga da horren adibide. Denbora luzearen ostean, irailean estreinatu zuten skate pista berria. Azpiegituraren arrakasta erabatekoa izan da, horrela aitortu dio Joseba Vivanco alkateak Aiaraldea Komunikabideari: "Herriko haur guztiak elkartzen dira bertan, jendetza ibiltzen da beti".

Skate parkeen alorrean Amurriok izan da azken urtean erreferente. Iaz inauguratutako bowl berriak patinatzaileak erakartzen jarraitzen du, eta honezkero mahaigainean dago azpiegitura handitzeko proiektua.

Hori gutxi balitz bowla erreferente bilakatu da Bañueta inguruan, eta

Azkenean padel azpiegitura Amurriok inauguratu dute. Matiaseko frontoia zegoen tokian hiru padel-pistaz osaturiko kirol-konplexu berria atondu du Udalak.



Amurrioko bowla erreferente bilakatu da Bañueta inguruan, eta auzoko jaietako programazioaren barruan ere lekutxoia egitea lortu du.

auzoko jaietako programazioaren barruan ere lekutxoia egitea lortu zuen.

Haitzetan Gora

Bogan dagoen beste kirol bat eskalada da, eta hor termometroa Laudioko rokodromoak jartzen du. Zailtasun ugariaren ostean martxoan zabaldu zituen ateak rokodromoak, Haitzetan Gora Mendi Talde sortu berriaren lanari esker. Urtebete baino gutxiagoan Laudioko eta eskualdeko eskalatzaileen erreferente bilakatu da espazioa.

Bi hormek osatzen dute azpiegitura: 11 metro luze eta 4,20 metroko altuera duen horma bat eta 16 metro luze eta ia 9 metroko altuera duen beste bat. Hilabete gutxitan,

Urtebete baino gutxiagoan Laudioko eta eskualdeko eskalatzaileen erreferente bilakatu da Hitzetan Gora Mendi Taldeak kudeatutako rokodromoa.

ordea, txiki geratu zaie espazioa, eta horma eta bide berriak instalatzea aurreikusten dute datorren urterako.

Azaroaren 4an, arrakasta eta lan guzti horren erakusgarri Laudioko I. eskalada txapelketa antolatu zuen Haitzetan Gora taldeak. Goizetik arratsaldera jendez lepo egon zen kirol instalazioa. Goizean haurren txapelketa antolatu zuten, sortzen ari diren eta 2024an egonkortuko duten eskalada eskolaren erakusgarri.

Baina Laudiokoa ez da aurten zabaldu den eskalada azpiegitura bakarra. Txarlazo Mendi Taldeak eskalada atala sortu du eta boulder berria eraiki dute Urduñako Lanbide Heziketako eraikinean. Ibai Aspizua da proiektuaren bultzatzaileetako bat, boulderra "Urduñako eskalatzaileen beharrei erantzuteko" helburuarekin sortu dutela azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari.

Irailaren 23an egin zuten ate irekiera jardunaldia, hilabete luze auzolanean espazioa atondu ostean. Besteak beste Zaroabe Institutuko ikasleak ere batu dituzte proiektura; izan ere, ikastetxean ekoiztu dituzte boulderraren hainbat panel eta pieza.

Behin proiektua martxan jarrita, ekintza desberdinak antolatzeari ekin diote: "Herriko eskalatzaileen elkargunea izatea nahiko genuke, baita Aiaraldeko gainerako proiektuekin harremanetan jartzea ere. Eskalada ikastaroak antolatzea ere aurreikusi dugu, herriko haurrentzako".


Txarlazo Eskalda Taldeko kideek "Urduñako eskalatzaileen beharrei erantzuteko" helburuarekin sortu dute boulderra hirian.



Mugarri ugari eta anitz

eskualdeko kirolarientzat

ADIN, PROFIL ETA KATEGORIA EZBERDINETAKO KIROLARI UGARIK EMAN DUTE ZERESANA AURTEN AIARALDEAN. BATZUK LORPEN ESANGURATSUAK LORTU DITUZTE. BESTE BATZUK, ALDIZ, AURREIKUSI GABEKO OZTOPOEI AURRE EGIN DIETE DETERMINAZIOZ.



Uxue Alonso

Uxue Alonso eskubaloijokalarilaudioarra Alacanten egon zen iragan urtarrilean Espainako Kopan parte hartzen, gazte kategorian. Izan ere, Euskadiko Selekzioak hautatu zuen hiru partida jokatzeko.

Egun Barakaldoko Zuazo Klubleko kidea bada ere, Uxue Alonsok Laudio Eskubaloij Klubean hasi zuen bere ibilbidea eta tokiko taldean zegoenean, haur kategorian, Espainiako Kopan ere parte hartu zuen 2019. urtean. Horrez gain, hainbat aldiz deitu dute kirolari laudioarra Euskadiko Selekzioarekin aritzeko azken urteetan, hainbat txapelketatan.



Arkaitz Eskuza

Arkaitz Eskuza pilotari laudioarrrak urtarrilean egin zuen jauzi profesionaletara. Eibarren jokatu zuen bere estreinako partida maila horretan, Elezkano II.aren bikotea osatuta eta garaipena lortuta Dario eta Arbizuren aurka (22-12).

Laudioarrak hemeretzi urte baino ez ditu eta, oso gaztea izan arren, Jokin Etxaniz ASPEKO zuzendari teknikoaren begiradapean entrenatu du. Eskuzak hainbat txapela eskuratu du bere ibilbidean; Ataungo Eskupilota Txapelketa uztailan, Euskal Kopa, Baque Txapelketa kadete kategorian 2019an eta Arabako Txapelketa 2020an.



RFECiclismo

Iñaki Carro

Bikain hasi zuen urtea Iñaki Carro txirrindulari laudioarrrak, Espainiako Ziklo-kros Txapelketa irabazi baitzuen, master 30 kategorian. Lehia bizian aritu zen Carro norgehiagokan, eta lasterketari buelta ematea lortu zuen podiumeko lehenengo postua erdietsi arte. Ibilbide oparoa egin du Aiaraldeko txirrindulariak azken urteetan, eta hainbatetan izan da Euskadiko ziklo-kros txapeldun ere. Amurrioko Koba Cycling taldeko Gaizka Pujana eta David Hidalgo podiumeko hirugarren postura igo ziren txapelketan, Master 40 eta Master 30A kategorietan hurrenez hurren.



Irene Morales


Hodei Muñoz

Ibilbide gorabeheratsua izan du Hodei Muñozek 2023an. Munduko Ziklo-kros Txapelketan parte hartzeko hautatu zuten urte hasieran, baina ez zuen zortea bere alde izan norgehiagokan: erorketa erraldoia gertatu zen lasterketaren hasieran eta Muñozen txirrindula tropelaren lehiakideen azpian geratu zen. Abuztuan, aldiz, hirugarren postua eskuratu zuen Espainiako Kopan, baina lehiazeari utzi behar izan zion handik gutxira, auto batek harrapatu zuelako entrenatzen zegoen bitartean. Urrian itzuli zen errepidera, eta Espainiako Ziklokros Kopa irabaztea lortu du abenduan.



Amurrioko Judo Kluba

Amurrioko Judo Klubak dominen uzta aipagarria izan du 2023an eta bi dozena garaikur baino gehiago batu ditu bere palmaresera. Bere parte hartze arrakastatsuak Euskadiko eta Arabako Txapelketetan izan dira nagusiki. Hala ere, Arabako Txapelketan kirolari seniorrek ere partaidetza oso ona izan zuten. Gainera, klubak bereziki azpimarratu du bere A eta B taldeak lehen bi sailkatuak izan zirela Arabako Taldekako Txapelketan, benjamin eta kimu kategorietan. Txapelketa entzutetsuetan lehiatu dira amurriarrak, Anaitasuna Torneoan kasu.



Laia Sagarduy Ercilla


Denboraldi oparoa egin zuen urteko lehen txanpan Laia Sagarduy Ercillak. Arabako Txapelketa izan ondoren, Euskadiko Selekzioarekin 5. eta 9. sailkatu zen Espainiako Txapelketan, ginkana eta errepide lasterketetan, hain zuzen.

Hori ez ezik, Euskadiko Txapelketan ere lehiatu zen Urretxun, mendiko diziplinan, eta baita Zumarragan ere, non errepideko eta ginkana probak egin zituzten. Hamahiru urteko txirrindulariak duela bi urte eman zuen izena Laudioar Txirrindulari Elkarteko eskolan eta garapen bikaina izan du.



Iker Larrazabal

Hamazortzi urterekin egin zuen debuta profesional kategorian Iker Larrazabal pilotari aiarrarak, Baiko enpresarekin, eta urte oparoa izan du aurten. Otsailean Binakako Txapelketa profesionalera egin zuen jauzi, Tafallako pilotalekuan jokaturako partidari. Gazte amurriarrak garaipena lortu zuen Jon Ander Albisu bikotearekin batera, Rezusta eta Etxebarriaren aurka. Apirilean, aldiz, Promozioko Binakako Txapelketa irabazi zuen, eta Arabara ekarri zuen berriro ere txapela, hogeitau urteko hutsunearen ondoren. Udan, berriz, Masters CaixaBank txapelketan neurtu zituen indarrak, eta San Fermin torneoko finalera ere iritsi zen.



Ixaso Escondrillas

Domina ugari eskuratu ditu Ixaso Escondrillasek Espainiako Atletismoko txapelketetan. Martxoan bigarren postua eskuratu zuen atleta laudioarrak 1.500 metroko kategorian, eta lehen postua, aldiz, 800 metroko modalitatean. Ekainean, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen 1.500 metroko proban eta brontzezkoa, aldiz, 800 metroko lasterketan. Erronka handia izan zen udako proba atleta laudioarrentzat, oso tenperatura altuekin egin zuelako korrika eta 13 orduko atsedena baino ez zuelako hartzerik izan lasterketa baten eta hurrengoaren artean.




Oihane Salcedo

Oihane Salcedo laudioarra buru belarri sartuta dago crossfitaren munduan, eta mugari esanguratsuak erdietsi ditu. Ekainean Manchesterera jo zuen Hyrox modalitateko munduko txapelketan lehiatzeko. Bere aurreikuspenak gainditu zituen kirolari laudioarrak: ordu bat eta hemeretzi minututan osatu zuen proba, aurreikusitakoak baino sei minutu gutxiago baliatuta. "Oso pozik nago emaitzekin: Espainiako lehenengoa naiz nire kategorian; munduko 22. eta estatuko sailkapen orokorrean 4. denborarik onena dut", nabarmendu du kirolariak.



Izaro Blanco

Urte oparoa izan zen iazkoa Izaro Blanco orozkoarrentzat, Munduko Kick Boxing Light Txapelketa irabazi baitzuen Venezuelian. Baina aurten ere ez da geldirik egon: ringaren gainean egin zuen debuta martxoan, Portugalteko Pando-Aisia Kiroldegian eginiko Apocalipsis Fight Nights borrokaldian. Ekainean, aldiz, Kick Light diziplinako Espainiako txapelketa irabazi zuen borrokalaria gazteak, Junior kategoriako 70 kilo azpikoen artean. Light Contact modalitatean, berriz, bigarren postua erdietsi zuen, eta uste du "asko hobetu" behar duela oraindik.



Jon Rivera

Brontzezko dominarekin itzuli zen Jon Rivera Espainiako Gimnasia Erritmikoko Bakarkako Txapelketatik. Santanderren egin zen norgehiagoka bi egunetan zehar. Aresketa Gimnasia Klubeko kideak laugarren postua erdietsi zuen sailkapen orokorreko lehen jardunaldian, eta finalera pasatzeko txartela lortu zuen soka eta uztaiaren kategorietan. Hurrengo egunean, aldiz, bereziki trebe aritu zen uztaiarekin, eta horrela lortu zuen gailentzea. Aresketa Klubeko kideek gogorazi dute zazpi urte igaro direla antzeko marka bat lortu zutenetik. Orduko hartan, Nerea Monasterio izan zen domina lortu zuena.



Bea Isasi

Zornotzan jokatu zen Euskadiko Bolo Txapelketa ekainaren 3an. Eskualdeko ordezkaritza zabala izan zen bertan; berriki ospatutako Arabako Bolo Txapelketako lehenengo hogeitau sailkatuak, hain zuzen ere. Bea Isasi aiarrak jantzi zuen txapela emakumezkoen kategorian. Meritu bikoitza izan zuen Isasiren garaipenak. Izan ere, Bizkaiko bolatoki modalitatean jokatu zen txapelketa, ez Aiaraldean ohituak dauden bolo aiarraren kategorian. Isasi ez zen izan Zornotzan aitortza jaso zuen aiarrak bakarrik. Hamahiru urte eskas dituen Asier Martinek arabar onenaren saria altxatu zuen gazte kategorian.



Eider eta Jon Ander Martinez de Mungia

Wamai borroka kiroleko Espainiako Txapelketa lehiatu zen ekainean Casteldefellseko Can Vinader kiroldegian eta Amurrioko ordezkaritza egon zen parte hartzaileen artean. Disziplina horretako Espainiako txapelkunak bilakatu ziren Eider eta Jon Ander Martinez de Mungia neba-arrebak. Biek lortu zuten lehen postua armarik gabeko forma musikatuaren esparruan. Horrez gain, Jon Ander hirugarren sailkatu zen semi contact diziplinan. Bi neba-arrebek urteak daramatzate Meyiro Sport klubean entrenatzen.



Peio Garaio eta Urko Ruiz

Belar hockeyko Euskal Selekzioa ordezkatu zuten uztaiaren Peio Garaio eta Urko Ruiz laudioarrek. Laudioko Ganbegi taldeko jokalariek Portugalgo selekzioaren aurka neurtu ziren lagunarteko bi partidetan, eta I. Basque International Cup txapelketa irabaztea lortu zuten.



CD Orduña

Bizkaiko 1. mailara igoera matematikoa lortu zuen CD Orduñak apirilean, denboraldia amaitu baino lehen, Arbieton jokaturako partidaren 5-0 gailenduta. Gogoratu beharra dago iaz kategoriarik igotzetik hurbil geratu zirela, promozioa jokatzerara heldu baitziren, eta aurtengo oinarriak jarri zituzten modu horretan. Hortik aurrera, oso bolada positiboa abiatu zuten, partida ia guztietan gailenduta.



Laudioko Tenis Kluba

Laudio Tenis Klubak inoiz eskuratutako emaitzarik onenak ekarri ditu abenduan Sevillan jokaturako Babolat nazioarteko txapelketatik. Jon Luja txapeldunordea izan zen hamar urte azpiko txapelketan eta Ander Urquizak, nahiz eta lehen kanporaketan galdu, oso partida ona egin zuen Yue Yu jokalaririk txinatar profesionalaren kontra.

Baina hori ez da izan Laudio klubeko kideek aurten lortutako marka bakarra. Udan Arabako Txapelketa irabazi zuten Sare Esturok eta Jon Lujak hamar urtetik beherako kategorian. Ander Urquizak ere garaipena lortu zuen Gasteizen lehiatutako Arabako Haur Kategoriako Txapelketan. Torneo horretan Ariane Sarachok bigarren postua eskuratu zuen.

Azaroan jokaturako Arabako Master Txapelketan, aldiz, Ander Urquiza, Sare Esturo eta Jon Luja txapeldun izan ziren euren kategorietan eta Irati Castedo eta Garazi Gardoki, berriz, bigarren izan ziren.



Olatz Camino

Bikain hasi zuen denboraldia Olatz Caminok. Euskadiko bigarrena eta Arabako txapelduna bilakatu zen audioarra errepideko txirrindularitzan. Munduko onenekin batera UCI lasterketa batean lehiatzeko aukera ere izan zuen, eta oso pozik dago lortutako emaitzarekin. Lehen urtea da 23 urte azpiko elite mailan aritzen dela, eta berarentzako aukera handia dela azaldu du: "Oso ezberdina da. Maila handiagoa dago eta jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Asko ikasten dut".



Arrieta Ruiz Goiri

Bigarren sailkatu zen Arrieta Ruiz Goiri Hezte Klasikoko Federazio Kopan. Finala azaroaren 5ean jokatu zuten Hipica Nova Victorian, Pobesen, eta sei lagun aritu ziren. Egun horretan hirugarren izan zen orozkoarra (% 72,857ko emaitza eskuratu), baina sailkapen orokorrean bigarren amaitu zuen. Iaz marka berdina lortu zuen, baina kimu kategorian.

Horrez gain, Arrietak txapelketa gehiagotan parte hartu du aurten, Espainiako zein Euskadikoetan.



Altzarrate

Altzarrate Kirol Elkartek ere emaitza esanguratsuak lortu ditu 2023an. Senior kategoriako taldeak etxera eraman zuten Arabako Kopa ekainean. Hauskaitz klubaren aurka jokatu zuten finala eta 2-0 gailendu ziren. Partida zaila izan zen, hamabi jokalarik baino ez baitzuten jokatzetik izan, gainontzekoak lesionatuak zudelako. Izaro San Miguelek sartu zuen lehen gola 45. minutuan, eta Haizea Andinok bigarrena, norgehiagoka amaitzeko minutu gutxi falta zirenean. Urrian, aldiz, berriro iritsi ziren txapelketako finalera, baina orduan ez zuten irabazterik izan, partida nahiko berdindua egon zen arren.



Zaraobe

Zaraobe Saskibaloitza Taldeko kadeek Arabako txapeldunak izatea lortu zuten ekainean. Amurrioko Bañueta Kiroldegian jokatu zen lauko finala eta lehenengo norgehiagokan amurriotarrek aise irabazi zioten Corazonistasi. Finala, aldiz, Urgatziren kontra jokatu zuten, eta azken unera arte ez zen partida ebatzi. Amurriotarrek bi puntuko aldea zuten, baina azkenengo jokaldia Urgatziri egokitu zitzaion eta, zorionez tokikoentzat, ez zuten saskian sartu.

Amurrioko klubeko junior kategoriako emakumezkoek, berriz, maiatzan jokatu zuten lauko finala, Gasteizen.



Sugarrak

Garaipen bikoitza lortu zuten Sugarrak saskibaloitza klubeko kideek udaberrian. Gizezkoen haur mailako taldea Arabako txapelduna izan zen maiatzan, Araberri eta Jotake taldeei lauko finalean irabazita. Ekainean, aldiz, kadete kategoriako taldeak lortu zuen garaipena, Arabako eskolarteko mailako txapeldun titulua eskuratu. Baina Sugarrak arrakasta garaipen puntuatetik harago doa. Izan ere, indartsu hasi du Laudio klubak denboraldi berria: ia 300 jokalarik eta entrenatzailek daramate klubaren kamiseta ikasurte honetan, eskola mailatik Senior kategoriara.



Sarai Gandarias

Sarai Gandariasek jarraitzen du gora egiten bere kirol ibilbidean. Udan bi astez egin zuen aurrendenboraldia Deportivo Alaveseko talde nagusiarekin eta hamazazpi urte azpiko Euskadiko Selekzioak ere deitu du. Zehazki, Real Sociedad klubaren aurka jokaturako lagunarteko partidarako izan zen.



Jorge Bengoa eta Billal Ben Yechou

Jorge Bengoa laudioarra eta Billal Ben Yechou aretarra Espainiako Kick Boxing Txapelketan aritu ziren maiatzean. Emaiza positiboak lortu ez ezik, irakaspen garrantzitsuak ere ekarri zituzten eskualdera. Ben Yechou K-1 diziplinako kategoria altuenean borrokatu zen. Bengoa, aldiz, bi modalitatetan borrokatu zen: Kick Light eta Light Contact.



Iñaki Bea

Iñaki Bea futbolari profesionalak jaso du Urrezko Guk Saria eta Amurrioko Jaietako pregoilaria ere izan da aurten. Modu horretan, amurriarrak futbolari profesional gisa eginiko ibilbidea goraiatuko dute, “bai jokalaria, bai entrenatzaile gisa, bi postuetan arrakastak lortu eta kirolak gizarteari ematen dizkion balioak indartzen lagundu duelako”. Beak ibilbide oparoa egin du futbolari bezala, hainbat talde esanguratsutan militatuta. Azken urteetan, aldiz, entranatzaile lanetan aritu da, Dominikar Errepublikako selekzio nazionalen arduradun gisa, besteak beste.



Naroa Yarritu

Abuztu hasiera borobila izan zen Naroa Yarriturentzat. Euskal Herriko Ingude Txapelketako hirugarren postua lortu zuen lehenbizi, eta Arabako txapel-dun bilakatu zen handik egun batzuetara. Kirolari artziniegarra helburu zehatzik gabe joan zen Arabako norgehiagokara, baina aurreko urteko emaitzak hobetzea lortu zuen, iaz bigarren izan baitzen txapelketa berean. Horretarako bere marka onena errepikatu zuen, hau da, 88 altxaketa minutu eta erdian. Emaiza nahiko estua izan zen, bigarren eta hirugarren sailkatuek 85 aldiz altxatu baitzuten ingudea denbora tarte berean.



Amaia Gordon eta Nuria Baños

Azaroan jokatu zen Euskadiko Karate Txapelketa eta Laudioko kirolariek emaitza positiboak lortu zituzten bertan. Nuria Bañosek bigarren postua eskuratu zuen Junior kategorian eta Amaia Gordonek hirugarren postua bereganatu zuen 21 urte azpikoen artean. Biak nabarmendu ziren kumite diziplinan, hau da, borrokan. Laudioko klubak azpimarratu du bi kirolariak 7 urte dituztenetik aritzen direla karatean, nahiz eta Gordonek zenbait urtez utzi zuen. Azarokoa izan zen euren lehen txapelketa eta espero dute lorpen gehiago izatea etorkizunean.




Oihan Mimenza Goikoetxea

Oihan Mimenza Goikoetxea Euskadiko Selekzioarekin aritu zen Espainiako 14 urtetik azpiko Selekzioen Txapelketan, azaroan. Athletic Clubeko jokalaria luiaondorak bi gol sartu zituen, bana jokaturako partida bakoitzeko.



Mirari Gotxi Olartekoetxea

Urtekari hau inprentara bidali zenean, Mirari Gotxi Olartekoetxeak Euskadiko Challengeko liderra izaten jarraitzen zuen. Tolosako III. Pablo Arsuaga Memorialean gailendu zen, besteak beste.




Besaide Astobiza

Hirugarren postua erdietsi zuen Besaide Astobizak Oñatiko Duatloian, emakumezkoen kategorian. Orozkorak 2 ordu 22 minutu eta 21 segundutan osatu zuen ibilbidea, lehenengo emakumea baino 10 minutu beranduago iritsita metara.



Ibai Ruiz

Borroka profesionalera itzuli zen irailen Ibai Ruiz. Amurriarrak martxoan erabaki zuen bere ibilbide profesionala etetea, baina udan Thailandian egindako egonaldian hiru aldiz borrokatzeko aukera izan zuen.



Iker Colmenero

Martxoan lehen postua erdietsi zuen Iker Colmenerok Aiarako Biraren XXXIII. edizioan, Arabako txapel-duna izan da eta urrezko domina eskuratu zuen Espainiako Txapelketan, Ion Egiarekin batera, taldekako kategorian.



Aingeru Olabarrieta

Aingeru Olabarrieta gazteak bere bidea egiten dihardu Athletic Cluben. Kirolari luiaondorra lehen taldeko deialdian sartu zen abenduan, Cayon talde kantabriarraren aurkako partidari, baina ez zuen debutatu azkenean.

Galena

Chris Gomez



Valentin Campo de la Torre
Aiala Txirrindularitza Elkarteko kirol zuzendaria

Vive Le Tour?

2023ko Frantziako Tourraz gozatu ahal izan genuen uztailan euskal errepideetan. Lasterketa etxeko atean izan genuen, ordu luzez bidaiatzeko beharrik gabe. Balio izan zuen baita ere publiko zabala lasterketara hurbiltzeko, hurbiletik ikusteko nolakoa den lasterketa eta barruan mugitzen den guztia.

Tourra txirrindularitza lasterketa bat baino askoz gehiago da. Negozio handia da. Kirol ekitaldi handienaz ari gara. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek apustu handia egin zuten. Frantziako proba hain da handia, ezen negozioa sortzen duen igarotzen den tokitan. Baina beste arazo asko ere sortzen ditu, mugikortasunari dagokionez batez ere. Errepideak hainbat ordu lehenago moztu behar dira.

Tourra erronka handia zekarren antolakuntzari dagokionez. Hiriburuak albo batera utzita, 1843 bidegurutzetatik igarotzen zen lasterketa, eta horiek arautu beharra zegoen. Karrera ibilbidea arautu behar zuten boluntarioen figura sortu zen, eta txirrindulari elkarteak ziren onenak lan hori egiteko, eurek egiten dutelako lan hori urtea osoan zehar Euskadin egiten diren lasterketan.

Hilabete batzuk lehenago jakinarazi zen ohiko egutegiko hainbat lasterketa bertan behera utziko zirela. Trafikoko agenteak Tourrera eta hura prestatzera bideratuko ziren, eta ez zegoen agenterik beste lasterketarako. Ezohiko egoera zen. Modu horretan, alde batetik, lasterketak bertan behera utzi ziren; baina, aldi berean, Tourrarekin kolaboratzeko laguntza eskatu zen. Euskal klubak, beti bezala, egoerak eskatzen zuen jarrera erakutsi zuten. Milaka boluntariok egin zuten ekarpena proba inolako eragozpenik gabe joka zedin.

Kirol esparruari dagokionez, lasterketak arrakasta handia izan zuen Euskadin. Hiru etapa eder izan genituen. Eta zer esan zaleei buruz! Mundu osoan miretsi zuten euskal zaleek txirrindularitzaz gozatzeko duten grina eta errespetua. Euskal zalez jositako errepideak betiko egongo dira gogoan.

Hitz egin dezagun zenbakiez.

La milioi bat lagunek gozatu zuten errepidean. 1000 milioi inguruk ikusi zuten telebistaz (150 milioi Europan). Hobe zina izan zen munduari eskaini zitzaion herrialdearen irudia. Jarduera bakar bat ere ez da txirrindularitza baino hobea turismoa sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, lasterketak 12,2 milioiko kostua izan zuen eta 104 milioiko inpaktu ekonomikoa eragin zuen. Antolaketa dagokionez, 16,8 milioi euro bideratu ziren guztira euskal enpresetara, antolakuntzari lotutako gauzak aurrera ateratzeko. Eta 54 milioiko zeharkako inpaktua eragin zuten gasolindegietan, hoteletan, saltokietan, garraioan... 100.000 pertsona baino gehiago igaro ziren *fan zone*-tik, zale gazteenentzako gunetik. Inoiz ikusi gabeko egoera izan zen. Eta zergak? Aldundiek 19,5 milioi berreskuratut zituzten zergen bidez.

Eta diru horretatik zenbat iritsi da euskal txirrindularitzara? Egutegiko hainbat karrera galdu eta proba behar bezala egiteko giza baliabideak jarri zituztenek... Zer lortu zenuten trukean? Ezer ez. Unean uneko politikarien esker onak baino ez. Baina esker onekin ez da lasterketarik antolatzen, ez zaie oinarri-taldee laguntzen. Ez legoke gaizki haiekin harremanetan jartzea etekinak banatzeko. Zain jarraitzen dute.

Jar dezagun etxeko taldea adibide moduan, gurea. Aiala Txirrindularitza Elkartek eta bere LUYANDO GANZEDO kadete taldeak berrogei urte daramatzate oinarriko txirrindularitza sustatzen. 2023ko denboraldian hamaika garaipen lortu dira, bakarka zein taldean. Baita Espainiako bi Txapelketa ere. Gurea bezalako klubak funtsezkoak dira. Eta ez bakarrik txapel-

dunak egiteko. Garrantzitsuagoa da pertsonak hezteak. Lagun diezaiegun guztion artean oinarriko klubei, baliabide baino ilusio gehiagorekin funtzionatzen jarraitzen baitute.

Beraz... Gora Tourra Euskadin! Bai horixe.

Baina gora baita Aiala Txirrindularitza Elkartea ere! Lasterketetan ikusiko dugu elkar.



KOPAS

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05

www.kopas.es

Trofeoak, **Kopak**, Txapelak, **Plakak**, Giltzatakoak, **Pin-ak**, Kamisetak, **Zapiak**, Amantalak, **Sukalkit**, Laser grabaketak, **Metakrilatoa**, Promozio artikulua, **Sari instituzionala**, Merchandising, **Grabatuak**, **Taillaketak**, **Bordatuak**, Estanpazioak, **3D inprimaketak ...**



Zaintza sistema publikoaren alde, Aiaraldea greban

Jarraipen zabala izan zuen azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorrak Aiaraldean. Ehunka lagun atera ziren kalera zaintza sistema publiko komunitario baten beharra aldarrikatzeko. Baina egun horretan ez zen

ezer amaitu. Euskal Herriko Mugimendu Feministak asanbladak deitu ditu dagoeneko, dinamikaren hurrengo urratsak zehazteko. Argazkian, grebaren egunean Amurrioko egoitzan eginiko elkartasun piketea.

Madres Mercedarias

Bake soziala azkenean?

MADRES MERCEDARIAS ERLIJO TALDEAK IBARRAN DUEN ZAINZA ZENTROA POLEMIKAREN ERDIGUNEAN EGON DA 2018TIK, BAINA AURTEN AKORDIOA LORTU DUTE LANGILEEK.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

2018an hasi ziren laino beltzak pilatzen Madres Mercedarias erlijio taldeak Ibarran duen zaintza zentroan. Han artatzen dituzte aniztasun funtzionala duten hainbat emakume eta duela bost urte Grupo Norte enpresak hartu zuen bere gain zerbitzuaren kudeaketa. Langileek zein erabiltzaileek berehala nabaritu zituzten eraginak; lan hitzarmena aldebakartasunez aldatu eta baldintzak okertu zituzten. Gainera, zerbitzuaren kalitateak behera egin zuen, beharginek salatu zuten, pertsonal gutxiago baliatzen baitzuten zaintzetarako. Sindikatuek azpimarratu zuten Grupo Nortek eskala bikoitza erabiltzen zuela langile berriei 800 euro eskas

ordaintzeko, asteburutan lan egitera behartu zituzten beharginak eta bi kaleratze gertatu ziren.

Horrek guztiak giroa nabarmen berotu zuen Ibarrako zentroan kontratatuta zeuden emakumezkoen artean (komenigarria da ez ahaztea zaintzen sektorea oso feminizatua dagoela) eta hainbat greba eta mobilizazio antolatu dituzte 2018tik gaurdaino. Protesta kopurua, gainera, izugarri areagotu da aurtenean, zentroaren gainean eroritako mehatxuaren ondorioz.

Hain zuzen, Madres Mercedariasek iragarri zuten aurtenean izango zela euren azken urtea zentroan. Hau

da, 73 emakume erabiltzaile eta 43 langile zaintzaile kale gorrian utziko zituztela. Arriskua bikotza zen. Alde batetik, Aiaraldean indarrean dagoen enplegua suntsitzeko joeran sakontzea. Bestetik, zaintzak eta arreta behar dituzten 73 emakume guztiz babesgabe uztea, zerbitzu hori jasotzeko itxaron zerrenda luzea baita. Hortaz, beharginen erantzuna hordagoaren tamainakoa izan zen, eta albistea jaso bezain pronto, astebeteko greba deitu zuten. Gero, hainbat eguneko grebak heldu ziren eta mobilizazio anitzak Orozkon, Laudion (eliza okupatu zuten apirilaren 23an eta egun osoko itxialdia egin zuten) eta Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiari exijitzeko



Laudioko San Pedro elizan itxialdia egin zuten Madres Mercedariaseko langileek maiatzean.

zentroaren zerbitzua mantentzea. Ziklo luze horretan hainbat bidelagun topatu dituzte; Mugimendu Feminista, beste enpresetako langileak, Aiaraldeko Greba Batzordea... eta gatazkari eutsi diote.

Ahalegin horren ondoren, azaroan jakin izan zuten Madres Merceda-

riaseko zentroak jarraituko duela, eta Aita Mennik izango duela kudeaketaren ardura. LAB eta ESK sindikatuek (enpresan ordezkariak dutenek) azpimarratu dute etengabeko mobilizazioari esker enpleguaren mantenua Bizkaiko Foru Aldundiaren eta gainerako eragileen agendan txertatu dutela eta horrela

bermatu dutela behargin orenen subrogazioa.

Orain hori lortuta, ikusteke dago lan-baldintzen hobekuntza helduko den aro berri honetan eta, ondorioz, bake soziala itzuliko den Ibarran kokatuta dagoen zentroa edo, aldiz, borrokak jarraituko duen.



Aseguru perfektua bilatzea, inoiz ez da hain erreza izan!

Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza aurrezkiak, Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua...

ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA
Agente eskusiboa

946 610 361 - 688 856 744
artizamorrorrtu@generalimediadores.es
Sastegi 1 behea, OROZKO



Etorri eta galdetu!

Autoglas-Glavista

erortzear dagoen domino pieza

URTE OSOAN ZEHAR LUZATU DA AUTOGLAS-GLAVISTAREN ITXIERAREN ETA BERTAKO 240 LANGILEEN KALERATZEAREN AURKAKO BORROKA, BAINA ORAINDIK EZ DA AMAITU. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAREN PROZESUA GEHIAGO LUZATUKO DELA DIRUDI, ETA BEHARGINEK, BIEN BITARTEAN, MOBILIZATZEN JARRAITZEN DUTE, EGOERA BATERE BAIKORRA EZ DEN ARREN.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Aiaraldea.eus

la urtebete igaro da Auto-glas-Glavistako egoerak eztanda egin zuenetik. Autoentzako haizetakoak ekoizten dituen enpresa urtarrilean sartu zen hartzekodunen aurrelehiaketan, eta orduan ekin zioten langileek mobilizatzeari.

Aspaldiko asmoak

Baina prozesua ez zen duela urtebete hasi. Gaia perspektibarekin ikusteko, ia hamar urte egin behar dira atzera, 2012. urtera. Garai hartan, fabrika hori Guardianen barruan zegoen, ez zen enpresa independentea. Urte horretan iragarri zuen multinazionalak 139 langile kaleratzeko asmoa zuela, eta horietako gehienak ziren Autoglas-Glavistakoak. Horregatik uste dute sindikatuek Guardianek oso

aspalditik zuela lantegi hori desgiteko asmoa. Baina plana ez zen aurreikusi bezala atera: langileek hirurogei eguneko greba mugagabea abiatu zuten eta enpresak bertan behera utzi zituen bere asmoak.

Baina 2020an Guardianek Parter Capital inbertsio-funtsari saldu zion Autoglas-Glavista, “inola-ko abisurik gabe”. Sindikatuek behin baino gehiagotan kalifikatu dute Parter Capital “funts putre” gisa, eta badituzte hori esateko arrazoiak: enpresaren jabeak Entzutegi Nazionalaren begiradapean egon dira beste enpresa bat (Alcoa) porrotera eramateagatik.

Balizko eroslea

Horrela iritsi zen Autoglas-Gla-

Guardianek aspalditik izan du Auto-glas-Glavista paretik kentzeko asmoa eta 2020. urtean lortu zuen, enpresa Parter Capital inbertsio funtsari saldu zionean.





Sindikatuaren aburuz, Guardian multinazionala da egoeraren erantzule nagusia.

vista aurtengo egoerara. Dena den, udan bazirudien langileek motiboak zituztela pozik egotelo: bazegoen enpresa bere gain hartzeko zegoen balizko inbertsore bat, erakunde publikoen oniritzia zuena gainera. Baina dena azken unean okertu zen berriz: Autoglas-Glavistaren lantegiko lurrek Guardianenak izaten jarraitzen dute, eta multinazionalak uko egin zion terreno horiek enpresaren erosleari saltzeari.

Oraindik ere ez dago argi zehazki hartu zuen multinazionalak erabaki hori. Argi dagoen gauza bakarra da bere jarrerak berriro kinka larrian jarri zuela fabrikako 240 langileen etorkizuna. Are gehiago: Guardianeko lan-

gileei ere zalantzak sortzen hasi zitzaizkien enpresak Laudion etorkizunera begira dituen edo ez dituen planen inguruan.

Gauzak hala, eurak ere mobilizazioetara batu ziren udan, greba egun bat deituta, eta urteko azken txanpan ere elkarrekin mobilizatu dira bi enpresetako langileak; bien etorkizuna, 2012ko greba hartan bezala, erabat loturik dagoela ikusita.

Ildo horretan, hainbat mobilizazio eta elkarretaratze egin dituzte beharginek, eskualdean zein eskualdetik kanpo. Berezi ki deigarria izan zen urrian egin zutena, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak sartu zirenean. Hainbat langilek bi eguneko

Langileek uste dute Autoglas-Glavistarena "dominoaren lehen pieza" izan ahal dela

itxialdia egin zuten fabrika barruan, eta elkartasun olatua jaso zuten eskualdeko ehunka lagunentzat.


"Guardian errudun"

Sindikatuak, euren aldetik, Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesu legalean sartuta igaro dituzte azken hilabeteak. Prozesu korapilatsua da, eta ez batere gardena. Hor jokoan dagoena bada Guardianek zenbaterainoko ardura hartuko duen Autoglas-Glavistako langileen etorkizuneari, ulertuta, sindikatuak dioten moduan, egoeraren "erantzule nagusia" dela. Badi-rudi prozesuak jarraipena izango duela hurrengo urtean ere,

baina ikusteke dago zein izango den emaitza.

Hala ere, Autoglas-Glavistako langileen aurreikuspenak nahiko ezkorak dira, eta ez soilik euren lanpostuei dagokionez. "Autoglas-Glavista ixten bada, Aiaraldean eta Araban egongo den enplegu suntsiketaren dominoaren lehen pieza izango da", ohartarazi zuten langileek abenduan eginiko prentsaurrekoan. Eta badaude pieza gehiago kolokan jada; Vidralak (beira lantzen duen Audioko beste enpresa nagusiak) aurten jakinarazi du 90 enplegu suntsitzeko eta labe bat itxeko asmoa duela, adibidez.

Gatazka datorren urtera ere luzatuko dela dirudi, Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesu judiziala korapilatu delako.



Tente mantendu dute soka



Euskalgintzaren esparruan, ez zen erraza Aiaraldean iaz egondako erritmoari eustea. Korrikaren hasiera, Euskaraldia... zita handiak izan ziren nagusi. Aurten, aldiz, ekimen txikiagoak nagusitu dira, xumeagoak, bai-

na balio izan dutenak euskararen normalizazioaren soka tente mantentzeko. Argazkian, abenduaren 3an Artziniegan ospatutako Aiaraldeko Euskararen Egunean eginiko kirol probak.

Kimu berdeak sortu dira

euskararen transmisioan

EUSKARA POLEMIKEN ERDIAN EGON DA IKASTURTE HONETAN BERRIRO ERE EPAILEEK BERE NORMALKUNTZAREN KONTRAKO ERABAKIAK HARTU DITUZTELAKO, BAINA EZ DIRA HAIN BEGIEN BISTAKOAK BERE ALDE AGERTU DIREN BESTE EKIMEN BATZUK.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Euskararen egoera kritikoan sakondu dute aurten ere epaileek bere erabilera gutxiesten duten zenbait epairekin eta horrek erantzunak piztu ditu tokian toki eta Euskal Herri osoan. Alegia, azaroan manifestazio izugarri jendetsua antolatu zuten euskalgintza eragile nagusiek horregatik. Dena den, mobilizazioen ostean jarritu zuten epaileen mespretxuak euskarari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak berretsi zuen iaz Ana Maria Martinez Varas epaileak erabakitakoa, hau da, Laudioko Udaleko funtzionario bati itzuli behar zitzaioela lana, nahiz eta exijitzen zen euskarazko jakintza ez izan.

Dena den, polemikak ez dira beti kanpoan sortu, eta Amurrioko euskara teknikariaren

plazaren desagerpenarekin hautsak harrotu ziren eskualdean, esaterako. Horrek guztiak, eta eragiten dituen alarmek maiz are gehiago lainotzen dute jadanik ilun dagoen paisaia eta itxaropenerako dauden kimu berde txikiak ikusezin bilakatu.

Izan ere, eskualdean azken urtean agertu dira zenbait egitasmo herriar, aiaraldearrek eurek bultzatuta, zeinek esku hartu nahi duten funtsezkoak diren esparrutan; hau da, aisialdian, kirolean eta familien artean. Adibide garrantzitsua da Orozkon eratu duten guraso euskaltzaleen batzordea. Ekimenak euskararen arnasmune izan nahi du eta, horretarako, euskara hutsean familian aritzeko jarduerak antolatzen hasi zen apirilean. Hain zuzen, gurasoek es-

Orozko eta Aretako gurasoek, gazteek, Altzarrate Kirol Elkarteak... Hainbat lagun eta elkarte aritu dira burubelarri 2023an aisialdia, egunerokoa edota futbola euskaraz zipriztintzeko.

trategikoa den ohituraren aldaketa sustatu nahi dute, eta hezkuntza formala euskaraz eskaintzeaz gain, egunerokoa ere bultzatu nahi dute hizkuntzaren erabilera, tresna intimoa bilakatuta ere.

Aretako Gurasoek ere ekin diote ekintzak euskaraz antolatzeari eta Orbeko Etxean *Euskaraske* abiatu zuten Euskaraldian eta aurten ere luzatu dute, zeinbait ekintza prestatuta soilik euskaraz. Urduñan ere Gurasolagun ekimenaren bitartez 0 eta 3 urte bitarteko umeentzat jolas libreko aretoa prestatu dute hilean behin, Alondegian, euskara hutsezko aisialdia txikiaren egunerokoa txertatzeko.

Kulturaren eta familien aisialdiaz gain, kirolaren eremuan ere indarrak jarri dituzte hizkuntza ohiturak eraldatzeko eta euskarara hurbiltzeko. Esaterako, Euskalgintza Kontseiluak agerrialdiak eta jardunaldiak antolatu ditu kirola eta euskara uztartzeko beharra ikusarazteko eta klubei konpromisoak eskatzeko. Horietako bik, CD Urduñak eta Alzarrate Kirol Elkarteak, abiatu dute euskara plana osatzeko



Erakundeen esparruan, Arrankudiaga-Zolloko Udalak lortu zuen UEMAn sartzea.

Berbots Euskaltegian bigarren familia sortu dugu.

**25 URTE ZUEKIN,
EUSKARAZ**

Zubiaur 5, LAUDIO
94 672 67 22 · 663 194 177
laudio@aeek.eus · @laudioaeek

aeek



bidea jadanik. Plana indarrean sartu da berehala eta komunikazioa euskaraz areagotu dute kirol elkarteetan, bai entrenatzaile eta jokalarien artean, zein klubaren eta gurasoen artean.

Gazteek ere izan dute protagonismoa euskararen normalizazioaren alde eskualdean aurten egin diren ekimenetan



Aiaraldeko zenbait gazte ere urratsa egin eta bi ekimenetan parte hartu dute. Alde batetik, Gazte Euskaltzaleen Topaketa egin zuten Amurrioko Gazte-txean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren eskutik. Bestetik, abuztuaren 27tik irailaren 4ra bitartean *Aiaraldea ibiliz* euskarazko udaleku ibiltarian aritu ziren 14 eta 18 urte bitarteko dozena bat gazte. Eskualdeko hainbat txoko ezagutu zituzten (Etxaurren baseliza, Faktoria, zenbait mendi tontor...) eta azken egunak Zuhatzako irlan eman zituzten.

Erakundeetatik sortutako egitasmoak ere ez dira falta. Audioko Udalaren Sorlasean programaren bidez antzezlanak sortu zuten. Arrankudiaga-Zollon erabaki garrantzitsua hartu zuten eta UEMA-n sartzea lortu zuten, aurten eskaera egin ondoren.



Berbots euskaltegiak 25 urte

Bego Macias
Berbots euskaltegiko irakaslea

25 urte igaro dira, Laudion Zubiaur kalean gure AEK Berbots euskaltegia ireki genuenetik. 25 urte, bai, 1998ko uda hartan, musika, adiskideak, poza eta algara lagun, Zubiaur kaleko “sasi plazatxo” osatzen duen kale bazter honetan, gure euskaltegiaren hazirik maitagarriena gure bihotzen ongarriaz ondo horniturik eta elikaturik erein genuela.

25 urte euskara irakasten, edozein arrazoi dela bide, euskaldunon hizkuntza eta kulturara hurbildu nahi izan duen hainbat eta hainbat laguni. Eta gure hizkuntzarekin batera euskaldunon baloreak ere zabaltzeko aukera izan dugu urte hauetan guztietan. Eta balore horien funtsean, Gazte-lugatxan ondoratu zen ontziak euskaldunontzat omen zekarren altxorra:

“...inor ez zapaltzeko gogoia, zapalduak ez izatekoa, hau da gure urgulua, altxor guztien iturria...”

25 urte gure herria euskalduntze bidean saikontzen lagunduz eta herriko talde euskaltzale, erakunde publiko, eskola, enpresa eta abarrek lanean, helburu hori errealitate bilakatu nahian.

Inork pentsa lezake 25 urte ez dela denbora nahikoa gurea bezalako lanean egindako aurrerako urratsak ganoraz neurtu ahal izateko. Baina 25 urteko perspektibak aukera ezin hobea eman liezaguke orain arteko bidean izandako okerrak, zein norabide onean egindakoak ebaluatzeko.

Eta perspektiba honetatik, nire barnean nabarrien loratzen den sentimendua, harrotasuna da.

Harro sentitzen naiz Audioko AEK euskaltegiak egindako bidez; harro nire alboan izan ditudan lantaldeez, eta egun dudan lantalde zoragarriaz; harro, oso lan handia eginez gure laguntzaz euskaldun bilakatu diren ikasle ohiez, eta harroago hauetakoa askok gerora familia euskaldunak sortu izanaz. Eta harrotasun hau bermatzeko hamaika

gauza gehiago aipa nezake. Ez dugu, dena den, denbora eta espazio materialik berrikusketara zehatza egiteko. Baina esan bezala, 25 urte hauetako ebaluazioan alde positiboak nabari gailentzen badira ere, bada euskararen irakaskuntzan eta hizkuntza normalkuntzan lan egiten dugun guziok kezkatzen gaituen zerbait. Euskara ikasten hainbeste pertsonari lagundu diogu honetan aritzen garen erakunde guztiek elkar lanean. Gaur egun, ikasle zein irakasle guztion ahaleginari esker, sekula egon ez den euskaldun kopura dago gure herrian; Baionatik Tuterara eta Enkarterrietatik Maulera. Gauza bera esan genezake Audioko egoeraz. Baina zoritxarrez euskaraz aritzeko beharra eta euskaraz bizitzeko gogoia zabaltzen eta kutsatzen ez dugu asmatu. Ondorioz euskararen erabilera ez da ezagutzaren erritmo berean hazi eta ugaldtu.

Horretaz gain, gainditzeke utzi dugun “irakasgai” hau era egokian eta ganoraz gainditu ahal izateko ditugun oztupoak ez dira makalak. Hizkuntza ofizialen egoera diglosikoa batetik eta etengabe izaten ditugun gure hizkuntzaren aurkako oldarraldi politiko-judizialek bestetik, ez digute bidea erraztuko.

Lan itzela dugu aurrean, honek, aldiz, ez digu inoiz kikildu. Orain 25 urte egun garen puntura heltzea ere, izugarriko lan ikaragarria iruditzen zitzaigun; ezinezkoa hainbestetan.

Argi dugu, beraz, une hartan ereindako haziak 25 urteko zaintza eta mimoaz emankor izan baldin badira, aurrean dugun erronka horri ere aurre egingo diogula eta lanaren lanaz egungo asmoak errealitate bilakatuko ditugula.

Eta abagune honek ematen didan aukeraz baliatuz, eskerrak eman nahi nizkieke Audioko euskalduna ahalbidetu duten irakasle, ikasle eta AEK-kide guztiei. HARRO HERRI.



Aiaraldeko sortzaileak, gailurrean

Aiaraldeko sortzaileek hainbat mugarri lortu dituzte aurten, eta horien artean bereziki nabarmentzeko modukoa da Esti Urresolan bere fikziozko lehen filma luzearekin lortutakoa. *20.000 especies de abejas* zintak

sari sorta oparoa lortu du nazioarteko jaialdian, eta 15 izendapen jaso ditu otsailean banatuko diren Goya Sarietarako. Irudian, filmeko protagonista den Sofia Otero gaztea aktore onenaren sariaren bila, Berlinalean.

Doinu eta erritmo anitz

Aiaraldeko musika panoraman

ANIZTASUNA DA NAGUSI AIARALDEKO MUSIKA ESZENAN. HORI ARGI IKUSI DAITEKE ESKUALDEKO MUSIKARIEK AURTEN PLAZARATUTAKO LANAK IKUSIZ GERO. ROCK ETA PUNK DOI-NUEK PISUA IZATEN JARRAITZEN DUTE ESKUALDEAN, BAINA BESTELAKOAK NAGUSITU DIRA.




Sin ti

Taldea: Cuchillo Manteca
Zigilua: Autoekoizpena

Duela bost urte sortu zen Cuchillo Manteca, Laudioko hainbat musikari beterenoren eskutik. Taldeak hasieratik ekin zion abesti propioak sortzeari, baina orain arte ez du grabaketarik plazaratu. Izan ere, zuzenekoak eskaintzea izan da taldekideen lehentasuna, "hori delako proiektuaren funtsa".

Baina iaz estudioan sartu ziren taldekideak, eta urte honen hasieran plazaratu dute emaitza: *Sin ti* diskoa. Hamaika kanta bildu dituzte lanean, eta "emozioak" dituzte ardatz kanta guztiek. Albuma plataforma digitaletan dago entzugai (Spotify eta YouTube).



Pause

Taldea: Maik Falls
Zigilua: Autoekoizpena

Zazpi urte igaro dira Maik Fallsek bere azken lana (*Reset* albuma) plazaratu zuenetik, baina azkenean argitaratu du bere hirugarren diskoa: *Pause*. *Lo-fi* eta *ambient* estiloetako hamabi kantu bildu ditu musika ekoizle audioarrak bere album berrian. Disko kontzeptuala da, abesti bakoitza eguneko ordu batean girotua baitago. Sortzailearen hitzetan, "eguneko diskoa" da *Pause*, eta giro soinuak presentzia handia du abestietan. CD eta kasete formatuetan plazaratu zuen lana urte hasieran, 44 aleko edizio mugatuarekin. Hala ere, Bandcamp plataformara ere igo du.



Las herramientas del amo

Taldea: Krime y Kastigo
Zigilua: Autoekoizpena

Las herramientas del amo izeneko diskoa plazaratu du Krime y Kastigo punk taldeak, bere hamasei urteko ibilbideko laugarrena. Ekainean ekoiztu zituzten albumeko abestiak Donostiko Corsarios estudioetan. Zuzenean grabatu zituzten kantu guztiak, instrumentu guztiak batera joz. Modu horretan, "soinu gordinagoa" lortu nahi izan dute, "artifiziorik gabekoa". Taldea berez Basaurin sortu eta garatu den arren, taldekideek harreman estua dute Aiaraldearekin. Kideetako batek Tubacexen egiten du lan eta beste bat Aretan bizi izan da hainbat urtez. Gainera, taldeko baxu jole berria (Diego) Aiarakoa da.



Bienvenidos al cambio climático

Taldea: Psilocybe
Zigilua: Autoekoizpena

Iaz eskaini zuen lehen kontzertua Psilocybe taldeak, eta aurtent plazaratu du lehen diskoa, zazpi abestiz osatutakoa. Julio, Txarli, Miguel, Fernando eta Jorgek osatzen dute taldea. Musikari beterranoak dira guztiak, Laudioko Skuateko Arbol, Finisterrae edo Anti-Ke bandetan aritu baituzten, besteak beste. Talde berri honek ere badu garai horretako xarma. Euren hitzetan, "metal itogarria" jorratu dute diskoan, "erritmo trinkoekin". Letrei ere eman diete garrantzia Psilocybe kideek, gai sozial zein politikoak jorratuz, orain arte jorratu duten ildoari jarraituz.



Familia gara

Taldea: Etxebarria aita-semeak
Zigilua: Autoekoizpena

Koldo eta Unai Etxebarria aita-semeek indarrak batu dituzte, hobekien dakiten hori egiteko: trikiti eta panderoa jo, umore eta alaitasun gaindosia-rekin.

Hainbat abesti eta bideoklip plazaratu dituzte azken bi urteetan, eta aurtengo Durangoko Azokan aurkeztu dute *Familia gara* diskoa. Hamabi abesti ditu lanak, euskarazko, gaztelerazko eta ingelesezko kantekin. Abesti mitikoen bertsioak sartu dituzte (*Loretzkoa*, *Ikusi mendizaleak* eta *Let it be* kantenak), baina baita familian sortutako konposizio propioak ere, *Sorioneku familia gara* kasu.



Zer ote da?

Taldea: Kuttune
Zigilua: Autoekoizpena

Ibilbide oparoa egiten ari da Kuttune proiektua. Nerea Quincoces artziniagarra buru du folk taldeak, eta bi disko plazaratu ditu dagoeneko. Lehena iaz, *Hauxe da* izenarekin. Bigarrena, aldiz, aurtengo urrian plazaratu dute, *Zer ote da?* titulua-rekin. Euskal folkloreтик abiatuta, beste doinu batzuekin esperimentatu dute taldeko kideek albumeko hamabi abestietan zehar, doinuen arteko fusioa baliatuta. Jon Maia bertsolaria izan dute bidelagun grabaketan. Diskoa ixten duen *Airezko etxea* kantaren letra egin eta abesteaz arduratu da bertsolaria.



Lyrikan

Fase berri bat abiatu zuen Lyrikanek bere musika ibilbidean duela urtebete baino gehiago. Abesti eta bideoklipak plazaratzen dihardu artista audioarrak, baina iragarri du "proiektu oso zoro" batean sartu dela, eta kalitatean salto bat ematea espero duela.



Laztana Laztana

Sandra Vargasek sortu du Laztana Laztana, baina Karla Velarde Castro bibolin jole amurriarra eta Jorge Larrakoetxea ditu bidelagun. Urte hasieran plazaratu zuten lehen abestia, eta beste hainbat aurkeztu dituzte ordutik hona.



Itziber

Itziar Azkaratek eta Alberto Villarek osatzen dute Itziber proiektua. Musika elektronikoa eta ikus-entzunezko piezak uztartzen dituzte. Iragan otsailean plazaratu zuten euren hirugarren eta, momentuz, azken abestia, *Bide Zidorretik* izenekoa.



Dr. Lawson

El hombre que nunca existió abestia plazaratu du udazkenean Dr. Lawson-ek. Indie rock musika jotzen du talde audioarrak, eta 2019an taularatu zuen lehen lan luzea. Ordutik hona abesti solteak aurkeztu dituzte, eta kontzertuetan ere aritu dira.



Yogurinha Borova

Haurrentzako abestien sorkuntzan murgilduta igaro du Yogurinha Borovak 2023. urtea. Apirilean plazaratu zuen *Oporrak* kanta, eta udazkenean aurkeztu zuen umeentzako berariaz prestatutako diskoa: *Amona molona*.



Matx

Katarsia izeneko bost kantuko EPa plazaratu du Malen Atxa 'Matx' bakarlari audioarrak. Egoitz Uriarte musikari beteteranoa izan du bidelagun kantuen grabaketa eta ekoizpenean, eta kontzertu ugari eskaini ditu lana aurkezteko, Cuatro Bancos taldeko kideekin.

Literatura genero anitz


2023an Aiaraldean



Hija de la lluvia

Idazlea: Haizea Lopez
Argitaletxea: Espasa

Artziniegan girotutako nobela argitaratu du Haizea Lopez idazle sopolarrak. "Genero guztietako pintzelkadak" dituen "thriller psikologiko" gisa definitu du istorioa eta azaldu du txakolinak, mahastiak, maitasuna, sexua eta jazarpena nahasten direla kontakizunean. Gaztea den arren, bide luzea egin du Lopezek literaturaren esparruan. *Hija de la lluvia* bere 129. lana da, baina liburu asko gizonetzko ezizenekin sinatu ditu.



Tormeseko Lazarotto

Idazlea: Kepa Barañano
Argitaletxea: Autoekoiztua

Euskara batuan itzuli du Kepa Barañano audioarrak gaztelaniazko *La vida de Lazarillo de Tormes y de sus fortunas y adversidades* eleberri ospetsua. Itzulpena Internetetik deskargatu daiteke zuzenean, nahi duen orok irakur dezan.

Honakoa ez da idazle audioarrak euskarara itzultzen duen lehen lana, duela urte batzuk lan berdina egin baitzuen Cervantesen *On Kixote Mantxakoa* liburu mardularekin.




Embriagado de infinitos

Idazlea: Igor Arzuaga
Argitaletxea: Amarante

Embriagado de infinitos poesia liburua plazaratu du aurten Igor Arzuagak, bere bigarren obra literaturaren esparruan. Musikari aretarrak betidanik egin du poesia, baina iaz eman zuen idatzitako argitaratzeko urratsa, Amarante argitaletxeak bultzatuta. Modu horretan plazaratu zuen *De espantapájaros y escarcha* lana. Argitaletxe bera izan du bidelagun oraingoan ere, eta aitortu du bigarren liburu honekin "ziklo bat itxi" nahi duela.

LITERATURUZTA NABARMENA UTZI DU 2023AK AIARALDEAN. ESKUALDEKO IDAZLE UGARIK PLAZARATU DITUZTE LANAK, HAINBAT GENERO LANDUTA, ELEBERRIA, KOMIKIA, IPUINGINTZA EDOTA POESIA KASU.




Elur beltza

Idazlea: Mikel Ayllon Corral
Argitaletxea: AFA

Ignacio Aldekoa Sarien 43. edizioan saritu zuten Mikel Ayllon Corralek idatzitako *Elur beltza* ipuina, eta Arabako Foru Aldundiak argiratu zuen erre-latoa.

"Helsinki elurtuan" girotuta dago kontakizun laburra, Ayllonen hitzetan. "Denok noizbait izan dugun ihes egiteko eta mundutik desagertzeko desio ezkutuaren inguruan hitz egingen du", azaldu du idazle laudioarrak.



Landismo

Idazlea: Txani Rodríguez
Argitaletxea: Libros de Ruta


Libros de Ruta argitaletxeak plazaratu du *Landismo* liburua, bere hamargarren urteurrena ospatzeko. Testua, berez, ez da, zehazki Mikel Landari buruzko saiakera, baizik eta txirindularitzak sortzen duen grinaren eta zaltetanaren gorazarrea. Horrela, idazki bildumaren zuzendariak proposatu zuen Amurrion bizi den txirindularia ardatz hartzea. Txani Rodríguez idazle laudioarrak parte hartu du bilduman, ipuin bat idatzita.



Viento sin norte

Idazlea: Arantza Álava
Argitaletxea: Mahor ediciones


Hirugarren lana kaleratu du aurten Arantza Álava Urduñako idazleak. *Viento sin norte* (Mahor Ediciones, 2023) 12 kontakizunetako prosa-liburua da eta, idazleak berak azaldu duenez, bere aurreko lanak baino deskriptiboagoa da. Edonori gerta dakizkikeen pasadizoak kontatzen ditu, pertsonen izaeran eta harremanetan murgilduz. Alavaren lehen lana olerki bilduma bat izan zen, baina bigarren liburuan salto egin zuen prosara.



Sumidero

Idazlea: Raisa Alava
Argitaletxea: AIA Editorial

Aurtengo Tourra iragartzeko kartela egiteaz gain, beste mugarri garrantzitsu bat izan du Raisa Alavak aurten. Bere lehen komiki luzea plazaratu du Zuhatzako ilustratzaileak AIA Editorial argitaletxearekin.



El rumbo de las hojas caídas

Idazlea: Sashel Calderón
Argitaletxea: La Consentida


2021ean plazaratu zuen Sashel Calderonek bere lehen olerki liburua. Bi urteren ostean, lan berria aurkeztu du poeta laudioarrak: *El rumbo de las hojas caídas*.



Kikiriki

Idazlea: Mainer Ramirez eta Oihane Ibarra

Ipuin interaktiboen *Kikiriki* proiektua garatu dute Mainer Ramirez eta Oihane Ibarra laudioarrek, Kultur Faktoriaren sormen beka baliatuta. Ramirez arduratu da istorioak idazteaz, eta Ibarra ilustrazioak egiteaz.



Una quimera de vida

Idazlea: Iñigo Martínez
Argitaletxea: Autoekoizpena

Iñigo Martínez Sagastizabal sortzaila laudioarrak *Una quimera de vida* idatzi zuen 2020ko itxialdian, eta aurten aurkeztu du kutsu autografikoa duen liburua.



Cosecha del 48

Idazlea: Cosecha del 48
Argitaletxea: Autoekoizpena

Liburu batean bildu du Laudioko Cosecha del 48 taldeak bere 25 urteko ibilbidean garatutako jarduna, hainbat egileren testu eta argazkiekin.



Laudio Ikastolak 50 urte


Idazlea: Aiaraldea
Ekintzen Faktoria (Komunika)

Liburua plazaratu zuen Laudio Ikastolak urte hasieran, bere 50 urteko ibilbidea ospatzeko. Aiaraldea Ekintzen Faktoria arduratu zen argitalpenaren erredakzioaz.

Oholtza zein pantailetan

Aiaraldea presente

ZINEMAREN ZEIN ANTZERKIAREN ESPARRUAN ERE URTE OPAROA IZAN DA 2023A AIARALDEKO SORTZAILEENTZAT. ESTI URRESOLA ZINAMEGILE LAUDIOARRA EGON DA GAILURREAN, BAINA EZ DA NABARMENDU DEN BAKARRA IZAN.



España una, Portugal cero

Otsailan estreinatu zuten *España una, Portugal cero*. *Memorias de un prisionero de guerras* dokumentala, Laudioko Orbeko Etxean. Javi Gil audioarrak egin ditu zuzendari lanak, Santi Ricekin batera. Horrez gain, Izaskun del Cerro urduñarrak ere parte hartu du proiektuan, soinu banda konposatuta. Jose Ric Dernerren bizitza kontatzen du filmak. George Orwellen miliziano zutabearen parte hartu zuen Guda Zibilean, gero Frankismoaren preso izan zen eta beranduago nazien kontzentrazio esparru batean amaitu zuen, askatu zuten arte.




Una vida no tan simple

Ekainaren 23an estreinatu zuten *Una vida no tan simple* pelikula. Einar Palacios Elejalde amurriorrraren debuta izan zen zineman. Bost urteko haurrak Miki Esparbe antzezleak egin duen pertsonaiaren semearen papera egiten du pelikulan. Bere gurasoek ume alai eta irekiztat jotzen dute eta horregatik, Bilbon pelikula bat grabatuko zutela ikusi zutenean, proposatu zioten bideo bat grabatu eta bidaltzea. Behin iragazki guztiak igarota, 2021eko azaroan eta abenduan ekin zion Einarrek filma grabatzeari.



20.000 especies de abejas

Marka guztiak hautsi ditu Esti Urresolaren fikziozko lehen filma luzeak. Hasiara hobezina izan zuen nazioartean, pelikulako protagonista den Sofia Oterok antzeppen onenaren Zilarrezko Hartza jaso zuenean, aitortza hori lortzen zuen aktorerik gazteena bilakatuta. Ordutik hona, ibilbide meteorikoa izan du zinemagile laudioarraren lanak nazioartean. Oscar sarietako zutela ikusi zutenean, proposatu zioten bideo bat grabatu eta bidaltzea. Behin iragazki guztiak igarota, 2021eko azaroan eta abenduan ekin zion Einarrek filma grabatzeari.



Agur Artzai

Iazko abenduan aurkeztu zuen Julen Zubietek *Agur Artzai* dokumentala Mendi Film zinema jaialdiko sail ofizialaren barruan eta harrera beroa izan zuen, baina filmak aurten egin du ibilbide oparoena Euskal Herriko zein nazioarteko jaialdietan. Dozena erdi sari eta aipamen eskeratu ditu zinemagile orozkoarren pelikulak, Zinema Ikusezinen Jaialdian edota Lekeitioko Euskal Zine Bileran, besteak beste. Jose Ereño Gorbeiko azken artzainaren bizitza du hizpide ikus-entzuzkoak. Zubietek denbora asko igaro zuen bere etolan filmaren grabaketan prozesuan zehar.



Hau ez da gerra bat

Maiatzean estreinatu zuten Piszifaktoria Ideien Laborategiaren antzezlan berria Gasteizko Printzipal aretoan. Inoiz egin duten sorkuntzarik handiena izan da, Mikel Ayllonen hitzetan. Idazle laudioarrak egin ditu obrako gidoi eta zuzendari lanak. Aiora Sedano, Gabriel Ocina eta Irati Agirreazkue-naga aktoreak aritzen dira oholtza gainean, eta Igor Arzuaga musikariak zuzenean jotzen du soinu banda. Lan horrez gain, formatu txikiagoko *Bunker* eta *Hau gerra bat da* lanak ere plazaratu dituzte Piszifaktoria kideek, gai beraren inguruan.



El bus de la vida

Urduñan grabatu zituzten mar-txoan *El bus de la vida* filmaren hainbat pasarte. Dani Rovira antzezlea da pelikulako protagonista, eta Susana Abaitua, Elena Irureta, Antonio Duran 'Morris', Nagore Aramburu, Andres Gertrudix eta Roberto Alamo ere agertuko dira pantailan. Ibon Cormenzana da filmaren zuzendaria. Minbizia duen pertsona baten istorioa kontatuko du zintak, baina zuzendariaren asmoa da kontakizun argitsua eskaintzea eta musikalarren generoa ere lantzea. Pelikula 2024an estreinatzea aurrekusi dute.

A young child with short brown hair, wearing a red jacket, is looking upwards and holding a red balloon. The child is surrounded by many other red balloons. In the background, there are other people and a sign with a white figure on a red background. The overall scene is a public demonstration or rally.

Hezkuntza publikoaren mobilizazio olatu

Aretako Eskolako bi urteko gelaren itxiera, aurrematrikulazio garaian "zaurgarri" gisa sailkatutako familiekin egondako gorabeherak, ikasturte hasieran autobus garraiorik gabe egotea, jantokietako catering zer-

bitzu eskasa... Hamaika arrazoi medio, urte osoa igaro du Aiaraldeko hezkuntza publikoko komunitateak mobilizatuta, ehunka herritarren babesarekin. Argazkian, Aretatik Laudiora eginiko manifestazioa.

Herri curriculumama

sortzeko lehen urratsak eman dituzte

AIARALDEKO HERRI CURRICULUMA OSATZEN HASTEKO PROZESUA ABIATU DUTE ESKUALDEKO HEZKUNTZA KOMUNITATEKO HAINBAT KIDEK, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUAK BULTZATURIK.

Testua: Txabi Alvarado Bañares

Argazkia: Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua

Aurten ez du zeresan askorik eman, baina baliteke datozen urteetan zenbait titular uztea gaiak: Aiaraldeko Herri Curriculumama osatzeko lehen urratsak eman dituzte 2023an, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren ekimenez. Ekainean eman zuten lehen pausoa, Faktorian antolatutako Hezkuntza Jardunaldien bidez.

Aiaraldeko hezkuntza komunitateko kide ugari bertaratu ziren zita horretara, eta gertutik ezagutu ahal izan zituzten Herri Curriculumamak osatzeko Euskal

Herriko beste txoko batzuetan abian jarritako esperientziak. Alde batetik, Josu Zubiak hartu zuen hitza. Potx pailazoa izateagatik da ezaguna oñatiarra, baina bere herriko Herri Curriculumameko koordinatzailea ere izan da, eta esperientzia hori kontatu zuen jardunaldietan.

Bestetik, Mari Karmen Garrido Regidor bertaratu zen Faktoriara, Aramaion garatutako prozesua kontatzeko.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideek hartu zuten hitza

jardunaldien amaieran, eta zuzenean interpelatu zieten bertan zeuden hezkuntza komunitateko kideei, eskualdean horrelako proiektu bat garatzera animatu zitezten.

Bigarren urratsa, abenduan

Abendura arte itxaron dute curriculumama eraikitzen bidean bigarren adreilua jartzeko. Abenduaren 23rako deitu zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak proiektua garatzeko talde eragilea sortzeko bilera irekia.

Urtekari hau egun bakan batzuk



Hezkuntza Jardunaldietan eman dute Aiaraldeko Herri Curriculumama osatzeko lehen urratsa.

lehenago joan da inprentara eta, beraz, ezin izan ditugu lehen bilerara horren nondik norakoak jaso, baina badirudi hurrengo urtean titular gehiago utziko dituela gaiak. Prozesua bere hastapenetan dago oraindik, baina aurrera eramateko gogo eta grina dagoela ematen du.

Abenduan deitu zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak curriculumera begirako talde motorea eratzeko lehen bilera.



Etxeko txikiak ametsak gerturatzen

Udalekuak
Barnetegiak
Eskola Garraioa
Txangoak
Kirol Taldeak
Aisialdia
Kanpamentuak



www.sobronbus.eus 94 672 03 85 @sobronbus

Publikoa borrokan

murrizketa eta lege berrien aurka

BORROKA URTEA IZAN DA HONAKOA HEZKUNTZA PUBLIKOKO KOMUNITATEARENTZAT. ARETAKO ESKOLAKO BI URTEKO GE-LAREN ITXIERAK PIZTU DITU MOBILIZAZIO NAGUSIAK, BAINA IZAN DIRA PROTESTA GEHIAGO. HEZKUNTZA KOMUNITATEAK AIARALDEKO HEZKUNTZA PUBLIKOA BIZIRIK! PLATAFORMAN BILDU DITU INDARRAK.

Testua: **Aimar Gutierrez Bidarte**
Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Mobilizazioz beteriko urtea izan da honakoa Aiaraldeko hezkuntza komunitatearentzat, baina ikastetxe batek bereziki okupatu ditu lerroburu gehienak: Aretako Eskolak. Izan ere, ikastetxeko guraso, irakasle zein ikasleek mobilizazio ziklo bizia jarri zuten abian urteko lehen hiruhilekoan, bi urteko gelaren itxieraren aurka.

Alarma guztiak martxo erdialdean piztu ziren. Aretako Eskolako zuzendaritzak Hezkuntza Sailaren deia jaso zuen, jakinarazteko bigarren honek zentroko bi urteko gela ixteko asmoa zuela zetorren ikasturtean. Aretan jaiotako adin horretako bost haurretatik ikastetxean bi bakarrik matrikulatu zirela argudiatu zuen Eusko Jaurlaritzako sailak erabakia defendatzeko.

Zerbitzu publikorik gabe geratzeko arriskuaren aurrean, mobilizatzeari ekin zioten Aretako familiek eta eskolako komunitateak. Bi urteko gela ixteko mehatxuaren atzean Aretako Fabian Legorburu ikastetxea ixteko asmoa igartzen zuten: "Fabian Legorburu baita Aretako harremanen, izaeraren eta eragile sozialen sorburuetako bat. Aretak duen izaera propio hori desagertzeko lehenengo pausua litzateke Aretako Eskola desagertzea".

Gelaren itxieraren kontrako ekimenak berehalakoak izan ziren. Zentroko zuzendaritzak erabakiaren kontrako idazkia igorri zion Jokin Bildarratz sailburuari. Eskolaren aldeko elkartasun keinuak ere erreskadan etorri ziren albiste publiko egin bezain laster.

Alarma guztiak martxo erdialdean piztu ziren, Aretako Eskolako zuzendaritzak Hezkuntza Sailaren deia jaso zuenean, jakinarazteko bigarren honek zentroko bi urteko gela ixteko asmoa zuela zetorren ikasturtean.





Hezkuntza komunitatearen babes zabala jaso zuten Aretako bi urteko gelako familiek.

Mobilizazioekin ere berehala hasi ziren. Albistea publiko egin eta egun gutxira marea gorri batek manifestazio jendetsua egin zuen Aretatik Laudioko Herriko Plazara. Protestek ez zuten etenik izan: elkarretaratzeak, sinadura bilketak... Udal Osoko Bilkurara ere eraman zuten bi urteko gela zabalik mantentzeko aldarria, non alderdi politiko guztiek aho batez babestu zuten Aretako gurasoek aurkeztutako mozioa.

Martxoaren 28an jaso zuten Hezkuntza Sailaren erantzuna: Aretako Eskolako bi urteko gela zabalik

Mobilizazioz beteriko egunen ondoren, martxoaren 28an jaso zuten Hezkuntza Sailaren erantzuna: Aretako Eskolako bi urteko gela zabalik mantenduko zen hurrengo ikasturtean.

mantenduko zen hurrengo ikasturtean. Erabakia jasotzeko modua, ordea, bitxia izan zen. Ander Añibarro alkateak sare sozialetan publikatutako bideo batean egin zuen publiko erabakia.

Aretako Eskolako gurasoek albiste “gazi-gozo” bezala jaso zuten berria. “Gure, matrikulak onartzetik harago, ez genuen inolako bermerik jaso bi urteko gelaren eta Aretako Eskolaren inguruan. Ez dakigu zer gertatuko den datozen urteetan. Gainera, honezkero ez dago hauteskunderik tartean. Ez dakigu urtero izan beharko dugun borroka hau, nahi eta nahi ez”, azaldu zioten gurasoek Aiaraldea Komunikabideari, ikastetxea etorkizunean mantentzeko bermeen faltaz kezkatutik.

Etorkizunerako berme falta

Irailen hasi zuten ikasturte berria Aretako Eskolan. Bi urteko gelan, hasierako bi matrikulez gain beste bi batu ziren, lau ikasle orotara. Bi urteko eta hiru urteko gelak elkartu dituzte aurten Aretan. Eskolan mantentzea lortu duten arren, etorkizun hurbilean gertatu daitekeenak kezkatuta ditu oraindik ere gurasoak: “Hezkuntza Saitetik ezartzen den minimoa irakasle bat jartzeko sei ikasle dira. Datorren urtean aurreikusten dugu ere egoera antzekoa izango dela, hiruzpalau haur daude Aretan bi urteko gelan matrikulatzeko. Hurrengo belaualdian, aldiz, badaude sei-zazpi haur”, azaldu dio Naroa Ugartek Aiaraldea Komunikabideari.

Autobus zerbitzua

Ikasturte hasierak, ordea, eskual-

Aretako Eskolako gurasoek albiste “gazi-gozo” bezala jaso zuten berria, ikastetxearen etorkizunerako bermeen falta zela eta.





Hezkuntza Lege berriaren proposamenak mobilizazio ugari piztu ditu Aiaraldean.

deko gainerako ikastetxeetara ere eramanezuen kezka. Arrazoiak: eskola-garraio falta. Iaz gertatu bezala enpresa garraioen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko desadostasunek zerbitzu gabe utzi zituen Hego Euskal Herriko milaka ikasle. Aiaraldean ere eragina izan zuen garrio enpresen plantoak, modu desorekatuan, ordea, enpresaz enpresa hartutako erabakia desberdina izan baitzen.

Etxaurren Ikastolako familiak izan ziren egoera gehien nozitu zutenak. Garraio zerbitzuaren faltak ikasturteko lehenengo egunak "jasanezin" egin zituela salatu zuten bertako guraso elkarteko kideek. Mobilizazio ugari egin zituzten bi aldeei konponbidea exigitzeko, "enpresen kudeaketa

txarraren ondorioak eta Jaurlaritzaren kontrol eza" ikasle eta familiek ordaintzen zutela nabarmenduz. Bide horretan kotxe karabanak, elkarretaratzeak eta manifestazioak egin zituzten, baita ikastolako ikasleen %90ak babestu zuten greba egun bat ere.

Orozkok ere pairatu zuen garraio falta hori. Orozkoko eskolako berrogei haur egon ziren klase-ira joateko autobusik gabe, baita Audio Institutuko dozena bat ikasle baino gehiago ere. Egoera bideratutakoan, hamaikagarren buruhaustea sortu zitzaizen landa eremuko familiei: Arabako Foru Aldundiak adierazi baitzuen ez zuela igeriketa eskoletara jaoteko garraio zerbitzua bere gain hartuko.

“Enpresen kudeaketa txarraren ondorioak eta Jaurlaritzaren kontrol eza” ikasle eta familiek ordaintzen zutela salatu zuten.

Gauzak horrela, Artekoren Ama Ikastetxeko eta Etxaurren Ikastolako gazteek eskola ordutegitik kanpo jo behar zuten klase horiek hartzera, Aldundiak azaldu baitzuen eskola ordutegi barruko jarduera guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku-menak zirela. Hainbat protesten ostean familiei dirulaguntza eskaintzea onartu zuen Foru Aldundiak.

Jantoki zerbitzua ere ezbaian

Jantokietako zerbitzuaren kalitateak ere zeresan handia sortu du aurtun. Lamuza eskolako jantokia egon da polemikaren erdigunean. Guraso Elkarteak eskutitza igorri zion Hezkuntza Sailburuari eskolako catering zerbitzuaren kalitate eskasa salatzen. Familien ustez Eusko Jaurlaritzak irizpide ekonomikoak lehenetsi zituen zerbitzua esleitzerakoan. Hain zuzen ere, catering enpresak Logroñon prestatzen zuten Lamuzako ikasleen bazkaria, eskolatik 120 kilometrotara. “Enpresaren izena Interneten idaztea nahikoa da beste Autonomia Erkidegoetan eskaintzen duen zerbitzu txarraz ohartzeko”, kexu ziren familiak.



Indarrak baturik

Gatazkaz beteriko urtea izan da honakoa Aiaraldeko hezkuntza publikoko komunitatearentzat. Itxiera mehatxu edota kalitatezko garraio zerbitzu baten aldeko borrokei Eusko Legebiltzarrak osaturiko hezkuntza lege berriaren aurka ere mobilizazio eta ekimen ugari gauzatu dituzte. “Erasotzat” jo dituzten egoera guzti horien aurka borrokatzeko indarrak bildu zituen hezkuntza publikoko komunitateak, eta Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik plataforma sortu zuten, murrizketen eta hezkuntza lege berriaren aurka batasunez erantzuteko.

Maiatzean Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik plataforma sortu zuten, murrizketen eta hezkuntza lege berriaren aurka batasunez erantzuteko.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIK

Mediku zentroa RPS: 314/18

Karmen kalea 13, behea, LAUDIO (Araba) - 946 72 31

Itzal luzea ekarriko duten proiektu ugari mahaigainean



Urteak aurrera egin ahala joan dira plazaratzen eskualdean egin nahi diren parke eoliko eta fotoboltaikoen proiektuak. Hogei azpiegitura foto-voltaiko eta eoliko berriri irekitzen dizkio atak Energia Berriztagarrien

Sektore Planak Aiaraldean. Horren aurrean, mobilizatzeari ekin dio Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak, helegiteak aurkeztuz zein protesta ekimenak antolatuz. Argazkian, Laudion ekainean eginiko manifestazioa.

Hezurren azpiko izenak

memoria eta duintasun bila

FRUCTUOSO LLORENS TOLOSANO, MANUEL ETA SALVADOR DEL AMO JIMÉNEZ, ANAIK, ALEJANDRO GÓMEZ HIDALGO, ALFONSO TENA PRIETO, DOMINGO GALINDO GONZÁLEZ, INOCENCIO GALLARDO REBOLLEDO, BERNARDO RODRÍGUEZ RINCÓN ETA FRANCISCO DE LA CRUZ ORELLANA DIRA AURTEN IDENTIFIKATUTAKO FRANKISMOKO BIKTIMAK

Testua: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus, Urduñako Udala eta Gogora Institutua**

Oso bestelako irudia eskaintzen zuten Urduñako hilerriak duela urtebete. Eskabadora batek kanposantuko zorua altxatu eta frankismoko dozenaka biktimen gorpuzkiak utzi zituen agerian. Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek astebete igaro zuten bertan, hezur zaituak arreta handiz deshobiratuz eta klasifikatuz.

Bi indusketa, 71 biktima

2014an urratutako bideari segida eman zioten horrela Aranzadiko kideek. Orduko hartan hamalau gorpu berreskuratu zituzten hilerretik eta hiriko memoria historikoaren berreskurapenean mugarria ezarri zuten. Datuek, ordea, argi erakusten zuten gehiago behar zirela izan hilerrian lurperatutako kontzentrazio esparruko presoak. Prozesu luzea izan zen bi

indusketen artekoa. Hilerriko nitxoak lekualdatzeko lan korapilatsuari heldu behar izan zion Udalak aurrena. Azkenean, 2022ko abenduan itzuli ziren Aranzadi elkarteko kideak, hiriko boluntarioen laguntzarekin batera, indusketa lanei berriro ekiteko. Guztiek espero zuten arren, bertan aurkitutakoak zur eta lur utzi zituen ikerlari eta herritarrak: 57 hilotz azaldu ziren, ilara luzetan jarriak, lurazaletik zentimetro gutxira lurperatuak.

Urte berria lan eskergarekin hasi zuten Aranzadi eta Gogora Institutuan. Bi indusketek 71 biktimen gorpuzkiak atera zituzten argitara, horiek identifikatzea izan da aurtengo eginkizun nagusia.

Erregistroen arabera 3.891 preso

2014 eta 2022ko indusketek 71 biktimen gorpuzkiak atera zituzten argitara, horiek identifikatzea izan da aurtengo eginkizun nagusia.





Legorretako hilerrian gorde dituzte Bernardo Rodríguez Rinconen hezurak. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren ekitaldian.

igaro ziren Urduñako kontzentrazio esparrutik eta 225 preso hil ziren 1937 eta 1941 urteen artean. Presoen jatorria ere ezaguna zitezaien ikerlariei: gehienak extremadurarrak ziren, gainerakoak Gaztela-Mantxatik, Malagatik eta Kataluniatik ekarri zituzten.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzaren delegazio batek Extremadurako Castuera herrira bidaiatu zuen urtarilean, Urduñako Espetxe Zentralean hildako presoen senideen bila. Izan ere Castueran zegoen kontzentrazio esparru batek atera zituzten Urduñako preso

gehienak. Gogora Institutua arduratu da DNA laginen kudeaketaz.

Fructuoso Llorens

Maiatzean iritsi zen lanen lehenengo emaitza. DNA laginek deshobiratutako biktima baten lehenengo identifikazioa ahalbidetu zuen. Fructuoso Llorens izan zen identifikatutako lehenengo biktima. Jatorriz Badajozeko Fuente del Maestre herriko bizilaguna zen Llorens, eta nekazaritza zuen ogibide. Gerra Zibileko azken urtean, 1939an, etxetik indarrez atera zuten, eta geroztik senide eta lagunek ez zuten haren berririk izan.

Erregistroen arabera 3.891 preso igaro ziren Urduñako kontzentrazio esparrutik eta 225 preso hil ziren 1937 eta 1941 urteen artean.

Extremaduratik Urduñako espetxera eraman zuten eta, ikerketen arabera, 1941eko apirilaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Extremadurako nekazariak lau alaba zituen, eta horietako bat izan zen identifikazioa gauzatu ahal izateko giltzarria: Juana Llorens. Aita etxetik atera zutenean 10 urte zituen Juanak, orain 94 ditu. Iragan otsailean ADN lagin bat entregatu zion Gogora Institutuari, Urduñako gorpuk identifikatzeko kanpainaren barruan, eta horri esker lortu zuten hezurrei izena jartzea. Llorensen ondotik beste lau preso identifikatu zituzten uda aurretik.

Ekitaldia kolunbarioan

Uztailaren 29an ekitaldi hunkigarria egin zuten hilerri aldameneko Duintasunaren Kolunbarioan. Gogora Institutuak ordura arte identifikatutako bost pertsonen gorpuzkiak entregatu zizkien haien senideei.

Manuel eta Salvador Del Amo Jimenez anaiak ziren identifikatutako biktimetako bi. Badajozekoak jatorriz 30 eta 20 urteko espetxe zigorrak ezarri zizkieten hurrenez hurren, "matxinada delitua" egotzita. Alfonso Tena Prieto ere Badajozekoa zen jatorriz, Don Alvaro herrikoa. Castuerako espetxean sartu zuten 1939ko abenduan, eta 1940ko otsailean eraman zuten Urduñara. Urtebete beranduago zendu zen, preso zelarik, 47 urte zituela. Azken identifikatua Alejandro Gomez Hidalgo izan zen. Toldoko nekazariak hamabi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten Toledon eginitako gerra kontseilu

Maiatzean iritsi zen lanen lehenengo emaitza, DNA laginek lehenengo identifikazioa ahalbidetu zuten: Fructuoso Llorens.





Ekitaldi hunkigarria egin zuten uztailearen 31n Urduñako Duintasunaren Kolunbarioan, eta bost biktimen gorpuzkiak utzi zituzten senideen eskuetan.

batean, eta 1939ko abenduaren 5ean eraman zuten Urduñako Espetxe Zentralera.

Lau identifikatu berri

Uda ostean ere identifikazio lanek ez dut etenik izan, eta lau izen gehitu dizkio Gogora Institutuak biktimen zerrendari: Domingo Galindo, Inocencio Gallardo, Francisco de la Cruz Orellana, eta Bernardo Rodríguez.

Bernardo Rodríguez Campanario herrikoa zen jatorriz, nekazaria eta bost seme-alaben aita. Guda Zibilean atxilotu zuten frankistek eta hainbat espetxetatik igaro zen. Urduñako espetxea izan zuen azken geraleku, benetako baldin-

tza makurrek hil zuten 1941eko martxoaren 20an, 60 urte zituela. Rodriguezen familiak, abendu hasieran jaso zituen errepresaliatuaren gorpuzkiak eta Legorretako hilerrian gorde zituen abendu hasieran. Domingo Galindo eta Inocencio Gallardoren gorpuzkiek Badajozera bidaiatu zuten azaroan. Galindok 45 urte zituen Urduñako espetxean hil zenean, eta 91 urteko alabaren DNA lagina funtsezkoa izan da bere hezurak identifikatzeko. Laster lurperatuko dituzte hezur horiek La Moreran, Domingo galindoren jaioterrian. Gallardo, aldiz, 56 urterekin galdu zuen bizia hiriko kontzentrazio esparruan. Orain bere bilboek jaso dituzte aitona zenaren hezurak.

Uda ostean ere identifikazio lanek ez dute etenik izan, eta lau izen gehitu dizkio Gogora Institutuak biktimen zerrendari: Domingo Galindo, Inocencio Gallardo, Francisco de la Cruz Orellana, eta Bernardo Rodríguez.

Familiaren eskuetara iristen azkena Francisco De la Cruz Orellana izango da. De la Cruz 1940ko urtarrilean eraman zuten Urduñako espetxera. Nekazaria zen ogibidez eta bi seme-alaba zituen. 1941eko apirilean hil zen, 68 urte zituela.

Aurrera begira

Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Gogora Institutuak Urduñako hilerrietik berreskuratutako gainerako 62 biktimen identifikazioan dihardu. Urduñako espetxean egondako preso senideen berrogei lagin baino gehiago bildu dituzte orain arte.

Egitasmoak memoria historikoa-
ren berreskurapenaren itsasargi



bilakatu du Urduña. Arlo honetan urte luzez lanean daramte hirian, ordea. Kontzentrazio esparruaren inguruko ikerketak 2011n abiatu zituzten. Geroztik ugariak izan dira memoria historikoa berreskuratzeo egindako ekimen eta adierazpenak.

Oraindik ere badira Urduñako hilerrian lurperatutako frankismo-ko biktimak. Aranzadi egindako kalkuluen arabera hogeita hamar edo berrogei gorpu daude bertan lurperaturik. Gorpu horiek berreskuratzea da hurrengo erronka, horretarako, ordea, azken indusketan egin bezala, hilerriko hainbat nitxo erauzi beharko dituzte eta defuntuak lekualdatu.

Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako kalkuluen arabera 30 edo 40 gorpu daude oraindik Urduñako hilerrian lurperaturik.

Drogen aurkako atxiloketak eta gero zer?

ERTZAINTZAREN FOKUA DROGEN KONTSUMORA, EKOIZPENERA ETA SALMENTARA BIDERATU DA AURTEN ETA ZENBAIT OPERAZIO IKUSGARRI EGIKARITU DITUZTE ESQUALDEAN.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Ertzaintza**

2023an Aiaraldean bost lagun atxilotu eta beste hamar ikerketapean utzi ditu Ertzaintzak drogen trafikoari lotuta. Berez, kopurua ez da bereziki azpimarragarria, baina bai poliziak berak eman dion garrantzia. Aipatu beharra dago ikusgarritasun hori ez dela Aiaraldean soilik gertatu, eta EAE osoan zabaldu dituela tankerako albisteak poliziaren prentsa kabinetek.

Edonola ere, fenomeno honean bi kasu oso ezberdin banatu behar dira. Alde batetik, Ertzaintzak presioa aregotu du espazio

kolektiboetan drogen kontsumoari zein salmentari aurre egiteko. Horrek isla izan du, bereziki, zenbait taberna eta gazte lokaletan, zeinetan ertzainek sarekadak egin dituzten "txikizkako droga-salmenta detektatzeko eta horren kontra jarduteko".

Kasu batzuetan droga saltzailak salatuta dituzte (Amurrion zazpi), baina, oro har, kalamua edo bestelako substantzien kontsumoagatik isunak jarri dituzte eta ez dute inoiz inor atxilotu horrelako operazioetan. Esaterako, Amurrion sei herritar salatuta zi-

tuzten martxoaren amaieran eta beste zortzi Laudion otsailan (droga salmentagatik, aldiz, bi). Horrez gain, miaketa gehiago egon dira, eta batzuetan tabernen bezeroei exijitu diete, autoen giltzak gainean izanez gero, ibilgailuak irekitzeko barruan bilaketarekin jarraitzeko.

Gainera, isunak ez dira hor eten eta, esaterako, Ernaiko gazte bati seiehun euroko isuna (Hiritarren Segurtaun Legea baliatuta) ezarri zioten sarekadaren erdian laguntza eskaintzeagatik miatuak izaten ari ziren gazteei.



Drogen aurkako hainbat operazio esanguratsu egin ditu Ertzaintzak aurtuen eskualdean.

Esku-hartze horien proiektio publiko faltarekin alderatuta, bestelako atxiloketak gertatu dira Aiaraldean, zeinak oihartzun handia izan duten hedabidetan.

Arrastatu sorta horren lehenengo protagonistak Belandiako baserri batean hiru tona kalamu kuku zituen. Kopurua, dudarik gabe, arreta deitzeko modukoa zen, baina deigarria izan zen akusatua epailearen aurretik pasa ondoren, aske geratu zela karguekin. Zarata handia egindako operazio horrek, hain zuzen, puntu beltz izugarria zeukan, oraindik argitu ez dena, alegia. Izan ere, atxilotutako he-

rritarrek argudiatu zuen kalamu hori ez zuela THCrik (hau da, eragin fisiko zein psikologikoa duen osagaia), zehazki, CBD marihuana zela biltegian zuena. Landare mota hori, berez, ez da legez kontrakoa eta eskualdeko zenbait tabako-dendatan eskuratu daiteke inolako arazorik gabe, salmenta ez baitago debekatua.

Gainerako lau atxilotuak eta ikerketapean geratutako beste bi lagunak urrian izan ziren salatutak. Horien adina 37 eta 67 urteren artean dago eta marihuana 1.500 landare topatu zituzten guztira. Amurrion, Laudion eta Okondon izan ziren hiru opera-

Ertzaintzak drogen salmentaren kontrako presioa areagotu du azken urteotan.



Kalamuaren aurkakoak izan dira eskualdeko polizia operazio ikusgarrienak.

zioak eta inork ez bazuen kartzelan bukatu ere, akusazioak ez dira arinak. Berez, osasun publikoaren kontrako delituak egozten dizkiete eta zigor horiek hainbat urteko espetxe zigorrak ekartzen dituzte, baita ondare eta jabego guztiak arriskuan jartzea. Hori guztia marihuana landatu izanagatik, hau da, herrialde batzutan jadanik legezkoa den droga bat (kafea, tabakoa edota alkohola bezala) ekoizteagatik.

Hortaz, galdera da, zer emaitza erreal utzi dituzte azken atxiloketa horiek titularretatik harago. Printzipioz, kalamu hori guztia merkatu beltzean egon behar-

Atxilotu ugari egon dira aurten eskualdea drogen kontsumo eta trafikoari lotuta, eta kalamuaren aurkako operazio ikusgarriek ezaugarritu dute urtea.

ko balitz, hori ere frogatzeke baitago, inguruan, eskualdean, begien bistakoa da kalamuaren kontsumoak ez duela behera egin 1.500 landare harrapatzeagatik. Eta hori ez bada lortu, orduan galdera da zein den atxiloketa horien helburua. Hau da, norberaren kontsumoa bermatzeko marihuana landatzen duten kontsumitzaileak izutzea? Ez du horrek, hain zuzen, merkatu beltza eta drogen mafia laguntzen? Eta ez dira droga ilegaleen esparru horiek kontsumoaren alderik arriskutsuenak? Hau da, indarkeria eta ustelkeria sustatzen dituztenak? Zer lortu du Aiaraldeko bizilagunak atxilotzea eta hedabideetan agertzea?

Gauzak horrela, irudi ikusgarriak uzten dituzten atxiloketa horiek ez dira drogen aurkako gerraren garaipenaren ikur, baizik eta politika errepresibo horien porrotaren adibide, ez baitute kontsumoa oztopatzen. Gehienez, produktua garestitzen dute eta psikosia pizten dute, gehienbat, kontsumitzaileen artean. Argudio horrek ez du zuritu nahi edozein drogen errealitate kaltegarria, gutxienez potentzialki, baina bai kritiko izatea erakundeen erantzunarekin. Hamarkada ugaritan zapalkuntza politikek ez dute kalamuaren kontsumoa gelditu. Are gehiago, gero eta arruntagoa da. Onartuta hori ezin dela ekidin eta aintzat hartuta, kontsumoa bereziki arriskutsua dela nerabezaroan edota gaztaroan, substantzia legez kanpo uztea ezin da konponbidea izan, merkatu beltzean ez baitago adin kontrolik.

2023ko atxiloketa ikusgarriek ez dute kalamuaren kontsumoa gelditu edota murriztu.



Tren zerbitzua

gero eta okerrago
Aiaraldean

RENFE ETA ADIFEKO SINDIKATUEK ZEIN ERA-BILTZAILEEK DUELA URTEAK SALATZEN DUTE C-3 LINEAKO ZERBITZUAK EGITEN DUELA OKERRERA. AURTEN MUGARRI BERRIA JARRI DUTE.



Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Pandemiak begien bistan utzi zuen Bilboko aldirikoen tren zerbitzuak okerrera egiten duela dramatikoki, baina erakunde publikoek, esku hartu ordez, zerbitzuaren gainbeheran sakondu dute utzikeriaren bitartez. Adierazpena ez da iritzia, baizik eta neurtu daitekeen errealitatea. Hain zuzen, enpresako langile erakundeen datuen arabera, 2023ko udan (soilik ekaina eta irailaren artean) 6.230 gertakari jazo ziren Bizkaiko aldirikoen trenetan; Urduña, Muskiz eta Santurtzi hiriburuarekin lotzen duten ibilbideetan, alegia. Zenbakiak ez

dira estatistika hutsa eta bidaia-riengan eragin ugari izan dituzte, mota anitzekoak, baina beti ezatseginak. Batzuetan trenak ez da agertzen, besteetan nabarmen beranduago betetzen du ibilbidea eta ez da ahaztu behar maiz berogailua edota aire egokitua matxuratzeko direla eta trenaren bagoiak labe erraldoiak bilakatzeko direla.

Gainerako urtaroen informazio zabaldu ez badute ere, arazoak ez dira horren kritikoa izan, agian, baina bai etengabeak, erabilzaileen amorrua edo apatia eta

etsipena biderkatuta. Izan ere, tren batek kale egiteak jende askori ekartzen dio berandu heltzea lanera, medikuarengana edota ikastetxera.

Amaierarik gabeko endekapen horretan, dena den, mugarrak azaldu dira 2023an. Hasteko, hainbat bidaiarik exijitu diote Renferi, sinadura bilketa bidez, asteburuetakoko gaueko zerbitzuak berreskuratzea. Horrez gain, Urduñako herritarrek ere desabantaila pilo pairatu dituzte. Berez, maiatzean Saratxoko zubian abiatu zituzten lanak eta horrek,

lehenik eta behin, tren kopuruen murrizketa ekarri zuen. Zehazki, Bilbotik ateratzen zen azken trenak kendu zuten, eta zenbait herritarrek uko egin behar izan zioten garraio publikoko zerbitzua erabiltzeari, gauzez etxera itzultzeko aukerarik gabe, autoa hartzera behartuak izan baitziren. Hori gu-

txi balitz, Renfe eta ADIFen arteko koordinazio arazoak ere egon dira. Abenduan, adibidez, iragarri zuten autobus zerbitzua eskainiko zutela Saratxon egin behar zituzten obren harira, eta gero ez zuten indarrean jarri, lanak bertan behera geratu baitziren data horietan.

Arazo horiek guztiak konpontzeko saiakerak oso eskasak izan dira enpresa publikoen aldetik eta sindikatuek azaleratu dute Renfek "arazo tekniko" mozorrotzen duena badirela egiturazko gabeziak. Hau da, zehaztasun berezirik gabeko argudio horrek estaltzen dituela administrazioan

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak,
lorenzaintza eta garbiketa

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net



Raul Fuentes eta Gonzalo Faustmanen ama eta alaba trenen harrapaketan hil ziren, eta bi senideak borrokan daude gertatutakoa argitzeko.

gertatzen ari diren prozesuak; lanen pribatizazioa, langile eta funtsezko inbertsioen falta. Behar horiek isla izugarria dute zerbitzuan. Lehenik eta behin, trenak oso zaharrak direlako eta arazoak daudelako konpontzeko. Alde batetik, langile nahikorik ez dagoelako horretarako tailerretan. Bestetik, konponketerako piezak eskuratzea gero eta zailagoa delako, modelo ia obsolutoak baitira, 30 urtekoak. Horri gehitu behar zaio gidariek dagoen hutsunea. Azken urteetan, hainbat tren gidarik hartu dute erretiroa Renfen, belaunaldi oso batek agur esan duelako. Hala ere, enpresak ez du behar beste oposizio deitu dau den plazak betetzeko.

Ondorioz, sei hilero, hau da, promozio berriak eta destino aldaketak erabakitzen direnean, kopuruak behera egin dezake.

Horrekin batera, aintzat hartu behar dira oporrak eta gaixotasun bajak, egoera erabat prekarioa sortuta zerbitzuari dagokionez. Azkenik, ezinbestekoa da aipatzea betikotu diren bestelako salaketak. Eskualdean behin eta berriro Maria Luisa Goikoetxeak mahai gainean jarritakoa da irisgarritasuna, aulki gurgilduna duten erabiltzaileek ez dute tresnarik bere kabuz garraio publiko mota hau hartzeko, eta arazoa linea osoan ematen da.

Enpresen politika orokorreari lotuta, bada etsigarria ere trenen harrapatutako herritarren heriotzekin gertatzen dena. Berez, Aiaraldeak aurten elkarrizketatu ditu Raul Fuentes eta Gonzalo Faustman. Euren senideak (ama eta alaba, hurrenez hurren) harrapatu zituen tren batek eta biek esperientzia bera izan dute, istri-

puen artean urteak igaro badira ere: Renfek eta ADIFek hildakoei leporatzea ezbeharraren errua, enpresen ardura falta eta bizitzak arriskuan ez jartzeko bitartekoen inbertsio falta.

Gauzak horrela, ez ha harritzekoa C-3 linearen zerbitzu tamalgarría Espainiako Senatura heldu izana. Zehazki, Maria Luisa Goikoetxeak EAJren eskutik eraman zuen irisgarritasun faltaren auzia erakunde horretara, berak jasotzen duen tratua ez baitute aulki gurgilduna duten erabiltzaile guztiei zabaldu. Abenduan, aldiz, EH Bilduko senetariak baliatu zuten Senatua lau galdera egiteko Espainiako Gobernuari, argitu zezan zein den benetako erradiografia Urduñako linean eta azaldu zezan zein bitarteko bideratzen ari diren hori guztia konpondu ahal izateko, baldin eta hori egiten ari bada.



Josune Irabien Marigorta
Emakundeko idazkari nagusia

Indarkeria matxista armairutik atera beharrekoa

Orio, Gasteiz, Iruñea... Euskal Herriko leku horietan emakume bat hil dute urte honetan. Zergatik? Emakumea izateagatik eta indarkeria matxista jaso zutelako. Hitzik gabeko jazoera gordina benetan.

Indarkeria matxista egungo kontzeptua da. Oso barneratuta dagoen elementua, zoritxarrez beti eraso/indarkeria matxista agerian denean benetako egoera larria ezkututzen du. Indarkeria honek emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka puskatzen du hamaika pusketatan. Horretara, arauak aldatuz doaz etengabe, ezinbestean, konponbideak bilatu nahian. Gizarteak eta arauak eskutik joan behar dute.

Arauak berdintasuna eta emakumezkoen ahalduntzea bilatzetik haratago, bestelako neurriak bilatzen ditu. Hainbat eta hainbat arlo dira lantzekoak direnak: gizarte osoaren sentsibilizazioa, erakundeen eta eragileen arteko koordinazioa, gazteen babes eta horiek babesteko koordinazio-lana, erreparazioa... zerrenda luzea eta ezinbestekoa... baina zer demonstre gertatzen ari da?

Indarkeriaren jatorria bilatu beharko genuke eta horri erreparatzean ohartuko ginatke halako jatorri halako indarkeria direla. Eta gizartearen egituran du eragina. Zaila baino zailagoa da aldaketa egitea zer den ulertu ezean.

Euskadi mailan, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegitzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko Legearen aldaketa egin zen. Beharrezko aldaketa zalantzarik gabe.

Besteak beste, kapitulu osoa ekartzen du (VII.a) non indarkeria matxista agertzen den, hori eta beharrezkoak diren elementuak, erreparazioa, esaterako. Zein inportantantea den benetan emakume batentzat bigarren biktimizazioa ez izatea, behar diren baliabide guztiak eskura izatea eta azkar batean erditea.

Bestelako arau bat ere bada, *Bai da bai* lege eztabaidatua, hain zuzen. Baina, eztabaida horren baitan, indarkeria sexualak jasotzen ditu eta ondo baino hobeto definitzen ditu, onartzen ez diren sexu eraso guztiak jasotzen dituelako eremu pribatuan zein publikoan. Haratago, esparru digitala ere jasota dago. Indarkeria sexuala ere bada, emakumezkoen mutilazio genitala, behartutako ezkontzak, sexu-konnotazioko jazarpena eta sexu-esplotaziorako salerosketa. Izena ipintzen zaie bolo-bolo ikusten diren eraso sexista horiei eta horien osteko ondorioak ere barne hartzen ditu.

Oso aipu interesgarria ekartzen du legeak, eraso sexuala jasotzen duten biktimiei 24 orduko arreta-zerbitzuak egitea ekartzen baititu. Beharrezkoak eta eraginkorrek dira. Euskadik berehala izango ditu Gasteizen, Bilbon eta Donostian.

Eta administrazioek etxerako lanak egiten dituzten bitartean, gizarteak ere bereak egin beharko ditu. Batetik, guztion lana eta inplikazioa dela esanez eta, bestetik, ozenki ateraz emakume batek eraso jasaten duen bakoitzean. Gizarteak indarkeria matxistari eta sexualari ezetza biribila esan behar dio. Guztion lana eta ardura da. Ez ezetz da beti!



Lau urteko prozesuaren amaiera

Irailan atxilotu zituzten Galder Barbado eta Aitor Zelaia Gasteizko Gobernu Militarrean. Zaballako espetxean daude uneotan, Espainiako Entzutegi Nazionalak ezarritako lau urteko zigorra betetzen, "material

lehergarria helburu terroristekin gordetzea" leporatuta. Lau urtez luzatu da bi gazteen aurkako prozesu judiziala, baina euren aldeko elkartzun kanpainak ere dinamika indartsu ugari jarri ditu martxan.

Udal hauteskundeek

osagai berriak utzi dituzte Aiaraldean

EAJ ETA EH BILDUREN ARTEKO LEHIA POLITIKOAK EZAUGARRITU ZITUEN MAIATZEKO UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK ESKUALDEAN, BAINA TALDE POLITIKO INDEPENDENTEEN ERABAKIEK ERE IZAN ZUTEN ERAGINA AZKEN EMAITZAN.



%5,32 egin zuten behera parte hartzeak 2019ko datuekin alderatuta.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Maiatzaren amaieran izan ziren udal hauteskundeak eta Aiaraldean bi alderdien arteko pultsua gainditzen dituzten berritasunak ekarri zituzten. Izan ere, EAJ eta EH Bilduren arteko lehiak (are gehiago behin ADIE taldea desagertu dela) egoera berriak eragin zituen, gehienbat, talde independenteen gaitasunak borroka politikoa alde batera edo bestera mugitzeko, EAJ eta PSE-EEren arteko aliantza behin finkatu dela. Horrela, ezusteak Aiaran eta Laudion izan ziren. Sorpresa handiena Pruden Otegi berak eraman zuten.

Hain zuzen, boza gutxigatik bazen ere, EH Bildu hirugarren indar babestua izan zen hauteskundeetan, eta Aiara Batuzekin aliantza egiteari uko egin ostean, ematen zuten Gentza Alamillo alkateak hirugarren aldiz edukiko zuela kargua. Edonola ere, Aiarako talde independenteak aldaketaren aldeko hautua egin zuten (ulertuta herritarrek hori eskatzen ziotela) eta Otegi eman zion alkatetza. Behin harridura gaindituta, EH Bilduk Aiara Batuzekin adostu zuten akordioa Udala gobernatzeko, hiru zinegotzirekin lan zaila

baitzuen aurrean koalizioak. Ez horren bitxia, baina ildo bere-tik, EH Bilduk eta Omniak osatu zuten udal gobernu taldea Laudion ekainean. Koalizio independentea gailendu zen hauteskundeetan bozka gutxi batzuegatik eta horrek jokoan sartu zuten Omnia, zeinak adierazi zuten gobernatuko zuela, bai EH Bildurekin zein EAJrekin. Batzuekin zein besteekin negoziazioak amaituta eta omniakideen bozkekin, independenteek erabaki zuten euren indarrak EH Bildurekin batzea.

Gainerako udalerrietan (salbu

Arakaldon, non zerrenda independente batek hartu duen alkatetza), lehia politikoak EAJ eta EH Bilduren arteko disputaren gidoia jarraitu zuen. Orozkon EAJk hartu zuten ADIEk utzitako alkatearen makila, Amurrion EAJk jarraituko du alkatetzan, PSE-EEren babesarekin, Okondon Jon Escuzak gehiengo osoa eskuratu zuen jeltzaleentzat eta Urduñan EAJk berreskuratu zuen erakundea. Artziniegan eta Arrankudiaga-Zollon EH Bilduk berritu zituen gehiengo osoak. Artziniegan bigarren aldiz gobernatzen du Joseba Vivancok eta eginkizun bera izan du Txutxi Ariznabarretak.

Ezusteak Aiaran eta Laudion izan ziren. Sorpresa handiena Pruden Otegi berak eraman zuen, Aiara Batuzekin botoekin Aiarako alkate bilakatu zenean.

Laudioko

2023ko mugarriak

Udalaren balantzea

LEGEALDI BERRIAK ALDAKETA UGARI EKARRI DITU LAUDIOKO UDALAREN JARDUNERA. TOKIKO ERAKUNDEAK MUGARRI GARRANTZITSU UGARI EZARRI DITU, DATOZEN HILABETE ETA URTEETAN GARATZEN ETA ERROTZEN JOANGO DIRENAK.



Herritarren parte hartzea jomugan izango duen legealdi berria abiatu da Laudion. Ohiko auzo-batzarretatik harago, aurten auzo-kontseiluak osatu dira Latiarron, Aretan, Landaluzen, Arrañon, Gardean, Ugarten, landa eremuan eta erdigunean.



Gobernantza feminista Udaleko egitura osoa hartuko duen zeharkako politika bilakatu da eta Laudioke emakume askotarikoaren kontseilua izango du bere jardunaren oinarri.



Abastos plaza eraberritzeko proiektua lizitazio bidean dago eta, aldi berean, egitasmoa hobetzeko proposamenak bertan txertatzeko parte hartze prozesua ere garatu da herritarrekin eta lehen sektorearekin.



Ordenantza fiskalek Ondasun Higiezinaren Zergaren hobari taula berria ahalbidetuko dute, onuradun izateko errenta muga bikoiztu delarik.



**Osakidetzak
Laudion
anbulatorio
berria eraikitzeko
obra lizentzia
bideratu da.
Berton kokatuko
diren zerbitzuak
ahalik eta
zabalenak izatea
eta ekipamendu
berriaren
irisgarritasuna
hobetzea izango
dira erronka.**



**Kooperazioa sus-
tatzeko bidean,
Guatemala eta
El Salvadorreko
emakumeen bo-
rroka ezagutarazi
duten ordezkariak
hartu ditugu Lau-
dion. Horrez gain,
Palestina herriare-
kiko elkartasuna
adierazteko ekime-
nak eta Euskal Fon-
doak Nikaraguan
garatu behar duen
proiektu baterako
laguntza ere eskai-
niko ditu Udalak.**

**Bilgunea osatu da
herriko haur eta
gazteek jaietako
egitarau eredu
berriari beraien
proposamenak
eta ideiak erabaki
eta garatzeko.**



**Haurrentzako
azpiegitura
berriak
inauguratu
dira. Aldai
plazako
jolasgunea
estali da.
Lamuza
parkekoa,
aldiz, erabat
berritu da.**



**Udalbatzak aho
batez egin du
bat Glavistako
langileek beraien
lanpostuen
defentsan aurrera
daramaten
borrokarekin.**



“Herriarrei parte-hartze espazioak zabaltzen jarraituko dugu, Udala laudioarren bidelagun izatea nahi dugu”

terren, Udalaren gastu finkoa eta inolako eztabaidarik behar ez duten partidak barne bilduko ditu. Bitartean, gainontzeko eztabaida hori herrira zabalduko dugu. Uda-berrian, behin likidazioa eginda, prozesu parte-hartzaile horretatik definitutako proiektuak barne bilduko dituen bigarren aurrekontu bat osatuko dugu.

Zer indartuko dugun edo zer ez, abian dagoen ariketarik definituko du. Guzti hau 2022an onartutako parte-hartze araudian oinarrituta dago. Araudi horrek jasotzen du aurrekontuen osotasunak parte-hartzailea izan behar duela. Orain arte aurrekontu partida osoaren %0,1 ziren “aurrekontu parte-hartzaileak” deiturikoak. Guk 25 milioi euroen gainean egin nahi dugu ariketa.

Abasto Plazak sortu du udal-gobernu eta oposizioaren arteko lehenengo hika-mika.

Penaz hartu genuen EAJren jarrera alarmista. Soberan ezagutzen zuten Europako Funtsen kudeaketak ia ezinezko baldintzak ezartzen zituela. Ez dugu sentsazionalismoan errotzeko inolako asmorik, ez dugu eztabaida hori elikatuko.

Guk bideorri bat markatu genuen egoera iraultzeko. Oso interesgarria izaten ari da prozesua, oraindik ez dakigu zeintzuk izan diren ondorioak, baina interesa nabaria da merkatarien, lehenengo sektorearen eta herritarren artean, oso emankorra. Abasto Plazari balio erantsi bat emango dion prozesua

ALDAKETAREN BEHARRA ALDARRIKATU ZUEN AINIZE GASTAKAK HAUTESKUNDE KANPAINAN, ETA, ALKATETZA ESKURATUTA, ALDAKETA HORI GAUZATZEARI EKIN DIO. UDALA HERRITARREN BIDELAGUN IZATEA DU XEDE.

Testua eta argazkia: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Duela sei hilabete izendatu zintuzten Laudioko alkate. Nola-koak izan dira hilabete hauek?

Oso emozionanteak. Inbestidura eguna oso-oso intensoa izan zen, eta ordutik aurrera egun guztiak izan dira oso biziak. Hilabete potenteak izan dira; Martxan dagoen itsasontzi batera igoztea bezalakoa da, baina uste dut lortu dugula.

Nolako izan da aurreko gobernuarekin egindako botere-aldaketa prozesua?

Gogorra izan da egia esan. Esan bezala kudeaketa ez da gelditzen.

Herri hau ez da txikia, eta udal-kudeaketa handia da. EAJren udal-gobernutik jaso genuen komentario bakarra pasilloetan jaso genuen: "teknikariek egin zitzatela traspasoak". Eskatu ondoren, bileratxo bat egitea lortu genuen, baina oso informala izan zen. Titularrak eman zizkigun soilik, eta ez dakizuna ezin duzu galdu. Hain zuzen ere, hori da behar duzuna, ezagutzen ez dituzun gauzak jakitea. Zailtasun handia suposatu du guretzako. Ez ginen modu oldarkorrean atera gertatutakoa salatzeraz; elkarlana eta elkarbizitazarako oinarriak ego-

tea da gure asmoa. Udalera sartu eta lehenengo gauza oposizioaren aurka jotzea izatea ez genuen positiboki baloratzen. Hori bai, ezin da berriro gertatu. Legealdi honetan baldintzak jarriko ditugu etorkizunean Udalak behar duen traspasoa nolako izango den arautzeko.

Aldaketa aldarrikatu zenuten kanpainan, eta auzo-asanbladetan jarri duzue lehenengo mugarrria. Zein da asmoa?

Auzo-asanbladetan jarri dugu abiapuntua. Guretzako oso espazio inportanteak dira; Udala eta auzoak

elkartzeko oinarriko espazioa dira. Gainera, Udala da auzoetara lekualdatzen dena. Hortik abiatuta ari gara auzo-kontseiluak sortzeko lanetan. Kontseilu hauek nahi dute izan auzoen eta Udalaren arteko harreman egonkor eta dinamikoa bilatuko duten espazioak. Auzo-asanbladetatik ateratako proposamen eta kezken jarraipena egin ahal izateko tresnak izango dira. Hurrengo urratsa herri-kontseilua eratzea izango da, hots, herri ikusmira izango duen foroa. Bertan auzo-kontseiluak ere izango dira ordezkatuak, baita gainerako foro sektorialak ere.

Funtsean herri-egitura bat sortzea eta politikoki legitimatzea da gure asmoa, erabaki ahalmen handia

izango duena. Egitura horri behar duen sendotasuna emango diogu, denboran iraun dezan.

Aurrekontuak definitzea duzue hurrengo urratsa.

Aurrekontuen ereduari buelta bat eman diogu. Orain arte aurrekontuak batzuk ziren eta hortik partida bat ateratzen zen zeinari parte-hartzaile titulua ematen zitzaien. Gure ustez aurrekontuen osotasuna izan behar da parte-hartzean oinarritua. Horretan gaude. Auzo-asanbladetan ere hasi gara aurrekontuen praktika parte-hartzailea proposatzen.

Nola egingo dugu hori? Urtarrilean martxan jarriko den aurrekontua tekniko izango dira, nolabait esa-

izango da. Hau izango da plaza horrek bere nortasuna berreskuratzeko bidea.

Glavistaren egoera ere izan da aurtengo mugarrietako bat.

Lehenego sei hilabete hauek bete betean maraktu ditu Glavistako lan-gatazkak. Inbestidura plena ekainaren 17an ospatu genuen, 19an hasi ginen lanean eta San Juan garai horretan martxan hasi behar zuen lantegiak. Gure lehenengo astean apurtu zen akordioa. Lehenik eta behin Udal bezala lan-gatazka honen aurrean mantendu beharreko posizioa zein izan behar zuen adostu genuen. Instituzio bat ginen heinean ulertu genuen eskura ditugun ate guztiak jo behar genituela, eta enpresa ba-

tzordearentzako informazio iturri jarraitu eta fidagarria izan behar ginela. Komitearen bidelagun izan behar ginen prozesu honetan. Glavistako lan-gatazkaren inguruko informazioa lortzea oso zaila izan da, kontzeptualki ere oso konplexua. Iruditzen zitzaigun jasotzen genuen informazio hori ahalik eta modu errealean eta argiaren traslada behar genielangileei. Horretan ibili gara, ez da erraza izan, emozionalki ere oso gogorra izan da, eta izaten ari da.

Nolakoa aurreikusten duzue 2024a?

Mugarri desberdinak ditugu zehaztuta datorren urterako. Alde batetik, HAPOaren plan berriarekin jarraitzea izango da gure zereginetako

bat. Honetan ere, bestelako ikusmiratzen bat eskaini nahi dugu, prozesua herrira trasladatuz. Oso inportantea da herriak HAPO berriaren definizioan parte hartzea, etorkizunean zer nolako Audio nahi dugun guztion artean zehazteko.

Bestetik, Kultur Etxearen obra amaituta, espazio berriaren kudeaketa nolakoa izango den zehaztea izango da ere urteko erronka. Beste espazio batzuen erabilera eta kudeaketa ere definitu beharko dugu datorren urtean: zahar egoitza zaharrarena edota etorkizuneko Antzokiarena. Azkenik, herritarrei parte-hartze espazioak zabaltzen jarraituko dugu. Udala audioarren bidelagun dela sentiarazi nahi diegu.



Zer gertatuko da funts ekonomikoekin?

Ander Añibarro Maestre
Laudioko EAJ-PNVko zinegotzia

Aurreko legegintzaldian hainbat funts ekonomiko lortu ziren Audio Udaleko gobernu taldearen eta udal langileen lanari esker. Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Espainiako Gobernua edota Europako Batasunetik funts ekonomiko ezberdinak lortu ziren, Laudion ezinbestekoak diren inbertsioak egiteko.

Orain dela hilabete batzuk jakin genuen, gaur egungo udal gobernu taldeak 1,8 milioi euroko dirulaguntza bati uko egingo ziola. Dirulaguntza hori, besteak beste, Abasto Plazaren berrikuntzarako bideratuta zegoen. Obra hori ez ezik, beste 13 ekintza ezberdin bideratuko ziren diru horrekin komertzioa berpizteko ahalegina egiteko. Duela aste batzuk, Udalak prentsaren bitartez beste gauza bat jakinarazi zuen, 1,8 milioi euroko dirulaguntza ez zuela itzuliko eta inbertsioari ekingo ziola. Harriduraz hartu genuen berria, baina zergatik norabide aldaketa hori? Zer gertatu da erabakiz aldatzeko? Erabakia hartu baino lehen ezin zitekeen zer edo zer egin?

Udal gobernu taldeak norabidea galduta dauka. Audiok bat-bateko erabaki aldaketekin garesti ordainduko du. Audiok pairatzen duen egoerarekin ez dut uste, dirua galtzeko moduan dagoenik. Sei hilabete pasatu dira EH Bilduko eta Omniako udal gobernu taldeak udaletzeko lema hartu zutenetik eta oraindik ez dakigu zein izango den beraien norabidea eta, ondorioz, Audioren norabidea. Aurreko legegintzaldian lortutako beste funts ekonomikoekin zer gertatuko da? Espero dezagun Audioko onuragarriak diren erabakiak hartzea.



Bista Laudion jarrita

Jakinda Artaraz Martin
OMNIako zinegotzia

Lehen aldiz, gure hamabi urteko ibilbidean, legegintzaldi honetan EH Bildurekin partekatzen dugu gobernu, eta horrek gure lan egiteko modua aldatzea dakar. Lehen hilabete hauek gure burua kokatzeko izan dira, ez da erraza beste batzuek eramandako Udal baten agintea hartzea, hainbat gai martxan egonda, eta alde batera utzi ezin diren hainbat eguneroko gauzarekin. Hala ere, lehen egunetik, erronka berri hau onartu dugu Audioren alde modu aktiboagoan lan egin nahi izan dugunon gogo biziarekin. Legegintzaldi honetan, parte-hartzeak eragin handia izango du (OMNIaren ardatz nagusia), auzoko batzarretan eta auzo-kontseiluak sortzean ikusi ahal izan den bezala. Gure ideia da, beti esan dugun bezala, audioarrekin entzute aktiboa egotea.

Hilabete hauetan, audioarrei mesede egiten dieten ordenantza fiskalak onartu ditugu. Horren adibide nagusia (bakarra ez bada ere) OHZren hobariak dira. Orain, askoz bizilagun gehiagok eskatu ahal izango dituzte, eta hobari-ehunekoa ere handiagoa izango da. Honako gauzak, berez, aurreko gobernu taldearekin alderatuta, ezberdintasun handia markatzen du jada.

Gainera, proiektu historikoak aurrera ateratzeko erronka handia dugu (adibidez, Hornidura Plaza) eta Audio-rako hain beharrezkoak diren HAPO edo Mugikortasun Plana bezalako plan estrategikoetan aurrera egiteko. OMNIatik egunero jarraituko dugu bizilagunen eta batzen gaituen Audioren alde.



Distiratzten duen guztia ez da urrea

Loli Muriel Aroca
Laudioko PSE-EEko zinegotzia

Urte honetan PSE-EEK utzi egin dio bere herriarekin konprometiturik eta kontu osasuntsuak zituen udalbatzaren buruan egoteari, eta gauzak guztiz kontrara egiten dituen gobernu-talde berri bat jarri da. Politika egiteko era zorrotz, zentzudun eta sozial batetik gardentasun gutxi kudeaketa batera igaro gara, konpromisorik ez duena gure herriaren garapenarekin, diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzen ari dena eta proiektuak bazterrerari utzi eta independentismoaren handinahikerietan zentratzen ari dena, gure auzokideen benetako beharrek zirikusi gutxi dutenak.

Herritarren parte-hartze partzial eta manipulatuaren aitzakia pozoitsuarekin saiatzeko dira ezkutatzeko euren hanka-sartze eta erabaki okerrak.

Orain dela zortzi urte, gure Udalaren egoerari buelta eman beharrean egon ginen udalerrria engainura eramana zutelako. Eta, berriz ere, ikusten dugu sartu den korporazio berria nola ari den inbertsioak eta programak eteten, aurreko taldearen kudeaketa bikainaren arrastoa ezabatuz beste helbururik gabe... ezerren truke.

Laudioko PSE-EEK oposiziotik guztion mesederako lanean jarraitzeko asmo irmoa du. Ez dugu utziko kultura eta gure adinekoen eta gazteen ongizatea zapuzten, horren kontra egiteko ahotsa altxatu gabe.

Aingurak

Amurrio ainguratzen

Berdintasunerako V. Plana

AMURRIOKO UDALA OSATZEN DUGUN TALDE POLITIKO GUZTIEK APUSTU ERABAKIGARRIA EGIN NAHI DUGU BERDINTASUN-POLITIKAK UDAL-KUDEAKETAREN ERDIGUNEAN JARTZEKO.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak udalerriko bizitzaren eremu guztietan benetako berdintasuna bermatzeko hartuko diren neurriak eta abian jarriko diren ekintzak biltzen ditu.

AINGURAK mugimendu feministak, eragile sozialek, politikoeak eta erakundeek egindako borroka eta lanarekin eraikitako zimendu eta oinarrietatik sortutako plana da. Ezinbesteko lana da gaur-gaurkoz oraindik ere mundu osoan zehar dauden diskriminazio eta opresioak ikusarazteko eta horiek errotik ateratzeko.

AINGURAK lau ardatzetan oinarrituta dago:

1. GOBERNU ONA

Amurrioko Udalaren politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

2. EMAKUMEEN ETA LGTBIQA+ KOLEKTIBOAREN AHALDUNTZEA

Maila pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan emakumeen, nesken eta LGTBIQA+ kolektiboaren ahalduntzea babestea eta sustatzea.

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Denentzako gizarte-eredu bidezkoagoa, jasangarriagoa eta berdintza-leagoa eraikitzea, eta, horretarako, Amurrioko eragile sozialak, politikoak eta ekonomikoak inplikatzeko.

4. EMAKUMEEN ETA LGTBIQA+ KOLEKTIBOAREN KONTRAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Prebentzioa lantzea eta indarkeria matxistatik bizirik irten direnak modu integralean artatzea, erabat berreskuratutako arte.

Planak, Udalak berdintasunaren alde duen konpromiso sendoa erakusten du. AINGURAK, gero eta libreagoa eta berdintasunezkoagoa den gizarte baten alde modu aktiboan lan egiteko apustu estrategikoa da. Amurrioko Berdintasun Plan berriak izen propioa du: AINGURAK. Izen horrek erronka horren garrantzia eta konpromisoa islatzen ditu. AINGURAK mugimendu feministaren borrokatik eta lanetik, eta eragile sozial, politiko eta erakundeen aldetik, eraikitako oinarri sendoetatik sortutako plana da. Baina etorkizunerako deia ere bada,

guztionean berdintasunerako oinarri sendoak sortzen, eusten eta zaintzen jarraitzeko, agenda pertsonal, sozial eta politiko partekatu berria.

Sinbolo bat ere bada, pertsonak eta kolektiboa ainguratzeko-puntu nagusi gisa islatzen ditu; pertsonen arteko lokarria; eskuak kolore desberdinetan elkartuta, gizarte plurala eta anitza; heldulekuak, taldeari indarra ematen dioten aingurak, oinarriak, dira; eta Guk-en eskultura gogorarazten duen forma, elkar besarkatzea eta lotzea.



AMURRIO AINGURATZEN

Amurrioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana

CONSTRUYENDO BASES FIRMES

V. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Amurrio

2022-2025



Gure identitateari eusten

Amurrio euskaldun baten alde

Euskara euskotarron hizkuntza da, eta hizkuntza propio hori maitatu, zaindu eta zabaltzea da euskaldun guztiok dugun grina. Hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da denok batera euskararen alde lan egitea. Aldentzen gaituztenen desberdintasunak ahaztuz eta batzen gaituen horretan gure indarra jarritz, gure hizkuntzarekiko maitasuna, euskararekiko maitasuna, gure herria eta identitatearekiko maitasuna, alegia.

Ukaezinak dira azken hamarkadetan Amurriok bizi izan dituen aurrerapenak berrogei urte atzera begiratuz gero, euskara ez zegoela bat ere ez zabaldua gure herriko egunerokotasunean gogoan izango dugu.

Une hartan gure herriko ikastetxeen eta euskaltegien indarra eta kemena agerikoa izan zen. Horiek argi adierazi zuten gure hizkuntza eta nortasunarekiko zuten maitasuna. Horrela, zituzten baliabide eta errekurso eskasekin, euskarazko hezkuntza baten alde lan egiten hasi ziren, Amurrio euskaldun baten lehenengo sugarrak piztuz.

Urteak joan eta urteak etorri, Amurrioko errealitatea aldatzen hasi zen, euskaldunen ehunekoa hamarrekoa izatetik, berrogeita hamarrekoa izatera igaroz. Amurrioko Udaletik gure eskerrik beroena luzatu nahi diegu hainbat urteetan eta garairik latzenetan euskararen alde lanean eta borrokan ibili izan diren eragile ezberdinei. Euskararen ezagutza ahalbidetzeko izandako konpromiso eta tinkotasunagatik. Esker mila Zabaleko eskola, Mendiko eskola, Amaurre ikastetxea, Aresketa Ikastola, Tanta Haurreskola, Tipi-Tapa Haurreskola, Zaroabe institutua, AEK, HABE euskaltegia eta beste hain-

bat eragile urteetan zehar gainditutako oztopo guztiengatik. Gaur egungo Amurrioko gizarteak argi eta garbi adierazi du behin baino gehiagotan euskaraz bizi nahi duela. Horrela adierazi izan du Euskaraldian parte hartzean, euskararen aldeko aldarrikapenetan eta bere egunerokotasunean. Egun, 5.000 euskaldun gara gure herrian. Euskaraz mintzatu, gozatu eta bizi nahi dugun 5.000 pertsona.

Udaletik badakigu instituzio moduan erantzukizun handia dugula eta ezinbestekoa dela gure erakundetik euskararen errealitatea sustatzeko politika sendoak, errealak eta emangarriak ahalbidetzea.

Horregatik, erantzukizun eta dedikazio handiz, orain arte egin izan den bezala, dagokigun ardura onartzen dugu eta euskararen alde lan egiteko dugun konpromiso irmoa adierazi nahi dizuegu. Gure nahia eta erabakia euskaraz bizi zezala ahalbidetzen duen politika garatzea da. Hortaz, agintaldi berri honetan gure ibilbide orria euskararen egoera hobetzeko datozen lau urteotan jarduera ugari abian jarri nahi ditugu.

Horrela, euskara sustatzeko Ekintza Plana gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu. Ez bakarrik Amurrioko bizitza sozial eta ekonomikoa euskararen erabilera indartzeko Udaletik herritarrei zuzendutako zerbitzuetan ere euskararen erabilera sustatzeko eta bermatzeko konpromisoa baita ere.

Euskarari benetako sustapena areagotzeko bai heldu, bai gazteak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Kirolean, lanean, instituzioekin zein aisialdian, euskararen erabilera soziala bermatzeko guneak



sortzeko politiken diseinuan arituko gara. Hori guztia gauzatu ahal izateko, premiazkoa da euskararen alde gaur egun aritzen diren hainbat erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea, parte hartzeko guneak ahalbidetuz guztion iritzia,

errealitatea eta esperientzia entzun eta jaso ahal izateko. Goazen euskaldun garenon artean gure hizkuntza egunero ospatzera eta zabaltzera. Gure artean isiltzen dugun euskara, hiltzen dugun euskara da eta.



TXERRA MOLINUEVO JELTZALEA IZANGO DA AMURRIOKO ALKATEA DATOZEN LAU URTEETAN. LEGEALDIKO LEHEN HILABETEETAN GERTATUTAKOEN ETA HURRENGO ERRONKEN INGURUAN MINTZATU DA.

Testua: Aimar Gutierrez Bidarte
Argazkia: Amurrioko Udala

“Euskararen gaia jaurtitzeko arma bezala erabili da Amurrion”

Azken legealdirako markatutako konpromisoen %85 bete zenutela iragarri zenuten hauteskundeetan atarian. Zeintzuk izan dira garatutako egitasmo nagusiak, eta zeintzuk tintontzian utzitakoak?

Hain zuzen ere, nahiz eta legegintzaldi oso gogorra izan, pandemiak geldialdia eragin baitzuen administrazio guztietan, une hartan premiazkoa eta garrantzitsua zen guztia egin behar izan zen, hala nola gure bizilagunak eta, batez ere, ahulenak zaintzea. Gobernu-taldeak konpromisoen %85 bete zituen, eta horietako batzuk ezin izan ziren gauzatu, lehen aipatutakoaren ondorioz, esaterako, eguneko zentro berria edo merkatu zaharraren erreforma, baina legegintzaldiaren hasiera honetan jada gauzatzen ari dira.

Hauteskundeetan ostean, PSE-EErekin osatu duzue udal-gobernua. Nola baloratzeko duzue legealdiko lehenengo sei hilabeteetako elkarlana?

Egia esan, oso modu positiboan, sintonia handia dago, eta oso

gutxi kostatu zitzaigun gobernua osatzeko akordioak lortzea. Izan ere, bi alderdiok oso argi daukagu gure lehentasuna Amurrioko bizilagunak direla. Argi daukagu erabaki politiko guztien erdigunean pertsonak jarri behar ditugula, batez ere ahulenak, eta berdintasunaren, kulturartekotasunaren, parte-hartzearen eta gizarte-babesaren aldeko politikak lehen lerroan jarri behar ditugula, jende guztia bere bizi-proiektua garatu ahal izateko eta pixka bat hobeto bizi ahal izateko.

Hain zuzen ere Tokiko Gobernu Batzordetik kanpo utzi izana salatu du EH Bilduk, eta azken adierazpenetan kezka adierazi du batzordeen funtzionamenduari. Zuek zer balorazio egiten duzue horren inguruan?

EH Bilduk aurreko legegintzaldian egindakoa guztiz bidegabeta eta ez oso etikoa iruditzen zitzaigulako gertatu zen hori. Alderdi horrek 45.000 euroko ordainsaria zuen zinegotzi bat liberatzea eskatu zuen oposizio-lanak egiteko, hau da, kudeaketan inolako erantzukizunik ez zuena. Gero,

persona hori ez zen gobernu-batzordeko edo komisioetako kide, eta bertaratzeagatik dietak kobratzen zituen.

Horren atzean bigarren liberazio estaliaren estrategia zegoen, bere taldeko beste pertsona batek hilerio 1.100 euro jasotzen baitzuten dietetan. Gogoratu behar da liberatutako pertsonak ez dutela dietarik kobratzen. Legegintzaldi honetan ere maniobera bera egin nahi zuten, 46.000 euroko soldata duen pertsona bat ere askatu baitute. Argi utzi nahi dugu Bilduko zinegotziak gonbidatuta daudela, informazio guztia bidaltzen zaiela eta legealdi honetan gobernu batzorde guztietara joaten direla.

Euskara teknikariaren aferak markatu zuen legealdiaren hasiera. Nola bideratu zen hika-mika?

Euskara teknikariaren gaia triste egoteko moduko gaia da, ahoa betetzen zaigu euskara gure hizkuntza dela eta politika alderdikoitikan kanpo utzi eta jaurtitzeko arma gisa erabili behar ez dela esanez, hori baita EH Bilduk egin zuena, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua erabiliz.

Azken horiek euskara teknikari plaza kendu izana leporatu zituzten, eta hori guztiz faltsua da. Inoiz bete gabeko plaza erdia amortizatu zen, gizarte-zerbitzuetan plaza berri bat sortzeko eta indartzeko, arlo hori indartzea lehentasunezkoa zela ulertu baikenuen. Euskara teknikariaren plaza ez da inoiz ukitu, azken hamabost urteetan lan hori egin duen pertsonak euskara teknika-

ria izaten jarraitzen du, are gehiago, legealdi honetan pertsona horrek bere egitekoaren %100 du euskararen arloan, eta hori ez da inoiz gertatu udal honetan. Pena da horrela gure hizkuntza politikoki erabiltzea.

Legealdi berriko proiektuekin jarraituz, merkatu zaharraren eraberritze lanak hasi dira honezkerok. Zer proiektu garatuko da bertan? Zer beste egitasmo dituzue kultura arloan esku-artean?

Merkatu zaharra eraberritzen ari da. Iaz, prozezu parte hartzaile bat egin genuen, eta, horren ondorioz, ekipamendu-plana sortu genuen, Amurrioko ekipamenduen etorkizuneko plangintza egiteko.

Plan horretatik atera zenez, merkatu zaharrean etorkizunean bi solairuko liburutegia egongo da, helduen eta haurren liburutegia, eta ikasgeletako, mediateketako, kz guneko, talde-lanetarako aretoetako eta abarretako baliabideak izango ditu. Hori guztia modu parte-hartzailean esan dudana moduan.

Hirigintza arloan auzoak hobetzeko asmoa adierazi duzue behin baino gehiagotan. Zeintzuk dira garatuko dituzuen inbertsio nagusiak?

Aurreikusita dugun jardun garrantzitsuenetako bat merkatu zaharraren parean trenbidearen lubakia irekitzea da, lurpeko pasabide batekin erdigunea Eroskiren eremuarekin lotzeko eta, horrela, trenbideak bereizten dituen bi herriak lotzeko. Gure us-

tez, jarduketa horrek hobera egingo du, eta asko, gure herria.

Kirol azpiegiturak hobetzea eta handitzea ere izan da zuen iparra. Nola jarraituko duzue lan-lerro honekin 2024an?

Kiroldegia, Mendiko eskola eta Zabaleko pilotalekuak eraberritzea aurreikusi dugu, estalkia konponduz eta dutxak eta komunak jarritz, hurrenez hurren. Oso instalazio zaharrak dira, eta kudeatzea eta konpontzea egokitu zaigu. Halaber, abian dira agindutako hiru padel pistak.

Energia trantsiziorako zein egitasmo jarriko dituzue martxan datozen urteetan?

Trantsizio energetikoaren politika ikuspegi integral batetik egin behar da, gure mendekotasun energetikoa murriztu behar dugu eta energia berriztagarria sortzeko ehunekoak handitu behar ditugu. Horretarako, Ekiola bezalako proiektu komunitario eta kooperatiboen alde egin behar dugu, baita autokontsumorako proiektu baten alde ere, hala nola gure eraikinetako teilatuak energia berriztagarria sortzeko erabiltzea. Lehentasuna izan behar du gure politiketan.

Bukatzeo, nola nahiko zenuke ikusi Amurrio legealdia bukatzen denean?

Pixka bat hobeto bizi daitekeen Amurrio bat ikustea gustatuko

“Sintonia handia dago, eta oso gutxi kostatu zitzaigun gobernua osatzeko akordioak lortzea. Izan ere, bi alderdiok (EAJ eta PSE-EE) oso argi daukagu gure lehentasuna Amurrioko bizilagunak direla”

litzaidake, jendea amurriarra dela harrotasunez esateko modukoa. Kultura-jatorri orotariko pertsona guztiak sartzen diren, eta pertsona ahulenak eta egoera txarrean daudenak atzean uzten ez dituen Amurrio bat. Amurrio jasagarriagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa eta feministaagoa ikusi nahi dut.



Garai berriak

Oihane Rodriguez Beraza
Amurrioko EH Bilduko zinegotzia

Ekainaren 29an ongi etorria eman genion legegintaldi berriari. Taldeko guztiak erronka berri honi aurre egiteko irrikitan geunden. Baiezkia eman genuen herrian bertan lan egiteko, herriko eta auzokideen ongizatea lortzeko eta Amurriok behar duen aldaketa gauzatzeko. Aldaketak beharrezkoak dira gure herrian. Horregatik, arduratsu jokatu dugu merezi dugun Amurrio bat lortzeko. Hasi ginenetik bost hilabete pasatu dira. Hilabete korapilatsuak izan dira jarri dizkiguten oztopoengatik. Dena den, oztopoak oztopo, aldaketak ekarriko ditugu. Problematika erreal ezberdinak identifikatuta ditugu Amurrioren. Adibidez, zaintza publiko-komunitarioa bultzatu behar dugu, bizitzak erdigunean jarritz eta beharrezkoak diren politika feministak martxan ipiniz. Bestalde, etxebizitza ezin da negozio bezala ulertu, etxebizitza pertsonen eskubidea baita. Hori dela eta, gure Etxebizitza Planean lanean jarraituko dugu. Horretaz aparte, Landazuri eta merkatu zaharraren obrekin hasi dira jada. Badakigu zehazki zelako zerbitzuak emango diren? Zerbitzu horiek erabiltzaileen beharrik bermatu behar dituzte. Baditugu erronka ezberdinak lau urte hauetan; aisia eta kultura, kiroldegia, parte-hartzean oinarritutako gobernantza, tokiko merkataritzaren bultzada, besteak beste. Gaur egun, Amurrioko EH Bildu sare sendoa gara eta harremanak estutzen jarraituko dugu elkarbizitzan oinarrituz. Amurrio euskalduna, feminista eta ekologista bihurtu arte lanean jarraituko dugu.



Aukeren leiho berria: 501 botoren indarra

Laura Fernandez Fernandez
Amurrioko PSE-EEko zinegotzia

Udal, foru eta estatu hauteskundeak izan dira nagusi 2023an politika esparruan.

Herri mailan, Amurrioko PSE-EEk jaso dituen botoek balio izan dute aukeren leiho bat irekitzeko, eta gobernu talde berria aktore bakarrera mugatuta ez egotea erraztu dute. Hala ere, gai batzuk ezin ditugu aldatu: jarrerak, publizitate-kanpainak, oposizioko talde politiko bakarrak udal-eraketaren hasieratik daraman praktika politiko baxua.

Hitza neurritz kanpo eta oldarkor erabiltzeak ez darama ezertara. Gizartea txundituta dago informazioen ur-jauzien aurrean, albiste faltsuekin nahasita, informatzeko eta erabakiak hartzeko benetan baliagarriak diren mezuak lausotzen baitituzte.

Gai garrantzitsuak ditugu kudeatzeko, itxaropenez betetako Amurrio baten lan egiteko. Agian aukera ona izan daiteke argudioen hutsalkeriarekin eta haserrealdi desegokiekin amaitzeko, eta eztabaida arrazionaltasunaren eta zuzentzearen bideetatik bideratzen saiatzeko.

Horregatik, sozialismoan konfiantza jarri zuten 501 boto horiek beti egongo dira bideratuak Amurrio inklusiboagoa, gardenagoa, berdinezaleagoa, sozialagoa, pertsonetan oinarritutakoa eta pertsonentzat eginkoa eraikitza, gaur egun Amurrioren bizi garen 10.000 biztanle baino gehiagorentzat, eta ez bakarrik ezetza ezetzagatik ordezkatzeko duen alderdiarengan konfiantza duten 1.847entzat.

Urduñako

2023ko mugarriak

Udalaren balantzea

MUGARRI UGARI UTZI DITU 2023AK URDUÑAN. EKINTZA ESANGURATSU ASKO GERTATU DIRA AZKEN HAMABI HILABETEETAN ZEHAR, UDALAREN ZEIN HIRIKO ELKARTE ETA BIZILAGUNEN ESKUTIK; ETA PROIEKTU ZEIN EGITASMO HORIETAKO ASKOK SEGIDA IZANGO DUTE 2024AN ERE.



Aurten mendea bete du futbol federatuak Urduñan, 1923an eman baitzuen ize-na CD Orduñes taldeak Bizkaiko Federazioan. Hori dela eta, erakusketa atondu dute Orduña Hiria Museoa. CD Orduñak, bere aldetik, urratsak ematen dihardu euskara klubean txertatzeko.



Urduñako presondegia frankistan hildako hainbat biktimen gorpuzkiak identifikatu eta euren senideei entregatu zaizkie, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gogora Institutuarekin elkarlanean.



Urduñako harresiaren inguruan parke bat eratzekeo proiektua aurrera doa.



Ikasketa gela berria atondu da nagusien egoitzaren atzeko aldean, Gaztegunea zegoen tokian. 18 urtetik gorako ikasleek azterketa garaian erabiltzeko espazioa izango da. Otsailaren 4ra arte egongo da zabalik, eta gero berriro irekiko da apiriletik ekainera bitartean. Egunero erabili daiteke, 8:30etik 20:30era.





Liborio kolektiboak antolatutako Musika Asteak eta poteo musikatuarak dozenaka musikari eta zaletu atera zituen kalera, tokiko ostalaritzaren mesedetan.



Ikusmira handia sortu zuen Loraldi elkarteak Orduña Hiria Museoan urte hasieran inauguratutako erakusketak.



Jorge Ugalde

Kultura Intereseko Ondasun izendatu dute Antiguako Ama Birjinaren Monumentua. Gauzak hala, azpiegitura hori konpondu eta berritzeko konpromisoan berretsi da Urduñako Udala.



Antonio Muñoz

Dani Rovira antzezlea protagonista duen El bus de la vida filma grabatu zuten martxoan Urduñan.

Bakardade ikusezinaren aurkako jardunaldiak egin ziren urrian Erretiratuaren Gizarte Etxean. Bakardadearen murla egin zuten lehen egunean, eta kafe tertulia bigarrenetan. Horrez gain, nagusientzako dozenaka jarduera burutu dira zentroan urte osoan zehar.



2023ko Elikatzen duten Hiri eta Herrien Saria jaso du Urduñak Ainsan egindako Agroekologiaren aldeko Udalerrien Sarearen urteroko topaketan.



IKER SANTOCILDES PEREZ JELTZALEA DA URDUÑAKO ALKATE BERRIA. HILABETE BAKAN BATZUK DARAMATZA KARGUAN, BAINA JADA ERABAT MURGILDU DA UDALAREN DINAMIKAN.

Testua: Txabi Alvarado Bañares
Argazkiak: Aiaraldea.eus

Hilabete bakan daramatzazu Urduñako alkatetzan. Zer moduz joan dira?

Bost hilabete daramatzagu alkatetzan, eta lurra hartzeko baliatu dugu orain arteko denbora. Egunero ikasten dut zerbait berria, Udalean egunero gertatzen delako zerbait berria.

Gure proiektuari dagokionez,

gauza txikietan zentratzen ari gara batez ere. Proiektu handiei dagokionez, igerilekuaren birgaitzean eta plazari lotutako ordenantza berrian gaude murgilduta, azken hori datorren urtearen hasieran plazaratu nahi dugulako. Baina batez ere gauza txikietan aritu gara: zaborrontzien kokalekua aritzea, mantenu lanak egitea hirian...

Gauza txiki horiek aurretik zenituzten pentsatuta egitea, edo behin Udalera sartuta ikusi duzue horiek egikaritzeko beharra?

Bagenituen jada buruan. Guk uste dugu Urduñak inbertsioa behar duela, baina baita mantenu ere, eta lehen urte honetan azken horretan zentratuko gara, hor jarriko dugu dirua eta beste-

“Urduñak inbertsioa behar du, baina baita mantenua ere, eta lehen urte honetan azken horretan zentratuko gara”

lako ikuspegi bat emango diogu Urduñari. Ikasketa gela ere ireki genuen pasa den hilabetean, eta ondo funtzionatzen ari da, egunero dago irekita, eta pozik gaude horrekin.

Foru plazari dagokionez, azterketa bat abiatu duzue Urduñarren mugikortasun ohiturak ezagutzeko. Zein da zuen asmoa?

Gure asmoa da plaza oinezkoentzat izatea, osorik. Uste dugu ez duela zentzurik zati bat oinezkoentzat izatea eta beste bat trafikora irekita egotea. Horregatik,

trafikoa kontrolatu nahi dugu jarrita dauden kamerekin, horietako batzuk aldatu behar ditugun arren, gaizki jarrita daudelako.

Oinezkoek beti izango dute lehentasuna, horrela izan delako azken hogeitun urteetan. Plaza irekiko dugu, trafikoa kontrolatuz egoteko denbora muga bat ezarrita. Hasieran malguak izango gara ordenantzarekin, bertan bizi ez direnei ere sarbidea baimenduz. Baina dugun asmoa da urteen poderioz malgutasun gutxiago izatea eta, une batean, plazara bertan bizi direnak soilik

sartu ahal izatea. Hori da gure asmoa.

Zenbateko epean aurreikusi duzue prozesu hori garatzea?

Ordenantza orain plazaratuko dugu eta Udal Osoko Bilkuran onartuko dugu gero. Hemendik bi hilabetera izango dugu behin betiko dokumentua. Baina kamerak jada jarri nahi ditugu martxan, hilabete bateko proiektu pilotua abian jartzeko, herritarrak kontzientziatzeko, batez ere. Nik uste dut urtebetean datuak ikusi eta erabakiak hartzen hasi ahalko garela.

Igerilekuei dagokionez, zein da zuen asmoa?

Nik uste dut obra 2025. urtean egitera iritsi gaitzkeela. Behin bideragarritasun proiektua izanda, lizitazioa aterako genuke, proiektua, obra zein azpiegituraren esplotazioa esleitzeko. Gure asmoa da administrazio kontzesio bat egitea. Gero agian azterketa ikusita ondorioztatu dezakegu ez dela aukerarik onena, baina gure lehenbiziko asmoa hori da. Igerileku olinpikoa birgaitu nahi dugu, eta jolaserako igerileku bat atondu.

Memoria historikoaren gaiak zeresana izan du Urduñan azken urteetan. Zein da zuen asmoa esparru horretan?

Orain arteko lanarekin jarraitzea. Batzorde bat egingo dugu memoria jorratzen duten erakundeekin, Juanjo EH Bilduko zinegotziekin, Jon gure zinego-

tziarekin, Joseba Egigurenekin... pausuz pausu jarraituko dugu bide hori jorratzen.

Renferekin ere bildu zinen tren zerbitzuaren gabezien inguruan hitz egiteko. Zer moduz joan zen bilera?

Ugaoko alkatearekin joan nintzen. Gai historikoak jarri genituen mahai gainean: gau-jaiia zerbitzua, funtzionamendua, trenen antzinasuna... urratsak ematen jarraituko dugu, gau-jaiaren gaian batez ere. Zerbitzu horri lotuta nahiko argi utzi ziguten ez zeudela urratsik emateko prest, eta uste dut horretan jarri behar dugula indarra. Nire ustez, eskualde osoak eman behar ditugu urratsak, denok batera.

Udal ordenantza fiskal berriak onartu dituzue. Horiei lotuta, EH Bilduk proposatu zuen etxebizitza hutsei %50ko errekaru ezartzea, alokairu merkatuan sartu daitezten. Zuek ezekoa eman zenioten proposamen horri, baina alokairua errazteko beharra ere jarri zenuten mahaigainean hauteskundeetan. Zein da, orduan, Urduñan etxebizitza alokairua errazteko bidea?

EH Bilduk proposatu zuen aukera bazegoen gure buruan ere, beste herri batzuetan ere egiten ari direlako. Ez egitearen arrazoia bada ez dagoela horretarako baliabiderik. Zoritxarrez, ez dugu mota horretako kudeaketak egin dezakeen jenderik. Gainera, EH Bilduko kideek eurek egiten zieten erreferentzia 2016an onartutako Foru Arauari. Hau da, aukera izan dute urte hauetan moldake-

“Gure asmoa da plaza oinezkoentzat izatea, osorik”

“Uste dut igerilekuko obra 2025. urtean egitera iritsi gaitzkeela”

“Uste dut buelta bat eman behar diogula Alde Zaharrean dauden orube hutsei”

ta horiek indarrean jartzeko, eta ez dute egin. Ulertzen dut niri proposatzea, baina egoera berdinean gaude.

Zer egin dezakegun alokairuaren gaia bideratzeko? Uste dut buelta bat eman behar diogula Alde Zaharrean dauden orube hutsei. Ez soilik zonalde horrek erakutsi beharko lukeen irudi turistikoa-gatik, baita orube horiei eman beharko litzaiekeen erabileragatik ere. Gure proposamenetako bat zen Ondasun Higiezinaren Zer-ga igotzea orube hutsei, eta horretarako ordenantza bat prestatu dugu. Eraikuntza sustatu nahi dugu horrela, edo lurrak Eusko Jaurlaritzari lagatzea.

Bi etxebizitza bloke eraikitzen ari dira uneotan. Baina, zoritxarrez, ez dugu etxebizitza publikoak egiteko Laudiok edo Amurriok izan dezaketen gaitasuna. Horiek dira emango ditugun urratsak: orube hutsei zergak igotzea eraikuntza sustatzeko eta, modu horretan, irudi turistikoa zein alokairuaren egoera hobetzeko.

Parte hartze eredu berria ezartzea ere planteatu zenuen. Zein urrats emango dituzue esparru honetan?

Aurten ez dugu denborarik izan gauza askorik egiteko, baina gus-tatuko litzaiguke arratsalde batean udaletxea irekita egotea eta ni zein zinegotziak bertan egotea herritarrei arreta eskaintzen. Aurrekontu parte hartzaileak ere sustatu nahi ditugu, diru-partida bat gordeta (20.000 euro ingurukoa) herritarrek egiten dituzten proposamenak bideratzeko.



Eginiko lan guztiari segida eman behar diogu

Itziar Biguri Ugarte
Urduñako EH Bilduko zinegotzia

2023. urtea berezia izan da. Aldaketa etorri da gurera. EH Bildu gobernuan hiru legealdiz egon ondoren, egindako ibilbidearen balorazioa egiteko momentua da; zertan asmatu dugun eta zertan ez, zer egin dugun eta zer geratu den egiteke, eta zer egingo genukeen beste modu batean.

Ateratako ondorioak herriarekin konpartitu behar ditugu, eta urduñarrei eskaini, herria eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea beti izan direlako gure lanaren helburua. Ikuspegi ezkertiar, feminista eta euskaldun batetik jardun dugu, Urduñaren historia (memoria historikoa barne), ondare material, natural eta kulturali merzei duten balioa emanez. Ziur gaude urteotan egindako lana balorazio honetan islatuko dela.

Oso harro gaude urteotan guztiotan EH Bildurekin batera lanean egondako zinegotziekin, haiei esker Urduñan jada aldaketa eman da, atzera bueltarik ez duena. Herriarekin gobernatu dugu eta kalean egon gara; hamabi urte hauetan Udala parez pare ireki dugu eta haize berria sartu da. Hori baita gure estiloa.

Halere, ez gara geratuko soilik egindakoari begira, aurrera ere begiratuko dugu, gogoz, alaitasunez eta ilusioz, herritar askok jarri baitute konfiantza gudan. Orain, gure betebeharra zera izango da: gauden lekutik lanean jarraitzea eta, batez ere, herritarren beharrei erantzutea. Hori da une honetan tokatu zaiguna. Eta maitasun handiz hartzen dugu mandatu berria.

Orain dela urteak hasitako lana, egindako lan guztiari segida eman behar diogu. Urduñak merzei duelako, Urduña maite dugulako.



Orozkoko 2023ko mugarrak

Udalaren balantzea

KULTURA, KIROLA, LEHEN SEKTorea, ARTISAUTZA... ASKO DIRA OROZKO EZAUGARRITZEN DUTEN MUGARRIAK. AURTEN GARRAFA ELKARTEKO KI-DEEK JASO DUTE AITORTZA: PREGOILARIAK IZAN DIRA SANANTOLINETAN, HERRIKO ONDAREA BERRESKURATZEKO EGINIKO LANAGATIK.



Gure dantzen nota bakoitzean eta gure artisauen pintzelkada bakoitzean, Orozkok kulturaren sua bizirik mantentzen du, gure nortasun bakarraren bidea argituz.



Landutako lurrak, gure nekazari eta abeltzainen eguneroko dedikazioak egiten gaitu desberdin. Gure sustriak lehen sektoreari atxikiturik daudelako.



Basoen xuxurlek pertsonak erakartzeko gai dira. Paisaiek eta bazterrek dituzten sekretuak barnerraten ditugunean senti daiteke plazer mugaezin bat.





**Joko zelaietan
eta lehiaketa
zirrargarrietan,
garaipen bakoitza
gure kirol
komunitatearen
ahalegin eta
dedikazioaren
fruitua delako.
Esfortzuak
inspiratzen gaitu.**



**Garrafaren tanta
bakoitzean, hoge
urteko dedikazioa
eta tradizioa
ospatzen ditugu.
Garrafako Elkarteak
elkarbizitzaren sua
eta nahasketaren
arte bizirik
mantentzen ditu,
gure komunitateari
zaporea eta poza
eskainiz.**





AITOR IZARI ALDAKETA UGARI EKARRI DIZKIO 2023 URTEAK. EUSKO ALDERDI JELTZALEKO ALKATEGAIA BIHURTU ETA GEHIENGO OSOA ESKURATU ZUEN OROZKON. BERE LEHENENGO HILABETEEN BALORAZIOA EGIN DU.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Hauteskundeetan gehiengo absolutua eskuratu zenuten eta pentsatzekoa da aurreikusita zenuela.

Ez genuen espero zazpi zinegotzi lortzea. Bai irabaztea, baina ez zazpi ordezkarekin. Horrek poztasuna sortu zigun, are gehiago aintzat hartuta EAJren emaitza orokorrek ez zirela izan espero zirenak. Gainera, EH Bilduk boza gehiago izan zituen. Hortaz, Orozkoko Udala gehiengo osoarekin berreskuratzea oso emaitza ona izan zen, gure ustez.

Nolako izan da Udalean sartzea?

Pertsonalki aldaketa izan da bizitzan. Konpromisoa hartu dut herriarekin eta aldaketa ugari ekarri ditu, baina aurretik asko pentsatu nuen. Behin hori erabakita, aldaketa positiboa izan da, ondo daramat eta pozik nago, ikusi baitut herritarrek lagundu ditzakerala.

Talde moduan, gure helburua izan da hautsak harrotu gabe sartzea. Lehenik eta behin aztertu dugu zelan dagoen dena, ekonomikoki

zein antolakuntzari dagokionez, eta guk gustura lan egiteko antolatut dugu, betiere teknikarien iritzia kontuan izanda, urte ugari eman baitituzte hemen. Interesgarria da jakitea euren iritzia, guk baino hobeto baitakite nola funtzionatzen duen Udalak. Azken finean, gu erakundera heldu berri gara.

Zein da Udalaren egoera une honetan?

Ekonomikoki oso ondo dago. Gero, egia da zenbait kontratu, bereziki argindarrarena, ez zirela

“Uraren kudeaketak legealdi osoa baldintzatuko du”

betetzen ari. Saiatu gara hori ondo jartzen eta oraindik ere arazoren bat dago.

Esparru sozialean antzeko prozesua izan da. Ahalegina egin dugu euren iritzia jasotzeko eta konfiantza eskatu diegu.

Zuek proposatutako ekimena izan da legealdiko plana da, baina erakundeko egunerokoak horretarako tartea eman du?

Kudeaketa bi mailatan egin behar da: epe motzean eta epe luzean. Eguneroko arazoak eta agertzen direnak konpondu behar dira eta hori modu koherentean landu. Irizpide argiak egon behar dira horretarako, zentzu batean zein bestean baliatzeko. Ez zaio erre-

paratu behar herritarren kolore politikoari, prozedura logikoa egon behar da gaiak lantzeko eta beti modu berean jarraitu. Kontrol hori izateko bidean txertatu beharra dago egin nahi duzuna. Esaterako, lehen aurrekontu hauetarako badaude zenbait esku-hartze, zeinak gure legealdi planean zeuden.

Hala ere, aintzat hartu beharra dago aurreikusitako ez genituen errealitateak topatu ditugula. Adibidez, araztegiarena. Horrek aldaketak ekarriko ditu horniketean eta saneamenduan. Hori oso konplexua da, kontuan hartuta Orozkok duen zabalera eta hodi kilometro kopurua. Hala ere, hori ere nola kudeatu nahi dugun txertatu dugu gure legealdi planean. Izan ere, goizago

edo beranduago araztegia funtzionamenduan egongo da.

Zeintzuk izan dira zuen lehenengo erabakiak?

Ni bereziki harro sentitzen naiz hauteskundeetan konpromisoa hartu nuelako Madres Mercedariaseko langileak laguntzeko. Ni 2012an lan gatazka batean egon nintzen Guardianekin eta badakit zer pairatzen den. Gatazkan zuzenean ardurarik ez genuenez, nire hautua izan zen ahalik eta gehien laguntzea eta Amaia Antxustegi Gizarke Ekintzako Diputatuarekin bildu nintzen, fundazioarekin, langile batzordearekin, monjinekin, fundazioaren abokatuarekin... Jende ororekin elkartu gara akordioa egon dadin.

Niri gehien arduratzen ninduenak lanpostuen jarraikotasuna bermatzea zen. Gure alea jarri dugu, alde guztiak harremanetan jarrita. Adibidez, zenbait arazo egon dira Madres Mercedarias eta Foru Aldundiaren artean eraikinari dagokionez, eta informazioa eskatu bezain pronto, eskuratu eta bidali genuen. Bi egunetan bilatu eta eman genien. Argi dago akordioa ez zegoela gure esku, baina bai hori erraztea, eta horretara bideratu ditugu gure indarrak eta pozik gaude.

Tokiko Gobernu Batzordean oposizioa sartu duzue.

Jakina. Lehenik eta behin hori egin dugu gauza bera eskatu geniolako aurreko legealdian ADIEri, eta es-

katutakoa guk bete behar dugu. Ez daukagu zer ezkutatu eta, ondorioz, oposizioak parte hartu behar du, jakiteko zer gertatzen den eta zein arazo dauden. Gehiengo dugu eta puntu askotan ez gara ados egongo, baina behintzat, inork ez dezan esan ez dugula kontsultarik egin. Batzordea bikain dabil eta EH Bilduko jendearekin harremana ona da, politikoki zein pertsonalki. Poz-pozik nago erabakiarekin eta uste dut, ez dagoenean ezer ezkutatzeko, batzordean azaldu daitezkeela planteamenduak.

Aurten lehenengo aldiz izan duzue jaien ardura.

Gu heldu ginenean jaiak bazeuden ia osorik antolatuta. Otsailean hasten dira prestaketak. Horregatik apur bat urduri geunden, baina zorionez eskarmentu handiko teknikaria dugu, Zaloa Rotaetxe. Lan bikaina egin du Asier Azkoaga zinegotziarekin eta uste dut oso ondo atera direla jaiak. Ez da arazorik egon, gure beldur handiena eraso matxistaren bat gertatzea baitzen. Dena ondo kudeatu da, eta arazo bakarra izan zen azken egunean ekaitzak zeudela eta larrialdi planik ez dagoenez (hori zuzentzen saiatuko gara) erabakia hartu behar izan zela. Tximistak egoteko arriskua zegoen, berbenako teknikariek ere uste zuten arriskutsua zela kontzertua egitea eta 112 zerbitzuak jakinarazi zigun ekaitzak gauerdira arte iraungo zuela.

Ondorioz, erabaki genuen bertan behera uztea, are gehiago ordu eta erdi berandu hasiko zela ikusita. Ez genuen inolako arriskurik nahi. Samueli ere esan genion eta ber-

“Bereziki harro sentitzen naiz Madres Mercedariaseko langileak lagundu ditudalako”

bera bertan behera uztea erabaki genuen. Horrek, dena den, eraman gaitu larrialdi plana prestatzera, nahiz eta tamainagatik Orozko behartua ez dagoen.

Auzo batzarren eredia aldatu da apur bat.

Printzipioz ez dugu aldaketarik egingo. Lehen bilera izan zen ur saneamenduaren eta horniketaren gaia azaltzeko, baina, bestela, aurreko eredia jarraituko dugu. Uraren kudeaketak legealdia baldintzatuko du. Ez gaude inolako partzuergoan, hodi kilometro ugari daude eta defizita sortzen du. Europar araudiak behartuko du kostu guztiak herritarren gain uzten eta, hori dela eta, azaldu behar genuen. Ez da Udalaren ekimena. Orain arte defizita bere gain hartu du tokiko erakundeak, baina etorkizunean ez da horrela izango. 2030 Agendan jasota dago eta bete behar dugu. Azpimarratu genuen batzarrek balio behar dutela arazo orokorrei aurre egiteko: azpiegiturak eta abar. Ez dira tokia norbanakoen arazoak joratzeko. Horretarako udaletxeko ateak irekita daude egun guztietan.

Azkenik, zein da Udalaren jarra proiektu eolikoei dagokienez?

Gu aurka egongo gara. Ez dugu egingo herriak nahi ez duena, jakinda hori Europak baldintzatzen duela. Edonola ere, defendatuko gara, herriak ez baititu nahi proiektu horiek. Energia berriztagarrien alde gaude, baina arazo konplexua da. Egindako lehen gauzen artean, alegia, Aialurrekin prestatutako alegazioak egon ziren, Energia Berriztagarrien Sektore Planaren kontra.



Orozkoarren alde lan egiteko konpromisoa

Samu Pasandin, Iosu Zaldibar, Aitziber Santamaria eta Laura Lopez
Orozko EH Bilduko zinegotziak

Azken urtea legegintzaldi barri batek eta ziklo aldaketa batek markatutako urtea izan da. EH Bilduk emaitza historikoak lortu dauz Orozkon azken bi hitzordu elektoraletan eta Udalean gure ordezkari bikoiztu dogu. Horrek indar handiagoa emoten digu orozkoarren alde lanean jarraituteko eta gure herriak behar eta merezi dabezen erantzunak emoteko.

Orain arte ezinezkoa zana posible egiteko aukerak ikusten doguz eta EH Bilduko zinegotziak gure onena emoteko prest gauz Udaleko ateak ireki eta herritar guztien ahotsa aituteko. Gure ardura ere bada herritarren nahiak, herritarren beharrak, herritarren ezinegonak eta herritarren desirak zeintzuk direzen jaso eta hori politika publikoetan errealidade bilakatzea.

Trantsizio energetikoaren arloan hasitako bideari jarraipena emoteko konpromisoagaz helduko diogu urte barriari, udal eraikinetan eguzki plakak jartzeko proposamena martxan jarri eta komunitate energetikoak sustatzeko proiektu bat gauzatu. Bestalde, tokiko merkataritza sustatzeko, lehen sektorean belaunaldi aldaketa posible egiteko, euskararen normalizazioaren alde urratsak emoten jarraituteko edota bardintasun arloa indartzeko proposamenetan lanean gabiz.

Aurten hasi dogun legegintzaldi hau orozkoarren alde lan egiteko aukeraz beteta ikusten dogu eta oraindik egiteko dauzen EH Bilduk proposatutako hainbat proiektu martxan jarri eta beste hainbat gauzatu daitezen bermatzeko konpromisoa dekogu.



Arrankudiaga-Zolloko 2023ko mugarriak

Udalaren balantzea

MUGARRI UGARI UTZI DITU 2023AK ARRANKUDIAGA-ZOLLON. URTERO ERREPIKATZEN DIREN JAI ETA EKINTZEZ GAIN, JARDUERA BERRITZAILEAK ERE BATU DIRA EGITARAURA, EUSKAL EZKONTZA KASU. HORREZ GAIN, UDALAK PROIEKTU UGARI GARATZEKO BALIATU DU URTEA.



**PUMP TRACK
ETA KALISTENIA**
Iberlandako parkea
eta kirol eta
aisialdirako gunea
aire zabaleko
bi instalazio
berrirekin osatu du
Udalak: skater eta
txirrindularientzako
pump track
kirol-zirkuitoa eta
kalistenia parkean
bertan integratuta.

**BOLALEKUAREN
ERABERRITZEA**
Bola-jokoak
herrian bizi duen
susperraldia ikusita,
bolalekuaren
osoko eraberritze
lanari ekin dio
Arrankudiaga-
Zolloko Udalak,
ondare kulturala
berreskuratu
eta bola-jokoari
bultzada sendo
berria emateko
asmoz.



**PELOTALEKUKO ESKAILERA
BERRIAK**
Eskailera zabalak eta
harmaila/bankua eratu dira;
eta lehen gune iluna zenez,
argiztapen berria jarri da.
Pelotalekura eta plazarako
sarbide inguru guztia
eraberrituta gelditu da.

UEMA
Biztanlegoaren
%70etik gora
euskaldunak izatearen
muga gainditu eta
aspaldiko helburua
lortu dugu aurten:
Arrankudiaga-Zollo
udalerrri euskalduntzat
ofizialki onartuak izatea
Udalerrri Euskaldunen
Mankomunitatean
sartzea. UEMAren
aholkularitza eta
laguntzak aukera
berriak zabaltzen
dizkigu euskararen
ezagutza eta erabilera
ahaleginean.



**WOMEN IN
BLACK**
Azaroaren
25eko indarkeria
matxistaren
aurkako
egunaren eta
azaroaren 30eko
geba feminista
orokorraren
kontestuan,
emakume sareak
"Women in black
action" ekintza
burutu zuen
Arrankudiagako
plazan.



JAIK
Berrito ere,
arrakasta handia
izan dute herriko
jaiak. Parte-hartze
handia izan da
eta jendeak oso
ondo pasatu du
Andramarietan eta
Uribarri, Atxeta
edota Zolloko
jaietan.



ZOLLOKO ASFALTATUA
Zolloko plaza ingururo
mugikortasuna eta
ibilgailuen zirkulazioa
berregokitzeko planaren
barruan, inguruko
asfaltatze lanak izan dira
lehen urratsa.



TRAIL LASTERKETA
Aurten, Arrankudiaga-
Zolloko X. Trail Lasterketa
burutu da. Herriko ehun
boluntariorik gora izan dira
lanean eta, berrito ere,
maila bikaina izan du
parte-hartze zein
antolaketa aldetik.



EUSKAL ESKONTZA
Herriko gazteriak Euskal
Asteburua antolatu zuen
ekainaren 16tik 18ra eta,
egitarau zabalaren barruan,
Euskal Ezkontzak egundoko
arrakasta izan zuen.
Jendetzak hartu zuen parte
atzezpenean eta osteko
herri bazkari eta jaietan.





“Gazteei jaio diren herrian bizitzeko duten eskubidea bermatu nahi izan diegu etxebizitza proiektuekin”

politik egin ditzaketen. Lankidetzaz hitzarmenak ditugu herriko elkarre eta eragile guztiekin, hori ere oso inportantea da. Kimika ona ezinbestekoa da. Horren guztiaren adierazle jaiak ere badira. Bai ia eta bai aurten jendea oso gogotsu egon da, oso ondo pasatu du.

Arrankudiaga-Zollo UEMAn sartzea izan da urteko mugarri garrantzitsuenetako bat.

Bai bai, mugarri inportantea izan da. Honezkerok landu dugu egitasmo bat UEMArekin eta orain gauza zehatzak egiteari ekin diogu. Eskolarekin, adibidez, egitasmo berezi batzuk prestatu ditugu. Udaleko langileekin ere formakuntza ikastaro batzuk diseinatu ditugu.

Aurrera begira diagnostiko zehatz bat egin nahi dugu euskararen erabilaren harira, herriko eragile guztiekin landuz.

Etxebizitzaren arloan hainbat proiektu abiatu dituzue. Zien da hauen egoera?

Egitasmo luzeak dira etxebizitzaren arloan abiatutakoak. Alde batetik, proiektu kooperatibo bat daukagu martxan. Aurrelanketa guztia egin da, kooperaibistak badaude honezkerok eta proiektua ixtear gaude. 2023an kudeaketan egon gara murgilduta. 2024an, aldiz, proiektua zehaztu, itxi eta obrei ekingo diegu. Harrera ona izan du proiektu kooperatiboak. Guk ezarritako helburuetara iritsi gara: herriko jendea sartu da eta jende gaztea sartu da. Ia denak izango dira 35 urtetik berakoak. Antzerako ibilbidean gaude alokai-

AURTEN ABIATUTAKO LEGEALDIAN ALKATETZA ERREPIKATUKO DU TXUTXI ARIZNABARRETA. HERRI KOESIONATUA ETA BIZIA NAHI DU, ETA HORRE-TARAKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK JARRI DITUZTE ABIAN UDALETIK

Testua eta argazkia:

Aimar Gutierrez Bidarte

Legealdia errepikatzea lortu duzue. Nolako balorazioa egin duzue?

Legealdi baten amaiera eta berri baten hasiera bizi izan dugu aurten, baina gure kasuan aurretik ezarritako egitasmoekin aurrera jarraitu dugu. Emaiza oso onak lortu genituen hauteskunderetan, nolabait sentitu dugu gure jendeak babestu egin duela gure proiektua nolabait, gure planak ulertu dituela.

Alde horretatik pozik; proiektu

handiak ditugu esku artean. Ziurtasuna ematen digu jendearen babesa sentitzeak. Herri programan zehaztu genuen esku artean genituen proiektuak amaitzeko konpromisoa, eta aurrera begira markatutako gure lan-ildoak. Jasotako babesarekin gure programarekin aurrera jarraituko dugu.

Zeintzuk dira aurreko legealditik eratorritako proiektu nagusiak?

Alde batetik Oxinburu daukagu. Urtea amaitzarekin batera buka-

tuko dira lanak, eta urte berriko lehenengo sei hilabeteetan egingo dena izango da guzti hori martxan ipini. Azpiegitura oso inportantea da, bai kultura mailan, baita ere eguneroko elkarbizitza espazio bezala ere. Esperientzia berri bat da guretzako, eta hor jendearen parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

Badira aurten bukatu ditugun beste lan batzuk; frontoi atzean dauden eskailerak, esaterako. Horrekin batera bolalekua ere goitik behera berriztatzen ari gara. Ho-

rrek guztiak plaza inguruari beste itxura bat emango dio.

Iberlandako kirol-asialdi espazioa atondu nahi genuela ere definitu genuen, eta pump-tracka martxan dago honezkerok, baita kalistenia espazioa ere. Azkenik, Zollon, asfaltatu berriak egin ditugu plaza inguruan.

Azpiegituretan ez ezik, beste arlo batzuetan ere aritu zarete burubelarri.

Herri-bizitzari buruz egindako lana handia izan da. Herria nahiko bizirik ikusten dugu, elkarbizitza, parte-hartzea eta sentimendu komunitario hori uste dugu indartsu dagoela Arrankudiaga eta Zollon. Hori egunerok ikusten da. Udalak

antolatutako tailerretan jende pila ibiltzen da. Guzti horrek herriari bizitza handia ematen dio.

Imaginatzen dut horrek asko lagunduko duela Udalaren egunerokoan.

Bai. Trail lasterketa da horren adibide esaterako. Gero eta ospe handiagoa hartu du. Kriston lana eta apostua da hartu duen mailari urtero erantzutea. Hor ehun boluntario ibiltzen dira lanean. Mila biztanleko herri batean hainbeste jende ibiltzea horretan... horrek erakusten du herria bizirik dagoela. Gazteek eta Gazte Asanbladak Euskal Astea eta kriston euskal ezkontza antolatu zuten. Horrek ere erakusten du nola talde desberdinek Udalarekin elkarlanean gauza

ru sozialeko etxebizitzaren proiektuekin. Eusko Jaurlaritzarekin batzar bat egingo dugu urtarirlean proiektua agilizatzeko eta 2024an obrei ekiteko. Aurreko proiektuan bezala, hemen ere hamabi etxebizitzatik hamar herriko jendeak beteko ditu; eta gainerako biak inguruko herrietakoek.

Guzti honen helburua argia zen: herriko jendeari jaio diren herrian bizi ahal izateko eskubidea bermatzea. Gazteria bertan errotzea ezinbetsekoa da herriaren etorkizunari begira. Orain Zollon antzeko proiektu kooperatiboa garatzeko bidea abiatu nahi dugu. Parte-hartze prozesua hasi dugu honezkero.

Asmoa da modu autonomoan garatzea proiektu hori, tarteko beste erakunderen bitartekaritzarik gabe. Proiektua Zolloko gazteen interesen arabera garatzea da asmoa, hasi besterik ez dugu egin, eta gutxienez urte beteko lana izango da dena martxan jartzea.

Urte emankorra izan da orduan.

Bai, guk positiboki baloratzen dugu. Beti nahi duzu gehiago egin, baina lanean hastean ohartzen zara gauzek bere denbora behar dutela eta askotan ez doazela nahiko genukeen abiaduran.

Zeintzuk dira datorren urteari begira erronka nagusiak?

Lehenik eta behin, hasieran aipatutako Oxinburuko proiektua guztiz amaitzea eta bertako jarduerak guztia martxan jartzea. Horrek ekarpen handia egingo dio herri bizitzari.

Uraren gaiari heldu nahi diogu

“Beti nahi duzu gehiago egin, baina lanean hastera ohartzen zara gauzek bere denbora behar dutela eta askotan ez doazela nahiko genukeen abiaduran”

2024an. Lur-sailak erosi ditugu honezkero eta proiektua aurkeztu diogu partzuergoari; ur-ponpaketa estazio bat eraikiko dugu herriko hornidura bermatzeko. Partzuergoan integratzeko bidean, guk etxekolan guztiak eginda ditugu, baina oraindik saneamenduen gaia airean dago. Partzuergoaren ardura litzateke ur zikinak Galindora ponpatzeko sistema jartzea, baina oraindik aurrekontuetan sartu ez duten proiektua denez *stand-by*an dago integrazioa. Guk ponpatze sistemari urratsak emango ditugu, integrazio hori bultzatzeko.

Beste obra batzuk ere baditugu esku artean; Atxetako erabilera anitzeko lokalean adibidez. Zollon ere obra potentea etorriko da. Izan ere, udaletxe zaharra goitik behera berrituko dugu eta espazio kultural berri bat atonduko dugu bertan. Herriko mobiliario urbanoa ere berritzen joango gara legegaldi honetan. Gure asmoa ez da bakarririk zaharrak kendu eta berriengatik ordezkatzea, baizik eta berritze prozesu horretan espazio berriak atontzea ere. Azkenik, Arrankudiaga-Zolloko lehenengo HAPOa diseinatuko dugu legegaldi honetan.

Aldaketa klimatikoaren kontra ere hainbat lan aurreikusi dituzue.

Aldaketa klimatikoaren aurrean, arlo energetikoan, hainbat lan egingo ditugu. Alde batetik argiteria publikoa guztiz berrituko dugu, sistema efizientea izan dadin ehuneko ehuneko. Bestetik, plaka fotovoltaikoak instalatuko ditugu udaletxean, horrekin batera udal eraikin guztiak energia-berriztagarrien bidez hornitzeko asmoz.



Elkarlanean aritzeko prest

Urtzi Vergara Belaustegigoitia
Arrankudiaga-Zolloko EAJ-PNVko zinegotzia

Legegintzaldi berria hasi zenetik sei hilabete baino ez dira igaro. Orain arte ez dago alderdi bezala kontatzen nobedade askorik. Kargu-hartzean esan genuenez, lau urte hauetan erronka handiak ditugu etorkizunari begira, elkarlanean aritzeko eta gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko duten akordioak lortzeko gaude.

Argi dago Udaleko gehiengo egungo gobernu-taldeak duela, baina gure eginbeharra da akordioak betetzen direla zaintzea eta, era batera edo bestera, gure programaren zati bat gauzatzen saiatzea. Ez ginen ados jarri tasei eta zergei dagokienez; izan ere, gobernu-taldearen proposamena horiek igotzea izan zen, eta gureak, berriz, izoztea, gure programan esan genuenez.

Datozen egunetan aurrekontuen eztabaida izango dugu. Horretarako, gure adinekoren segurtasuna hobetzeko proposamenak egin ditugu, herritarrena oro har, baita udal langileena ere, herritarrekiko komunikazioa hobetzeko, eta haur-parkeak berritzeko.

Orain arte horrela izan ez bada ere, gustatuko litzazuke datozen urteetan Udalaren eguneroko lanean gurekin kontatzea. Herriaren alde eta herriarentzat, herri euskaldun, solidario eta guztion bizi-kalitatea hobetuko duen Arrankudiaga-Zollo baten alde lan egiteko konpromisoa berretsi nahi dugu.

Bukatzeko, gure desiorik onenak guztiontzat, jai zoriontsuak eta urte barri on!!!



Aiarako

2023ko mugarriak

Udalaren balantzea

ARO BERRI BAT ABIATU DA AIARAN, ELKARLANA, GARDENTASUNA, PARTE HARTZEA ETA GERTUTASUNA ARDATZ IZAN NAHI DITUENA, ETA HORREN ALDE UDAL GOBERNU TALDEAK TRESNA GUZTIAK JARRI NAHI DITU HERRITARREN ESKUETAN.



Aitor Burgoa

ENERGIA TRANTSIZIOA

Energia komunitateen sorrera butzatzen ari gara, energia trantsizioak eskatzen dituen urratsetako batzuk eginez; Batzar Administratiboan ondoan, energia komunitateak sortzen laguntzen, informazioa errazten. Gareseko eredura hurbildu gara, eta Aiarara egokitutako plangintza diseinatzen ari gara, gure errealitateari egokitutako eredu bat garatuz.

Udalak alegazioak aurkeztu ditu energia ekoizteko proiektu berriztagarrien ezarpenaren inguruan Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Lurralde Plan Sektorialaren aurrean. Ehunka alegazio aurkeztu genituen, baina oraingoz ez dugu erantzunik jaso. Nabarmendu nahi dugu, jakin badakigula beharrezko energia trantsizioa egin beharko dugula, baina informazio zehatza eta gardena eskatzen dugu, parte hartze handiarekin eta ahalik eta eragin gutxienekin.


AURREKONTUAK

Aurrekontuaren onarpenak azken urteetan izan ohi duen atzerapenarekin bukatzeko, aurrekontu proposamenean ari gara lanean jada, eztabaidara eman, ekarpenak jaso eta ahalik eta lasterren onartuta egon daitezzen, maiatzera edo ekainera arte itxaron gabe.



MUGIKORTSUNA

Gure herrien arteko eta kanpora begirako mugikortasun plangintza berri batean ari gara lanean. Beharren inguruko ikerketa bukatuta, horrek emandako datuak aztertu eta, Batzar Administratiboekin batera, errealitate ezbedinen arabera soluziobideak aztertuko ditugu Luiaondo eta Arespalditza bi ardatz nagusi gisa hartuta, garraiobideen ondoko aparkalekuak sortu edota egokitu, alokairuzko bizikleta elektriko eta ez elektrikoaren erabilera bultzatu... Batzar Administratiboekin lotuko dugu orain zein irtenbide eman herri bakoitzaren beharizanetara egokituz.



LUIAONDOKO PISTA
Lulaondoko Padurako kirol pista estalia egokitzeko diru-laguntza eskatu dugu, inguruaren itxiera eta sarrera moduko espazio bat egokitzeko.



IKASTOLAREN ALBOKO ESPAZIOAREN BERRESKURAPENA
Ikastolako patioa beste era batean antolatzeko, lehen fasea burutu da eta alboko eta atzeko aldeak hesitu dira, haurtzaindegiko eremu berdea eta lehen hezkuntzakoa bereiztuz. Bigarren fasea burutu baino lehen, zuzendaritza, EIGE eta Udal taldearen artean hausnarketa prozesuan daude aukera egokiena zehazteko.



Arabako Foru Aldundia

BATZAR ADMINISTRATIBOAK
Batzar Administratiboekin biltzea eta elkarlana abian jartzea izan da udal talde berriaren lehen urratsetako bat. Harremanak sendotzea eta elkarlanean oinarritutako bide berri bat abiatu dugu, eta bide horretan sakontzea da gure helburua datozen hilabeteetan gai ezberdinen inguruan, mugikortasun berri bat diseinatzeari dagokionean, adibidez.



GAZTEAK
Gazteei zuzendutako aholkularitza sexu-afektiborako zerbitzu berri baten diseinua landu nahi dugu. Galdakaoko Udalaren esperientziara hurbildu gara, gure udalerriko gazteen beharrei egokitutako zerbitzu bat diseinatzen hasteko.

BASO KUDEAKETA

Gure udalerrian, eukaliptoaren landaketa berriak eteteko eta luzamendua ezartzeko eskatu diogu Arabako Foru Aldundiari, baso kudeaketaren inguruko plangintza egin bitartean. Azken hamar urteetan, hamahiru aldiz biderkatu da eukaliptoak gure basoetan okupatzen duen azalera. Ezagunak dira espezie horren ustiapen intentsiboak ingurunean eragiten dituen kalteak. Hori dela eta, landaketa berriak gelditzeko eskatu diogu baso kudeaketan eskumenak dituen administrazioari, hau da, Foru Aldundiari.



AIARAK DITUEN ERRONKEI ERANTZUNA EMATEKO GUZTION AHOTSA ENTZUTEA BEHARREZKOA DELA JAKITUN, URRATSAK EGITEN HASI GARA UDAL KUDEAKETA NORABIDE HORRETAN JARTZEN AHALEGINDUZ.



“Bistakoa da guretzat ezustea izan zela alkatetza lortzea, baina asteburu horretan bertan hasi ginen lanean”

errazteko, helegite zehatzagoak aurkeztu behar baitzituzten. Hori guztia oso denbora laburrean egin behar izan genuen, baina helegiteak epe barruan aurkeztea lortu genuen. Uztailean izan zen hori eta egun oraindik ez dugu erantzunik jaso.

Oso gatazkatsua izan da Aiaran ere eskola garraioa, zein izan da egoera?

Gure bailaran mugikoratsunarekin lotutako guztia oso konplikatu da, oso sakabanatuta dauden herrietan bizi garelako, eta eten-gabe behar dugu garraioa eguneroko bizitzan. Ikasturtea hasi eta hurrak eskola garraiorik gabe egoteak sekulako zailtasunak sortzen zituen familietan, gure ikasle gehienak garraiatuak direlako.

PRUDEN OTEGI EZUSTEAN LORTU ZUEN ALKATETZA EKAINAREN 17AN ETA ERRONKA HORRI NOLA EGIN ZION AURRE AZALDU DU. KOALIZIOAN GOBERNATZEA NOLAKOA DEN EDOTA PLAN ESTRATEGIKOAK ERE AIPATU DITU.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Ekainaren 17an alkate izan zinen ezustean, hirugarren indar bozkatuena izan baitzen EH Bildu. Nolakoa izan zen bat-batean astelehenean alkatetza zure gain hartzea?

EH Bildu hirugarren indarra da lau bozkaren aldeagatik. Lau boto baino ez, emaitzak beraz nahiko parekatuak izan ditugu udal gobernuan, gauden bi alderdiok. Bistakoa da sorpresa handia hartu genuela, hortik aurrera egun pare bat izan genuen gure lan taldean agertoki berrian kokatzeko. Aste-

lehenaz gain asteburu osoa izan zen nahiko bizia, gure lan plangintza egoera berrira egokitu behar genuelako, gure bizimoduak beste era batera antolatu...

Beraz, astelehen hartan ardura berrietan lurra hartzen hasi ginen, langileekin hitz egin, lana antolatu... gauza asko berriak ziren guretzat, baina umiltasunez, langileen laguntzarekin, udal lanari ekin genion.

Alkatea izendatu baino lehen

baztertu zenuten Aiara Batuzekin akordioa lortzea. Aldiz, gero udal gobernu osatu duzue, nolakoa izan da prozesua?

Akordioa egiteko zailtasunak ikusten genituen, desadostasunak zeuden, baina ez genion elkarlanari bidea itxi. Planteatzen genuen gure arteko konfiantza josi behar zela, eta akordiorik egin ez arren, gure proposamena zen oposiziotik elkarrekin lan egitea, eta elkarlan horretan oinarrituta aurrera ateratzea hainbat gai, lan amankomun hori sendotzen joateko. Bide

hori bera gobernu taldean egiten ari gara orain.

Nolakoa izan da zuen arteko elkarlana lehen hilabete hauetan?

Arlo ezberdinetako ardurak banatu ditugu udal gobernu taldea osatzen dugun sei zinegotzien artean. Ardurak eta kudeaketa, beraz, ez dira alkatetzaren bulegora mugatzen, neurriak, urratsak, proiektuak... arlo bakoitzeko zinegotzi arduradunak lideratzen ditu.

Hori oso argi geneukan eta uste dugu, gainera, horrela izan behar duela, lantalde bat garelako. Gure arteko koordinazio horretan sakondu behar dugu, kontuan hartuta, gainera, zinegotzi gehienek lana eta ardura politikoa uztartu

behar dituztela, eta horrek antolaketa berezia eskatzen du askotan. Zailtasunak zailtasun, gobernu taldea osatzen dugunok argi daukagu zein den lehentasuna, aiarrarentzat lan egitea, eta horretarako ezinbestekoa dela adostea, udal taldearen barruan eta kanpoan.

Izan zenuten lehengo erronken artean Energia Beriztagarrien Sektore Planaren helegiteak izan zen, zer egin zenuten?

Lehengo eta behin ondo aztertu genuen arkitektuarekin eta Administrazio Batzarrekin eta bi ingeniari ezberdin kontratatu genituen, alde batetik, udal gisa alegazio orokorrak aurkezteko eta, bestetik, batzarrei euren alegazioetan laguntza emateko, bidea

Egundoko arazoa zen etxe askotan, eta horregatik ia egunero egin ziren mobilizazioak eta hainbat ekimen irtenbidea eskatzeko. Guraso elkarteko ordezkariarekin batera Lakuara jo genuen eta Hezkuntza Saileko arduradunekin bildu ginen. Ematen zuen konponbide hurbilik ez zegoela eta bi egunetan konpondu zen. Baina esandakoa, eskola garraioa ezinbestekoa da gure udalerrian.

Zein prozesu edo erabaki azpimarratuko zenituzke lehen hilabete hauetan?

Energia Berriztagarrien planari egindako alegazioak, mugikortasunari dagokionean abian egindako urratsak, Batzar Administrazioekin batera diseinatu behar

ditugunak, eta mendilerroaren erabilerak ordenatzeari begirako lanketa, adibidez.

Beste proiektu batzuk daude, hasiera fasean edota finantzazioa lotzearen zain... Aipatutako horiek dira lehen hilabete hauetan, uda tarteko, garatuen dauden gaiak, baina bestelako arloetan hasi gara lanean.

Zeintzuk izango dira legealdi honetako erronkak?

Mugikortasuna gai garrantzitsua da Aiaran, Administrazio Batzarren eta Udalaren arteko elkarlanean ere sakondu nahi dugu, hortik etorriko baita herritarren beharrezane eman beharreko erantzun asko; baso kudeaketan eredu berri bat garatu eta energia trantsizioa dira erronka nagusiak.

“Hainbat arlotako ardurak banatu ditugu udal gobernu taldea osatzen dugun sei zinegotzien artean”

Badakigu energia eraldaketa egitearen beharra dagoela, baina modu garden eta antolatuan egin nahi dugu, parte hartzea ahaztu gabe. Eta beste arlo askotan daude erronkak, euskararen arloan, kultura eta kirol eskaintzari dagokion guztian, gazteentzako interesgarri izan daitezkeen zerbitzu berrietan, bakardadeari aurre egiteko ekimenetan...

Horietako batzuk aztertze fase batean daude, beste esperientzia batzuetara hurbildu gara Aiarentzat egokien izan daitekeen sistema diseinatzen hasteko. Esaten nuen bezala, aztertze fase horretan gaude zenbait ekimenekin, proiektuak buruan ditugu baina forma emate horretan gaude, proposamen zehatz bat aurkeztu aurretik.



Norabide finkorik gabeko gobernu taldea

Gentza Alamillo Udaeta

Aiarako EAJ-PNVko zinegotzia

Maiatzeko azken udal-hauteskundearen ondoren, Aiarako egoera politikoak aldaketa nabarmena izan du gobernu-aldaketarekin. Hala ere, EAJ-PNV Aiarako gobernu alderdi politikoaren ikuspegitik duela hilabete batzuk arte, aldaketa horrek ez du ekarri aurrerabidea eta espero ziren proiektuak gauzatzea.

Izan ere, aurreko legegintzaldian, EAJren gidaritzapean, udalerraren garapenerako prestatutako jarduketak eta proiektu ugari utzi ziren udal aurrekontuan. Tamalez, egungo gobernu-taldeak ez ditu ekimen horiek gauzatu, eta ahaztu egin ditu Aiaran alde nabarmena izan zezaketen planak. Gobernu talde berria, EH Bilduk eta Aiarako Batuzek osatua, aldaketaren Alkatetza bezala aurkeztu zen. Hala ere, aldaketa hori nabarmenagoa izan da proiektuak geldiarazteko abiadura eta lurraldean eragin politikoa galtzean. Aiarako herritarren beharrezane ez erantzutea eta jarduerarik eza kezkarriak dira. Alderdi deigarrienetako bat jarrera aldaketa lotsagabeak dira. Oposizioan egonik, irmo defendatzen zena, orain, gobernuan, guztiz kontrako jarrera bihurtu da. Koherentzia-falta horrek nahasmen handia sortu du herritarren artean, beren promesekin eta printzipioekin konprometutako gobernuaren espero baitzuten.

Laburbilduz, Aiarako urtearen amaiera auzokideen etsipenak markatu du aurreikusitako proiektuak gauzatzeari dagokionez, eta gobernu-aldaketa horrek, aurrerapena izan beharrean, paralisi kaltegarria ekarri dio udalerrinari. Aiarako EAJ-PNVtik oposiziotik lanean jarraituko dugu, herritarren interesak defendatuz eta etorkizun oparo eta parte-hartzaileago batera.



Aldaketarako urtea

Iratxe Parro Uzquiano

Aiara Batuzeko zinegotzia

Sarritan, aldaketa-egoerak "ezezagunaren aurreko beldurrarekin" lotuta daude, eta aurretik, maiatzeko udal-hauteskundearen ondoren, Aiaran alkatetza aldatu da eta gehiago absolutuarekin amaitu da, Aiara Batuzek bilatzen zuen bezala. Gure taldeak beldur hori sentitu zuen, aldaketaren alde onak eta txarrak aztertu zituen horren alde bozkatu aurretik, eta, azkenik, beldurrari aurre egitearen alde egin zuen, ausartak izatearen alde, Udalaren beharrezane baten alde eta Aiara beste modu batean kudeatzeko ilusioaren alde borrokatzearen alde. BELDURRA + ILUSIOA + AUSARDIA + ERABAKIA + ERANTZUKIZUNA = APUSTUA, TRANTSIZIOA, IKASKUNTZA, KONPROMISOA, HASIERA. Horrela, alkatetza lortzeko babes nahikorik ez genuela ikusita, EH BILDURI lagatzearen aldeko apustua egin genuen, eta haiekin akordioak lortzen saiatu ginen, udal gobernuaren elkarrekin eramateko.

Jakin bagenekien hasiera zaila izango zela, eta hala izaten ari da. EH BILDUREKIN batera lan egiten ikasteko erronka dugu aurrean, presarik gabe, baina etenik gabe, administrazioak tramitazioari dagokionez nahiko motelak izan arren, lau urte azkar pasatzen direlako.

Uste dugu aldaketaren aldeko apustua egokia izan dela. Aiara Batuzek haziak zituen arkatx bat banatu zuen bere hauteskunde kanpaina. Aiara Batuz erein zuen aldaketa erein zuen. Orain Aiaraldean eta herritarrentzat proiektuak marrazten eta idazten jarraitzea dagokigu.



Artziniegako 2023ko mugarrak


Udalaren balantzea

MUGARRIZ BETETAKO URTEA IZAN DA 2023A ARTZINIEGAN. HAINBAT MOTO-TAKO GERTAKARIEK EZAUGARRITU DUTE URTEA, ETA UDALAK HAINBAT PROIEKTU ESTRATEGIKO ABIATU DITU, DATORREN URTEAN JARRAIPENA EMATEKO HELBURUAREKIN.



Irailean inauguratu zen Artziniegako skate parkea. Barcena kirol gunean dago, eta egunero dago erabilgarri 10:00etatik 22:00etara bitartean.

Hasi dira Kultur Etxeko obrak. Eraikinaren egitura egonkortzea, irisgarritasuna bermatzea, energia eraginkortasuna hobetzea, edukiera handitzea eta espazioaren banaketa aldatzea izango da lanen xedea.



Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria (HAPO) osatzeko prozesu parte hartzailea abiatu du Udalak, bizilagunekin elkarlanean.

Artzikirolak, Ramon Reyren eskutik Artziniegan jaiotako kirolak, munduko gero eta toki gehiagotara iristen jarraitu du aurtan. Ramonek berak Txiapasen (Mexiko) egindako jardunaldi batzuetan parte hartu zuen azaroan. Artzikirol federazio bat sortu du azkenean, eta bide horretan urratsak ematen dihardu. Etorkizun olinpiko baterantz? Denborak esango du hori.



Urrian zendu zen Teo Zelenyi hamaika urteko artziniegarra. Udalak hiru dolu egun deitu zituen herrian, eta elkarretaratze isila egin zuten gaztearen memoria omentzeko.



Arteko Gure Amako jaiak bi asteburuz girotu zuten udalerria, ehunka bizilagun, kuadrilla eta elkarteek ekarpenari esker.



Jaiak pasata, artziniegarrek ez zuten atsedenik hartu. Beste urte batez, Artziniegako Antzinako Azokak alde zaharra eraldatu zuen berriz irailean, herritar ugariren parte hartzearekin.



Urrian sutea piztu zen Artziniegako Maristen Eskolan. 2014. urtetik zerraman eraikina hutsik, eta Udalak neurriak hartu ditu espazioa itxi eta, modu horretan, herritarren segurtasuna bermatzeko.



Artziniegan ospatu da aurten Aiaraldeko Euskararen Eguna. Eskualdeko ehunka lagun bildu ziren abenduaren 3an herrian, egun osoko egitarauaz gozatzeko, euskaratik eta euskaraz.



JOSEBA VIVANCO RETESEK BIGARREN ALDIZ LORTU DU GEHIENGO OSOA ARTZINIEGAKO UDALEAN ETA POZIK DAGO, BAINA ERRONKA ETA OBRA UGARI DITU ESKU HARTEAN HASI BERRI DEN LEGEALDI HONETAN ETA HORI GUZTIA AZALDU DU.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Hauteskunde urtea izan da, eta gehiengo eskuratu duzue berriro, zein da balorazioa?

Lau urteko udal kudeaketaren azterteketa izan zen. Aintzat hartu behar da oso urte zailak izan direla eta ikasteko tarte txikia izan dugula, bereharala harrapatu gintuen pandemiak eta. Konplikatuak izan dira, baina positiboak ere. Aurrera egin dugu, baina kostu pertsonala handia izan da.

Udalerrriak aurrera egin du hainbat esparrutan, bide publikoen irekie-

ran, adibidez, beste udal gobernu taldeek ekidin dutena. Beste kasu batzuetan oztopo administratiiboak aurkitu ditugu, burokrazia-gatik.

Emaitzen aldetik, historikoak izan dira. Izan ere, lehen hauteskundeetatik zerrenda batek ez zituen bostehun bozak gainditzen eta egin genuen, zinegotzi bat gehiago lortuta eta PP desagertuta, hainbat urteren ondoren.

Kontziente gara bozken zati bat

egindako kudeaketagatik dela, baina beste zati bat konfiantzazkoa da. Alegia, konfiantza eman digute orain arte egondako arazoak konpondu ditzagun legealdi honetan. Balurbilduz, oso emaitza onak, baina badakigu zer egin dugun ondo eta zer txarto eta konpondu ez ditugun arazoei irtenbidea emateko konpromisoa dugu.

Nola egingo diozue aurre legealdiari?

Kontuan hartu behar dugu sei zinegotzitik lau berriak direla.

“Kultura Etxea, Eguneko zentroa, Dorretxeko Hotela, ur azpiegiturak... Askok hobetuko da herria legealdi honetan”

egiteko inportantea izan da. Jaientan, adibidez. Aurten ere auzoekin bilerak egin ditugu, jendeak parte hartzeko eta ekarpenak egiteko. Errealitate proba da, herritarrek aurpegiratzen dizkizute zenbait erabaki eta eurekin eztabaidatu behar duzu.

Hotelaren afera ez dugu guztiz itxi eta pena izan da. Erremateak baino ez dira geratzen, baina egin behar dira. 320.000 eurotik, enpresak 40.000 euro kobratu behar ditu oraindik, zati txikia da, baina ez dute amaitu. Jakinarazpena bidali diegu ahalik eta lasterren egin dezaten, ez badute egiten kontratua etengo dugu. 13.000 euroko isuna jarri diegu jadanik. Ez da egoera erraza, lanak gehiago luzatu daitezke eta, helegitea aurkezteko aukera dute eta gero beste enpresa bat kontratatu beharko genuke.

Helburua da 2024an hotelaren lizitazioa egitea. Irisgarritasun obrak eta skate pista egin ditugu. Pista horrek sekulako erabilera izan du eta familiak pozik daude, azken moldaketa batzuk falta arren. Kultura esparruan oso urte bizia izan da eta jaiak zein erdi aroko azoka ondo egon dira.

Aurrekontuak prestatzeko parte hartzerako prozesua egin duzue, zein da balorazioa?

Ondo. Proposamenak jaso ez ezik, inkesta ere zabaldu genuen udal zerbitzuen balorazioa egiteko. Berrogei lagunek erantzun zuten Internet bidez eta balorazioak, oro

Ezagutu behar dute Udala eta moldatu. Besteok badugu eskarmentua eta beste modu batean hartuko dugu. Azken lau urteetan izugarritzko lana egin dugu eta ez da bideragarria, espero dugu hau lasaiagoa izatea.

Ezagutzen ditugu erritmoak eta ez gara erotuko. Hala ere, kultura esparruan, adibidez, ekintza mordoak dugu eta ezin dugu erritmoa jaitsi.

2023ko balorazioa zein da?

Hauteskundeek udal jarduera galditzen dute. Udal gobernu talde berria eratu beharra dago, gero oporrak datoz... Ia hiru hilabete oso funtzionamendu apalarekin zaude. Dena den, aurten lortu dugu Kultura Etxeko lanak abia-

tzea, eta proiektua ixtea ahalegin handia izan zen. Erritmoak, gainera, onak izaten ari dira. Legealdi honetan Foru Planeko hiru obra handi izan ditugu eta amaitu behar ziren. Urtean bi obra handitan sartzen bagara, nahikoa da, baina dirulaguntzak zeudenez, gehiagotan egin dugu.

Horrez gain, lehenengo urtea izan da Artziniegako Museoak hitzarmen berriarekin lan egin duela. Horrek egonkortasuna eman dio 2025era arte eta espero dugu luzatzea.

Garrantzitsua izan da kontratu txikien prozedura aldatu eta azkartzea. Kanpora begira ez da nabaritzen, baina kontratazioak

har, onak dira. Kultura Etxeko obra amaitu behar dugu irailerako, gero altzariak jartzeko eta abar. Epe hori ondo legoke.

Beste xede bat da Dorreko hotela irekitzea eta eguzki plakak instalatzea eskolan. Auzuneei eskatu digute landabideetako mantenua hobetzea eta argiteria publikoa ere.

Gainera, usoen harrapaketa abiatu nahi dugu, alde zaharrearaz arazoa baitugu animaliekin. Foru Aldundiak baimena eman digu, kalteak sortzen dituztelako eta etxeetan sartzen direlako. Kaioiak erabiliko ditu enpresa batek. Lan luzea izan da, baina erakutsi dugu egiten dugula. Bideekin bezala. Agian ez da berehala egiten, baina egiten da.

Ez dut ahaztu nahi Etnografia Museoaren 40. urteurrena dela 2024an. Garrantzitsua izango da baita ere herriko zeharbidearen berriketa. Arabako Foru Aldundiak ekin dio diseinatzeari eta ez dakigu 2024an edo 2025ean izango den, baina obra egingo dute. Berrituko dute errepeidea, argiteria... Lan handia izango da. URAk ere kolektoreetan esku hartuko du eta hoditeriaren aldaketa gure gain egongo da. Eguneke zentro berriaren proiektua hor dago. Aurten egingo bagenu bikain legoke. Eusko Jaurilaritzako Larrialdiko Planaren dirua ere helduko da eta turismoan eragina izango du, dorretxe eta museoen ibilbideak egiteko. Kexaako inbertsioak guregan eragina izango du. Adibidez, guk proposatu dugu han turismo bulegoa

“Kultura Etxeko obrak egiten dituen enpresari 13.000 euroko isuna jarri diogu atzeratu delako”

egotea. Landabide publikoak irekitzen eta seinalezatzen jarraitu nahi dugu, ibilbide zirkularra handitzeko.

Erdi Aroko Azokaren 25. urteurrena aurten izango da eta espero dugu beharrezko garrantzia ematea, herrian eragina dauka eta.

Nola nahi duzu amaitzea Artziniegak legealdia?

Esku hartze eta obra oso garrantzitsuak daude. Herria eraldatuko dute; uraren azpiegitura, Kultura Etxea, zeharbide berria, eguneke zentroa, Foru Planean

eskatu ditugun hobekuntzak... Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen ari gara ere. Demografiari erreparatuta, 20-40 urte artekoak jaisten ari dira etxebizitza publikoa ez dugulako. Arazo hori aintzat hartu behar dugu HAPO osatzeko orduan. Turismoan lortu dezakegu Dorreko Hotela irekitzea, agian jabetxearekin.

Dena den, parte hartzea sustatu nahi dugu, elkarteek lekuko aldatzea behar dute. Bi edo hiru urteko umeak euskaraz mintzatzeko ari dira, euskaraz hitz egiten dietelako gurasoek eta hori erdua da. Etorbizuneko Artziniegarako inplikazioa behar dugu. Lan handia dugu elkarteekin eta arazoa izango da. Jaieran gertatzen da eta Udalak ezin ditu bere gain hartu. Jendeak interesa izan behar du antolakuntzan ere.

Irekitzen ditugun toki berriekin ere arazo berriak sortuko dira. Egun bi langile ditugu eta ez da nahikoa. Zerbitzuak mantendu beharko ditugu.

Polemika izan duzue Arabako Batzar Nagusien bilkura hemen egin nahi zenutelako?

Aiarako eskualdean izan behar zen eta 2021ean eskatu genuen, 750. urteurrenarekin bat egiteko. Hurrengo guri zegokigun. Izan ere, Okondok 1998an hartu zuen eta guk 1992an, baina EAJK jokaldia egin du, Aiarako Kuadrillako beste herriak EH Bildukoak baitira eta Okondori eman dio PSE-EErekin batera. Erabaki oso itsusia iruditu zait.



Arrabolari aurre eginez

Encina Castresana Astarloa
Artziniegako EAJ-PNVko zinegotzia

EAJ-PNV Artziniegatik beti uste izan dugu udal kudeaketak gobernu ona, egonkortasuna eta garrantzitasuna eskatzen dituela. Elkarlana, hausnarketa eta, batez ere, Artziniegaren eta bertako biztanleen etorkizunean pentsatzea funtsezkoa da tokiko politikak aurrera eramateko.

Gobernatzeko modu hori ez dator bat aurrez aurre EH-Bilduk erakutsitakoarekin, maizteko hauteskundeen ondoren berriro ere bakarkako gobernu gidatzen baitu, eta erabakiak inposatzen baititu oposizioari entzun gabe, lankidetzarik eza agerian utziz eta, etengabe, EAJ-PNVren Udal Taldearen ekarpenei jaramonik egin gabe. Proiektuetako inprobisazioa eta geldotasuna dira tokiko exekutiboaren ohiko joera, Artziniega kaos batean murgilduz eta bizilagunen benetako arazoak konpondu gabe.

Gehiago osoz babestuta, EH Bilduren gobernu taldeak aldebakarreko erabakiak hartzen ditu, eta ondorio zuzenak ditu herritarrentzat. Hona hemen adibide argiak: igerilekuetako obrak, hotela eta alde zaharreko irisgarritasunari buruzko irtenbide "zalantzarriak", dirulaguntza ekonomikoaren gailera, Gaztelekuaren eta Jolas Txokoen kudeaketa txarra, gazteen emantzipazioan egindako zero aurre-erapenak, hausnarketarik eta entzuterik eza Crad, Osasun Zentroa edo Erretiratuen Zentroa bezalako zerbitzuak planifikatzeko, eta aparkalekuen kudeaketa etorkizuneko HAPOren diseinuan.

Zerrenda luze horrek agerian uzten du gobernu honen kudeaketa txarra, kontrolik eza eta planigintza eskasa. Gainera, EH-Bilduk, Artziniegan, aurrekontu kontinuitateak proposatzen ditu, udalerriaren inbertitzeko aukerarik ematen ez dutenak, ez bakarrik langile-gastu handiengatik, baita alkatetzaren baten lan, proiektu eta eraginkortasun faltagatik ere, herritarrei huts egin baitie, "gauza bat predikatzea baita, eta beste bat garia ematea".





“Lehenengo sei hilabeteak oso azkar igaro dira, ikasteko eta antolatzekeo hainbeste gauzarekin”

pena, batzordeak eratzea ekitaldiak (kulturalak, jaiegunak, kirolekoak...) egiteko.

Alkate gisa lehen aldiz ospatu dituzu Arakaldoko jaiak, nola baloratzen dituzue?

Antolakuntzarako oso denbora gutxi izan genuen arren, balorazioa oso positiboa da. Auzotarrok jai batzorde bat osatu genuen eta bertan egitaraua erabaki eta lana banatu genuen. Gustu eta adin guztietarako programa anitza egin genuen.

Nola baloratzen dituzu lehen sei hilabeteak alkate gisa?

Egia esan, ikasteko eta antolatzekeo hainbeste gauzarekin oso azkar pasatu zaizkit. Uste dut udalerritari dedikazioa ematea lan gogorra eta, aldi berean, gogobetegarria dela, pixkanaka-pixkanaka aurrera goaz.

SONIA HIDALGO ARAKALDOKO TALDEAREN ALKATEA DA. ERAGILE POLITIKO BERRI HORREN FILOSOFIA ETA AURTEN EGIN DUTEN LANA ETA EUREN LEHENENGO BIZIPENAK UDALEAN AZALDU DITU ELKARRIZKETAN.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Nola sortu zen zuen taldea?

Arakaldoko Taldea proiektio politikorik ez duen auzo-ekimena da, bere helburu nagusia herria eta arakaldarren bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak burutzea da. Marka zuri bat eskaintzeko sortu zen, pertsona guztiek parte har dezaten erabakiak hartzeko prozesuan, antolaketan, funtzionamenduan eta, azken finean, egunez egun herri bat eraikitzen, gozatzekeo eta miresteko.

la urte erdia egin duzu udalean,

nolakoa izaten ari da esperientzia?

Hasierak beti dira gogorrak, egokitu egin behar da, udal makineria guztiak nola funtzionatzen duen ikasi. Biztanle kopuruaren arabera, Udalarai astean egun bateko dedikazioa eskaintzen zaio, baina errealitatea da denbora gehiago daramala. Inoiz ez nuen uste erraza izango zenik, baina bai, espero baino lan handiagoa da, baina lan egiteko konpromisoa hartu dugu eta ahalik eta ondoen egin dugu.

Aurreko udal-gobernu taldeak zer proiekturi eman die jarraipena?

Hondakinen kudeaketa, saneamendu-sarea, sarbideen automatizazioa, hiri-antolamenduko plana eta argiteria publikoaren lurperatzea... proiektu horiei jarraipena emango diegu, besteak beste.

Zure ustez, garrantzitsua da herritarren parte-hartzea; nola bideratu duzu?

Nire ustez, herritarren parte-har-

tzea funtsezkoa da eredu honetan eta guztietan. Uda igarota, gure asmoa da auzo-batzarrak egitea hiru hilean behin, ideiak azaltzeko, arazoak eta beharrak aztertzeko eta konponbideak emateko, betiere errespetuz.

Zeintzuk dira zuen proiektuak epe laburrera?

Olentzeroren eguna antolatzea, eguneroko gauza txikiak, uraren ihesak, landare-hondakinak (beldarra, inausketa, hostoak, etab.) isurtzeko leku bat prestatzea, lore-zaintza zaintzea, farolak aukeratu eta jartzea, bideak mantentzea, euskara ikasteko talde bat sortzea, Ugarritza auzoan hornidura-sarea berritzeko proiektu baten aurkez-



Okondoko 2023ko mugarriak

Udalaren balantzea

OKONDO BERE BIZILAGUNENGATIK DA DEN MODUKO HERRIA. HORI ARGI GERATU DA 2023AN. OHIKO EKIMEN ARRAKASTATSUAK ERREPIKATU DIRA URTEAN ZEHAR, BIZILAGUNEN ZEIN UDALAREN ELKARLAN, INPLIKAZIO ETA AUZOLANARI ESKER.



Baseri azokak tokiko ekoizle, nekazari eta abeltzainen hiriburu bilakatu zuen Okondo martxoan, goizetik arratsaldera luzatu zen egitarauarekin.



San Prudentzio, Otaolako San Sebastian, San Roman, San Bartolome, Irabiengo jaiak... ospakizun uzta oparoa utzi du 2023ak, Udalaren eta auzoetako jai batzordeen elkarlanari esker.





Uztailean egin zen Txakolin Jaia, eta Dani Alvarez izan zen eguneko gonbidatu berezia. Aiaraldeko eta Okondoko txakolin bertuteak goraiatu zituen “La Noche de...” zinema saioko aurkezleak.



Berdintasunaren aldeko jarduerak ere ez dute etenik izan 2023an. Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko ohiko ekintzez gain, dinamika eta egitasmo berriak abiatu dira herrian.



Euskarazko kultur eskaintza oparoa ere egon da aurten Okondon, hizkuntzaren normalizazioa modu jarraituan sustatuz.



“Gehiengo osoa izan arren, EH Bilduri proposatu genion gurekin osatzea gobernua, baina nahiago izan dute oposizioan egon”

JON ESCUZA BIGARREN ALDIZ AURKEZTU ZEN OKONDOKO ALKATEGAI GISA ETA GEHIENGO OSOA ESKURATU ZUEN. HORRI BURUZ, BERE ABSOLUZIOARI ETA INDARREAN DAUDEN PROIEKTUEI BURUZ MINTZATU DA.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Aurtengo hauteskundeetan alkategai moduan aurkeztuko zen lehenengoan artean izan zinen. Erabaki erraza izan zen zuretzat?

Hasteko, ez zen nire erabakia izan. Alderdiak eskatu zidan eta ez zen erraza izan. Lau urte oso biziak izan genituen pandemiaren ondorioz. Horrez gain, aita izan nintzen 2019an eta urte

hauetan denbora ugari sakrifikatu behar izan dut, familiarekin une asko, alegia, udal ardurerengatik.

Gehiengo absolutua izan zenuten, zergatik uste duzu lortu zenuela?

Egia da lortu genuela, baina horrek ez du ezer aldatzen. Alde batetik, uste dut egindako lan

gogorrari saria izan dela, oso urte zailak izan zirelako eta ondo baloratu du jendeak.

Horrez gain, egindakoa izan zen jarraitu behar dugun ildo. Ondo egin dugu eta aitortu digute, baina horrela jarraitu behar dugu.

Zein da ezberdintasuna koa-

lizioan (aurreko legealdian bezala) edo bakarrik gobernatzearen artean?

Ez dago ezberdintasunik. Aurreko legealdian bezala ari gara lanean. Lehen EH Bilduk ardura batzuk zituen eta guk beste batzuk. Alkatetza gurea zen, baina harremana oso ona zen. Aitortu beharra dago oso alderdi ezberdinak izan arren, primeran konpondu ginen.

Egun gu bakarrik gaude, baina EH Bilduri proposatu genion gurekin gobernatzea. Euren nahiago izan zuten legealdia

honetan oposizioan egotea eta errespetatu behar den erabakia da.

Legealdi honetan EH Bilduk zinegotzi bakarra dauka eta gure gehiengo absolutua oso ondo badago ere, niri pena eman zidan EH Bilduk ordezkari bat galdu izana. Nire aburuz, ez zen merezitakoa. Hauteskundearen legea krudela da eta boza gutxi galdu arren, zinegotzi bat gabe geratu dira.

Nire iritziz, beste alderdi batek galdu behar zuen zinegotzi hori,

baina nire iritzia besterik ez da. Edonola ere, bost zinegotzi lortzeak poztu ninduen, baina buru hotz mantendu behar dugu, ez dugu loteria irabazi. Lanean jarraitu behar dugu.

Aurten ere absolutzioa lortu duzu, Okondo Aurrerak hauteskunde iruzurratik salatu ostean.

Egia bide bakarra dauka eta ni lasai egon naiz beti. Nik ez nuen ezer txarrik egin eta ez nuen ezer egin inor kaltetzeko. Hona lan egitera etorri gara eta gure alea jartzera herritarren mesederako.

Salaketa, nire ustez, amorruren ondorioa izan zen. Ez zuten onartu hauteskundeak galdu izana. Modu bat zen nire irudia zikintzeko hauteskundeei begira, baina ez zaio berebiziko garrantzirik eman. Epaitegiak erabaki du eta jendeak argi dauka nik esaten nuena egia zela.

Zein da udal igerilekuen egungo egoera?

Orain obretan dago. Alde batetik, igerileku ertaina sortzea da helburua. Bere garaian bazegoen bat, baina estali zuten. Orain herritarrek eskatzen dute azpiegitura hori eta urratsa eman nahi izan dugu.

Bestalde, udalerrriak behar du sozializatorako eremu gehiago. Gure esku zegoen beste taberna bat sortzea, handiagoa, zerbitzu gehiago emango due-

Politika

na eta agian denbora gehiago irekiko duena.

Behar horien emaitza izan da egungo proiektua eta orain lana esleituta dago eta abenduan dute hasiera data, udako denboraldia hasten denean prest egon daitezen igerileku berria eta taberna. Igerilekuak zer ekarriko duen argi dago, tabernak, ordea, beste jarduera ekonomiko bat sortu nahi du, ez bakarrik igerilekuetan bainatu nahi dutenentzat, baizik eta herritar ororentzat. Definitzeko dago, baina asmoa da ahalik eta denbora gehien irekirik egotea taberna. Kontratuak zehaztuko du, baina gure nahia da irekita egotea ahal bezain beste. Izan ere, gure apustua da toki gehiagoko egotea okondoarrak batzeko eta aisialdia partekatzeko.

Finantzioari dagokionez, kanpoko bitarteko ugari erakarri ditugu, baina hasierako lizitazioan ez zenez inor aurkeztu, prezioa igo behar izan dugu. Izan ere, egungo egoerarekin (gerra, hornigaien eskasia eta garestitzea...) enpresek ez dute arriskurik hartzen.

Esleipena eginda, prezio igoera bere gain hartu beharko du Udalak, baina jarraituko dugu dirulaguntzak bilatzen. Gure lana Udalaririk aurrezte da.

Erronka garrantzitsua erabada kiroldegiarena, zein da egoera?

Proiektua udalbatzan onartu zen eta Arabako Foru Aldundiarekin fintzen ari gara, euren esijentziak betetzeko. Oniritzia jaso ostean, plan finantzarioa

osatuko dugu eta gero lizitazioa egingo dugu. Finantzioari dagokionez, Aiaraldeko Plan Estrategikoak 1.250.000 euroko ekarpena egingo du eta Arabako Foru Aldundiak 630.000 euro. Proiektuak 2.015.000 euro inguru balioko du. Hala ere, saiatuko gara hurrengo urtean dirulaguntza deialdi gehiagotan parte hartzen; irisgarritasuna, eraginkortasun energetikoa... gastua murrizteko.

Guk beti egiten dugu finantzio bilaketa hori. Udalak azken urteotan ez ditu mendiak usiatu, berriro landatzen ari direlako eta hurrengo urtean ez da egingo. Bide errazena da ezer ez eskatzea, baina errazena akatsa da eta bitartekoak bilatu behar dira Okondok aurrera egin dezan.



Okondo feminista, euskaldun eta ezkertiarra

Joseba Ruiz 'Piru'

Okondoko EH Bilduko zinegotzia

2023ko balantzea bat dator legegintzaldi amaierako balantzearekin. Pasa den legegintzaldian, gobernu taldeko kideak izan ginen, eta mendien, abeltzaintzaren, berdintasunaren eta euskararen arloetan behintzat ikuspegi ezkertiar, feminista eta euskaldunetik kudeatu zen lana aurrera eramatea lortu genuen. Egindako esku-hartze guztien ardatz nagusia Okondo eta bere bizilagunen beharrak eta interesak izan ziren.

Legegintzaldi honek bere alde onak eta txarrak izan zituen, baina lan eta esperientzia legegintzaldia izan da, oraingoan oposizioan etapa berri bati bide ematen diona. Ilusioarekin ibilbide berria hasi dugu, eta egunez egun aurrera eramaten saiatuko garen proiektu asko ditugu buruan. Horretarako, lanean jarraituko dugu, bai Udalean, bai Okondoarrekin, guztion bizitza eta bizikidetzak hobetzera bideratuta, arazo eta proposamen guztiak aurrera eraman ahal izateko.

**25 EKITALDI
8 EGONALDI
4 BEKA**

**ARTE HARTZE ZIKLOA
ANTZERKI ESKOLA
BITARTEKARITZAK
NAZIOARTEKO
LANKIDETZAK**

*Zorionak eta eskerrik
asko sortzaile eta
kulturazale gustioi!*

*Urte berrian,
gehiago eta
ederrago.*

KULTURA

SORMEN
FAKTORIA

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
**zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.

Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:

www.kutxabank.eus